



VGAZTE PLANA

#Vgazte plana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA

Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren
Idazkaritza Nagusia
Gazteria Zuzendaritza

PRESIDENCIA

Secretaría General de Transición Social
y Agenda 2030
Dirección de Juventud

1.	SARRERA	7
	HITZAURREA	8
	1.1. AURREKARIAK ETA TESTUINGURUA	10
	1.1.1 2/2022 Legea, martxoaren 10ekoa, Gazteriarena eta Gazte Plana.....	10
	1.2. BESTE PLAN, LEGE ETA ESTRATEGIA BATZUEKIN BAT EGITEA ETA SINERGIAK	12
	1.2.1 2020-2024 Gobernu Programa (XII. Legegintzaldia).....	12
	1.2.2 Euskadiko 2030 Agenda	14
	1.2.3 Erroka Demografikorako 2030erako Euskal Estrategia	15
	1.2.4 Gazteriaren arloko Euskal Estrategiaren ildo orientatzaileak.....	18
	1.2.5 Gazteen emantzipazioa laguntzeko 2030erako Euskal Estrategia	19
	1.2.6 1/2022 Legea, martxoaren 3koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egitekoa.....	21
	1.2.7 EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana.....	22
	1.2.8 Euskararen Agenda Estrategikoa	27
	1.2.9 Eusko Jaurlaritzaren beste plan eta estrategia batzuk	30
	1.3. EUSKO JAURLARITZAREN V. GAZTE PLANA EGITEKO PROZESUA	32
2.	IV. GAZTE PLANAREN EBALUAZIOA	33
	2.1. EUSKO JAURLARITZAREN IV. GAZTE PLANAREN EBALUAZIOA	34
	2.1.1 Ebaluazioaren ondorioak	36
3.	EUSKADIKO GAZTEEN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA	38
	3.1. TESTUINGURU DEMOGRAFIKOA	39
	3.2. HEZKUNTZA	43
	3.3. ENPLEGUA ETA EKONOMIA-EGOERA	49
	3.4. EMANTZIPAZIOA ETA ETXEBIZITZA	61
	3.5. OSASUNA	65
	3.6. GIZARTE-EKINTZA ETA BERDINTASUNA	76
	3.7. BALIOAK ETA JARRERAK	79
	3.8. AISIA	84
	3.9. EUSKADIKO GAZTEEN EGOERAREN EZAUGARRI NAGUSIAK	91
4.	V. GAZTE PLANAREN ESPARRU ESTRATEGIKOA	93
	4.1. JARDUTEKO PRINTZPIOAK	94
	4.2. 2026KO V. GAZTE PLANAREN ARDATZ ESTRATEGIKOAK	95
	4.3. HELBURUAK ETA JARDUKETA-ILDOAK	96
5.	ARDATZAK, ARLOAK, HELBURUAK ETA JARDUKETA-ILDOAK	99
	5.1. 1. ARDATZA: EMANTZIPAZIOA: (BIZI)	100
	5.1.1 1. arloa: Enplegua.....	101
	5.1.2 2. arloa: Etxebizitza.....	103
	5.1.3 3. arloa: Errenta	104
	5.1.4 4. arloa: Kohesioa.....	105
	5.1.5 5. arloa: Erresilientzia	105
	5.2. 2. ARDATZA: GARAPENA (GOZATU)	107

5.2.1	6. arloa: Osasun integrala	108
5.2.2	7. arloa: Hezkuntza	110
5.2.3	8. arloa: Kultura eta Euskara.....	111
5.2.4	9. arloa: Aisia eta denbora librea.....	112
5.3.	3. ARDATZA: ERAGINA (ERALDATU)	114
5.3.1	10. arloa: Partaidetza.....	114
5.3.2	11. arloa: Berdintasuna	115
5.3.3	12. arloa: Aniztasuna.....	116
5.3.4	13. arloa: Bizikidetza	117
5.3.5	14. arloa: Klima-aldaketa	118
5.4.	4. ARDATZA: BEHAKETA ETA KOORDINAZIOA	119
5.4.1	15. arloa: Ezagutza eta lankidetzatza	119
6.	V. GAZTE PLANAREN GOBERNANTZA, EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA.....	121
6.1.	GOBERNANTZA.....	122
6.1.1	Planaren indarraldia	122
6.1.2	Sailen arteko kudeaketa- eta koordinazio-eredua	122
6.1.3	Eusko Jaurlaritzako sailak eta zuzendaritzak, V. Gazte Planeko ekintza garrantzitsuen arduradunak.....	124
6.1.4	Erakundeen arteko koordinazioa	125
6.2.	EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA.....	126
6.2.1	Jarraipen- eta ebaluazio-ixostenen zereginak eta egutegia	126
6.2.2	Eragin-adierazleak: 2022-2026ko V. Gazte Planaren Adierazleen Taula	127
7.	ERANSKINA: EUSKO JAURLARITZAREN V. GAZTE PLANAK GIHEI EGINDAKO EKARPENA. 2030 AGENDA KO XEDEKIN BAT ETORTZEA.....	131

Taulen aurkibidea

1.1 taula	EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana	25
1.2 taula	Euskararen Agenda Estrategikoa.....	28
2.1 taula	IV. Gazte Planeko helburuen betetze-mailaren laburpen-etaula	35
3.1 taula	Euskadiko gazteen egoera, 2022	91
6.1 taula	2022-2026ko V. Gazte Planaren adierazleen taula	128
6.2 taula	Adierazleen bilakaera-etaula	129

Grafikoen aurkibidea

3.1 grafikoa	15 eta 29 urte bitarteko biztanle gazteak, bost urtekako adin-taldean eta sexuaren arabera, 2021ean	39
3.2 grafikoa	Euskadiko gazteen indizearen bilakaera (15-29 urte)	40
3.3 grafikoa	Euskadin bizi diren 15 eta 29 urte bitarteko biztanle atzerritarren bilakaera	41
3.4 grafikoa	Ama lehen aldiz izateko batez besteko adinaren bilakaera Euskadin, nazionalitatearen arabera	42
3.5 grafikoa	18 eta 24 urte bitarteko gazteek eskola behar baino lehen uztearen tasaren bilakaera.....	43
3.6 grafikoa	30 eta 34 urte bitarteko gazteen goi-hezkuntzako graduazio-tasaren bilakaera.....	44
3.7 grafikoa	Zientzia eta teknologian graduatutako emakumeen ehunekoaren bilakaera, ezagutza-arlo horietan graduatutako 35 urtetik beherako pertsona guztiekiko.....	45
3.8 grafikoa	35 urtetik beherakoek euskal unibertsitateetan onetsitako tesi kopuruaren bilakaera.....	46
3.9 grafikoa	D hizkuntza eremuan matrikulatutako unibertsitateaz kanpoko ikasleen ehunekoaren bilakaera, ikasturtea hasteko urtearen arabera	47
3.10 grafikoa	15-29 urte bitarteko gazteen hirueletasunaren bilakaera	48
3.11 grafikoa	16 eta 29 urte bitarteko gazteen okupazio-tasaren bilakaera	49
3.12 grafikoa	Lanbide Heziketako promozioen okupazio-tasaren bilakaera ikasketak amaitu eta urtebetera	50
3.13 grafikoa	Euskal unibertsitateetako promozioen okupazio-tasaren bilakaera ikasketak amaitu eta hiru urtera	51
3.14 grafikoa	16 eta 29 urte bitarteko biztanleen langabezia-tasaren bilakaera.....	52
3.15 grafikoa	Iraupen luzeko langabezia-tasaren bilakaera 16 eta 29 urte bitarteko biztanleriaren eta 16 urte eta gehiagoko biztanleriaren artean	53
3.16 grafikoa	Euskadiko 16 eta 29 urte bitarteko soldatapeko gazteen eta 16 urteko eta hortik gorako soldatapeko biztanle guztien aldi-baterakotasun tasaren bilakaera.....	54
3.17 grafikoa	Lanaldi partzialeko enpleguaren bilakaera 16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuaren artean	55
3.18 grafikoa	Prestakuntzaren araberrako enpleguaren bilakaera lana okupazio nagusi duten 16 eta 29 urte bitarteko gazteen artean	56
3.19 grafikoa	18 eta 29 urte bitarteko soldatapeko gazteen batez besteko soldata garbiaren bilakaera.....	57

3.20 grafikoa	Norberaren konturako enpleguaren bilakaera 20 eta 29 urte bitartekoen artean, Euskadin eta EB-27n.....	58
3.21 grafikoa	16 eta 34 urte bitarteko gazte landunen lan-ezbeharren indizearen bilakaera sexuaren arabera.....	59
3.22 grafikoa	Pobrezia errealeko egoeran dauden 16 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren bilakaera	60
3.23 grafikoa	Batez besteko emantzipazio-adina Euskadin eta EB-27n 2021ean.....	61
3.24 grafikoa	18 eta 34 urte bitarteko biztanleen emantzipazio-tasa 2021ean	62
3.25 grafikoa	Etxebizitza librea jabetzan hartzearen kostua Euskadin 2021ean, sexuaren eta adin-taldearen arabera	63
3.26 grafikoa	Euskadin alokairuan bizi diren 18 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatuen ehunekoaren bilakaera.....	64
3.27 grafikoa	Osasun txarraren prebalentziaren bilakaera 15 eta 29 urte bitarteko gizon eta emakume gazteen artean	65
3.28 grafikoa	Antsietate- eta depresio-arazoaren prebalentziaren bilakaera 15-29 urte bitarteko gizon eta emakume gazteen artean.....	66
3.29 grafikoa	Jarduera fisiko osasungarria egin duten 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen ehunekoa 2018an.....	67
3.30 grafikoa	15 eta 29 urte bitarteko gazteen obesitate-tasaren bilakaera, eta tasa horren eta Euskadiko biztanleria osoaren tasaren arteko alderaketa.....	68
3.31 grafikoa	Galdeketaurreko hilabeteko egunen batean alkohol gehiegi edo modu arriskutsuan kontsumitu duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren bilakaera	69
3.32 grafikoa	15 eta 29 urte bitarteko ohiko erretzaileen ehunekoaren bilakaera.....	70
3.33 grafikoa	Egunero edo ia egunero kalamua erretzen duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren bilakaera	71
3.34 grafikoa	15 eta 29 urte bitarteko Euskadiko gazteak, norbaitek etengabe mezuak bidaltzen zizkiela, iruzkin desatseginak egiten zizkiela, iraintzen zuela, mehatxatzen zuela eta abar sentitu dutenak. 2021	72
3.35 grafikoa	Galdeketaurreko urtean sexu-harreman arriskutsuren bat izan duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren bilakaera. 2020.....	73
3.36 grafikoa	Euskadiko 15 eta 17 urte bitarteko nesken nerabegaroko haurdunaldien tasaren bilakaera.....	74
3.37 grafikoa	Nork bere buruaz beste egiteagatiko edo trafiko istripuengatiko heriotzen tasaren bilakaera 15 eta 29 urte bitarteko Euskadiko gazteen artean	75
3.38 grafikoa	Emakumeen aurkako indarkeriaren tasaren bilakaera 15-29 urteko eta 30 urteko eta gehiagoko emakumeen artean	76
3.39 grafikoa	Lana lortzeko diskriminazio-sentsazioaren bilakaera 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen artean.....	77
3.40 grafikoa	Kalean gabez bakarrik ibiltzeko beldurra dutela dioten 15-29 urteko emakume eta gizonen ehunekoaren bilakaera	78
3.41 grafikoa	15 eta 29 urte bitarteko gazteen asoziazionismo-tasaren bilakaera	79
3.42 grafikoa	15 eta 29 urte bitarteko gazteen politikarekiko interesaren bilakaera	80
3.43 grafikoa	15 eta 29 urte bitarteko gazteek gai publikoetan parte-hartze aktiboagoa izateko duten nahiaren bilakaera	81
3.44 grafikoa	15 eta 29 urte bitarteko gazteen kontsumo jasangarriaren indizearen bilakaera.....	82
3.45 grafikoa	Egunero edo ia egunero garraio publiko kolektiboan eta bizikletan mugitzen diren 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren bilakaera	83

3.46 grafikoa	Azken urtean jarduera artistikoak egin dituzten Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren bilakaera	84
3.47 grafikoa	Hiru sare sozial edo gehiago egunero erabiltzen duen 15 eta 29 urte bitarteko gazteen bilakaera.....	85
3.48 grafikoa	15 eta 29 urte bitarteko gazteen jarduera fisiko erregularraren bilakaera.....	86
3.49 grafikoa	15 eta 29 urte bitarteko gazteen irakurtzeko ohituraren bilakaera.....	87
3.50 grafikoa	15 eta 29 urte bitarteko gazteen irakurtzeko ohituraren bilakaera.....	88
3.51 grafikoa	15 eta 29 urte bitarteko gazteek euskaraz irakurtzeko ohituraren bilakaera	89
3.52 grafikoa	16 eta 24 urte bitarteko gazte euskaldunen euskararen lagunarteko erabileraren bilakaera	90



1.

SARRERA

HITZAURREA

V. Gazte Plana Gazteriari buruzko 2/2022 Legea, martxoaren 10ekoa, onartu ondoren egiten den lehena da. Lege horren hiru ardatz nagusiak honako hauek dira: gazte-sistema eta -zerbitzuak finkatzea, gazteen parte-hartzea sustatzea eta emantzipazio-prozesuak bultzatzea, batez besteko emantzipazio adina aurreratzean lan eginez, 2030eko hamarkadan 28 urtekoa izan dadin.

Gainera, kontuan izan behar da ekainaren 21ean Gobernu Kontseiluak Erronka Demografikorako 2030erako Euskal Estrategia onartu zuela. Estrategia horren lehen ardatza "Gazteen Emantzipazioa" da.

Osagarri gisa, 2022ko irailaren 22an, Lehendakariak Politika Orokorreko Osoko Bilkuran iragarri zuen Gazteria Zuzendaritza, ordura arte Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren barruan zegoena, Lehendakaritzaren egiturari atxikita geratuko zela, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiaren barruan. Berregituraketa horren helburua gazte-politiken, emantzipazioaren eta demografia-erronkaren sailen arteko eta erakundeen arteko koordinazioa sustatzea da, zeharkako ikuspegiarekin.

Ondoren, 2023ko martxoaren 21ean, Gobernu Kontseiluak Gazteen Emantzipazioa laguntzeko 2030erako Euskal Estrategia onartu zuen, Gobernu Programaren 92. konpromisoari erantzuna emanez. Emantzipatzeko batez besteko adina aurreratzea lotuta dago gazteen aukerekin, euskal gizartea gaztetzearekin eta belaunaldi arteko eta belaunaldi barruko kohesioarekin, eta herrialde-helburua eta lehen mailako lehentasuna da Eusko Jaurlaritzarentzat.

Estrategiaren helburua da 2030erako gazteen emantzipazio-tasa % 50era hurbiltzen laguntzea, eta maila horretan kokatzen da EB-27ko batez bestekoa (% 50,6). Emantzipatzeko batez besteko adinari dagokionez, helburua 28 urtetik beherakoa izatea da.

Estrategia horren irizpide nagusia da jada ezarritako politikak integratzea, trinkotzea eta optimizatzea, neurri eta jarduera berrieekin batera, helburuen esparru berean. Azken batean, jarduteko sistema sinergiko bat konfiguratzea.

Bestalde, 2023ko maiatzean amaitu da Aisialdiko Hezkuntza sustatzeko 2030erako Euskal Estrategia. Astialdi Sareak eta Astialdi Foroak osatutako Hezkuntzako Denbora Librea Koordinatzeko Mahaiak egindako lan honen helburu nagusia aisialdi eta denbora libre hezigarria sustatzea da, bizitzaz eta bizitzatik ikasteko gune garrantzitsu gisa. Azken urtean egindako jarduera horiek agerian uzten dute gazte-politikek eta, bereziki, gazteen emantzipazioa bultzatzera bideratutakoek berretsi dutela Eusko Jaurlaritzarentzat lehentasun estrategikoa direla.

Eta lehentasunezko izaera hori V. Gazte Planean jasotako jardueretan ere zehazten da. Plan hori Gazteen Legeak ezarritako esparru orokorraren arabera egituratzen da: emantzipazioa (bizi), garapena (gozatu) eta eragina (eraldatu).

Azken batean, V. Gazte Planak Eusko Jaurlaritzak gazte-politika integrala garatzeko eta gazteen emantzipazioa bultzatzeko hartutako konpromisoari erantzuten dio.

1.1. AURREKARIAK ETA TESTUINGURUA

1.1.1 2/2022 Legea, martxoaren 10ekoa, Gazteriarena eta Gazte Plana

Martxoaren 10eko 2/2022 Legeak, Gazteriari buruzkoak, trantsizioko gazte-politikak beharrezkoak direla ezartzen du, gizarte-eraldaketa sakonei eta, bereziki, trantsizio sozialari eta demografikoari egoki erantzuteko.

Horretarako, Legeak Gazteriaren Sistema antolatzea eta indartzea proposatzen du, etengabeko arreta eskaintzen duen zerbitzu-sare gisa, gazteentzako jarduerak, zerbitzu eta ekipamendu sektorialak bultzatuz (gazteentzako informazio-zerbitzuak, aisialdiko eta hezkuntza ez-formaleko jarduerak, Gazteentzako Ekipamenduen Sarea, mugikortasun- eta truke-programak, etab.). **Legea, beraz, Gazte Planaren nahitaezko erreferentzia** da, eta honela dio: *"gazte-planak tresna kontsolidatuak dira zeharkako gazte-politika bultzatzeko"*.

Gazteriaren Euskal Legearen xedea da arau- eta eskumen-esparrua antolatzea, gazte-politika garatzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko gazte guztien eskubideak aitortzeko.

Lege honek hiru ardatz ditu:

- Gazteen heltze- eta garatze-prozesuak laguntzea (gazte-sustapena: Gazteriaren Sistema definitzea eta indartzea).
- Haien emantzipazioa eta helduarorako igarotze-prozesua sustatzea (gazteen emantzipazioa).
- Haien partaidetza soziala erraztea esparru guztietan (gazteen partaidetza).

Legeak, 49. artikuluan, **Gazteriaren Sailarteko Batzordea** sortzen du, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak gazteriaren arloan egiten dituen jardunak garatzen direla eta eraginkortasunez aplikatzen direla bermatuko duen koordinazio-organo gisa, bai eta jardun horien sustapen-organo gisa ere. Gazteriaren Sailarteko Batzordeak, besteak beste, eginkizun hau izango du: *"Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren legegintzaldiko **gazte-planean** jasota dauden ekintzen programazioa, jarraipena eta ebaluazioa egitea"*.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Gazteriaren Sailarteko Batzordea gutxienez arlo hauetako sailburuorde eskudunez osatuta egongo da, edo haiek eskuordetzen dituzten zuzendari maila edo goragokoa duten pertsonen: gazteria; enplegua; lana; gizarte-ekonomia; etxebizitza, hezkuntza; lanbide-heziketa; unibertsitateak; ikerketa; gizarte-politikak; osasuna; justizia; segurtasuna; industria; teknologia; nekazaritza; arrantza; garraioak; kultura; hizkuntza-politika; kirola; aisialdia; turismoa; kontsumoa; elikadura; klima; ingurumena; landa-ingurunea; kostaldeko ingurunea; giza eskubideak; berdintasuna; immigrazioa; boluntariora; partaidetza; lankidetzak, eta kanpo-ekintza.

Bestalde, Legeak 19. artikuluan dioenez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak onartuko du **Gazteriaren arloko Euskal Estrategia**, non bilduko baitira, koordinatuta eta globalki, EAEko administrazio publikoek gazteriaren arloan garatu behar duten jarduerak gidatuko duten esku-

hartze ildoak eta gidalerroak, izaera orokorrekoak eta administrazio bakoitzaren eskumen-esparrua errespetatuko dutenak. Gero, Eusko Legebiltzarrari emango dio horren berri, bai eta strategiaren ebaluazioaren edo betetze-mailaren berri ere, urteko memoria bidalita.

Estrategia honen esku-hartze ildoak Gazteriaren Euskal Legearen 20. artikuluan zehaztuta daude.

Gazteriaren arloko Euskal Estrategia egin ondoren, V. Gazte Plana estrategia horrekin bat datorren eta koherentea den egiaztatu beharko da, eta, hala badagokio, beharrezko doikuntzak eta egokitzapenak egingo dira.

1.2. BESTE PLAN, LEGE ETA ESTRATEGIA BATZUEKIN BAT EGITEA ETA SINERGIAK

1.2.1 2020-2024 Gobernu Programa (XII. Legegintzaldia)

2020-2024 Gobernu Programak, "Euskadi martxan" lelopean, euskal ekonomia suspertzeko eta enplegua –baita gazteen enplegua ere– berreskuratzeko neurriak ezartzen ditu, pandemiak eta Errusiak Ukraina inbaditu izanak eragindako krisi ekonomiko eta sozialen ondoren. Programak 4 ardatz estrategiko eta oinarritzko printzipio bat ditu: *inor atzean ez uztea*.

Gobernu Programaren bigarren ardatzean, pertsoneri buruzkoan, gazteentzako jardura-eremu bat dago (12.5). Bertan, enpleguan eta etxebizitzan jartzen da arreta, gazte-politika planteatzeko orduan lehentasunezkoztat jotzen diren bi jardura-ardatzak, horiek baitira gazteen oztopo nagusiak bizitza-proiektu independente bat garatu ahal izateko.

Gazteriaren arloan ezarritako programa-konpromisoen artean zegoen **91. konpromisoa: Gazteria-politika integrala garatzea**. Konpromiso horren barruan sartzen da 1. ekinbidea: **Gazteriaren Legea** onestea. Ekinbide hori dagoeneko gauzatu da martxoaren 10eko 2/2022 Legearen onarpenarekin.

92. konpromisoa: Gazteen emantzipaziorako estrategia XII. Legegintzaldiko Gobernu Programan sartutako beste konpromiso bat da. Konpromiso horren barruan sartzen da 1. ekinbidea: Gazteen emantzipaziorako zeharkako estrategia bat zehaztea, sustatzea eta koordinatzea. Estrategia hori sail arduradunekin elkarlanean gauzatu da eta bere funtsezko oinarriak Gazteen Enplegurako Plana eta Gazte-etxebizitzako neurri bideratzaileak garatzea. Gazteen emantzipazioa bultzatzeko 2030erako Euskal Estrategia 2022ko abenduan aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzak.

Aipatzekoa da, halaber, **38. konpromisoa: Berariazko etxebizitzarako sarbide-ekintzak gazteentzat**. Honako ekinbide hauek biltzen ditu:

- 1. ekinbidea. Gazte-etxebizitzako programa berezi bat garatzea, familia-etxebizitzatik emantzipatzea errazteko eta bizitza-proiektu independenteak erabat garatu ahal izateko.
- 2. ekinbidea. Alokairu-arabideko babeseko etxebizitzaren lehentasunezko erreserba bat ezartzea gazteen kolektiboarentzat.
- 3. ekinbidea. Gaztelagun Programa indartzea, horretan sartzeko betekizunak malgutuz.
- 4. ekinbidea. Gazteek etxebizitza bat lortu ahal izateko aukera berritzaileak abiaraztea, besteak beste, hauek: *cohousing*, erosteko aukera ematen duten alokairuak eta partekatutako pisuen programak.
- 5. ekinbidea. Zuzkidura-bizitokiak gazteen kolektibora bideratzea eta proiektu pilotuak garatzea erabilera-lagapeneko kooperatibak bezalako gazte-etxebizitzak errazteko, herrialde nordikoen esperientziak kontuan hartuz.

Gazteriarentzat soilik diren konpromiso horiez gain, XII. Legegintzaldiko Gobernu Programak beste konpromiso batzuk ere jasotzen ditu, eta horietan gazteen kolektiboa ere azaltzen da xede-biztanleriatzat. Konpromiso horiek honako hauek dira dagozkien ekinbideekin:

2. konpromisoa, 4. ekinbidea: "Enplegu eta susperraldi ekonomikoko esparru-programan" txertatutako Gazteen Enplegurako Txoke-plan bat onestea eta abian jartzea, 30.000 gazteri lehenengo lan-esperientzia bat eskaintzeko. Hauek izango dira plan horren jarduketa-ardatzak:

- gazteen enplegurako prestakuntza duala;
- hezkuntza-mundutik lanerako trantsizioa;
- prestakuntza-bekak eta esperientzia profesionala kontratazio-konpromisoarekin;
- gazteen laneraterako eta enplegurako berariazko programak;
- ekintzailetzaren garapena;
- gazteen autoenplegua eta *start-up*ak;
- tokiko zein eskualdeko enplegu-planak;
- enplegu publikoko eskaintzak eta gazteen kolektiboan bereziki enplegu-prekarietatea murrizteko programak.

7. konpromisoa, 1. ekinbidea: 140 milioi euro bideratzea tokiko zein eskualdeko enplegu-planetara, zailtasunak dituzten kolektiboen gizarteratzea hobetzeko (besteak beste, gazteak).

29. konpromisoa, 7. ekinbidea: Landa-eremuan, enpleguaren sorkuntza eta aukera-berdintasuna sustatzea.

37. konpromisoa, 10. ekinbidea: Hobetzea etxebizitzak esleitzeko prozedurak eta horietarako sarbide-eskakizunak, gizarte-profil desberdineko kolektiboen etxebizitzarako sarbidea errazte aldera, gazteei, besteak beste.

39. konpromisoa, 3. ekinbidea: Hutsik dauden etxebizitzak birgaitzeko programak sustatzea, arreta berezia jarritz gazteen enpleguaren sorkuntzan, beste kolektibo batzuen artean.

39. konpromisoa, 7. ekinbidea: Lanbide-heziketa dualaren bidez, prestakuntzako lankidetzaplanak abiaraztea, hutsik dauden etxebizitzak birgaitzeko eta gazteentzako enplegua sortzeko.

46. konpromisoa, 6. ekinbidea: Belaunaldi-erreleboa eta enpresa-jarraitutasuna sustatzea. Sektorearen atrakzioa eta berritzea indartzea, gazteak kontratatuzko laguntzak emanez.

77. konpromisoa, 1. ekinbidea: Etxerik gabeko pertsonekin, energia-txirotasunarekin eta bereziki ahulak diren pertsonen, gazteak kasu, eragiten dizkieten bestelako egoera batzuekin lotutako prebentzio- eta kudeaketa-jarduketak indartzea.

81. konpromisoa, 3. ekinbidea: Proiektu pilotuak garatzea, egokitzapen digitala edo gazteekiko belaunaldi arteko ekintzak bezalako eremuetan zahartze aktiboa sustatzeko.

81. konpromisoa, 9. ekinbidea: Adinekoen eta gazteen belaunaldi arteko harremana eta solidaritatea indartzen laguntzen duten programak eta jarduerak sustatzea.

90. konpromisoa, 2. ekinbidea: Zaurgarritasun-egoeran dauden adingabe eta gazte migratzaileak gizarteratzea eta laneratzea sustatzea.

94. konpromisoa, 5. ekinbidea: STEAM bokazioak (zientzia, teknologia, ingeniariak eta matematikak) indartzea hezkuntzaren eremuko emakume gazteen artean, horrela enpleguaren kalitatea areagotzeko.

103. konpromisoa, 10. ekinbidea: Gazteentzako hezkuntza-bisitak antolatzea gerrak edo indarkeriako bestelako esperientzia traumatikoek markatutako Europako hirietara.

1.2.2 Euskadiko 2030 Agenda

Euskadiko 2030 Agendak bultzada berri bat eman nahi dio Garapen Iraunkorreko 17 Helburuak lortzeko konpromisoari. Helburu horiek gizateriarentzat eta planetarentzat garrantzi kritikoa duten bost arlo jorratzen dituzte, eginkizun argi batekin eta inor atzean geratuko ez dela hitzemanda. Gazteriaren eremuan, zehazki, Agendak honako helburu hauek ezartzen ditu:

- 2. helburua: Gosea amaitzea, elikagai-segurtasuna eta elikadura hobea lortzea, eta nekazaritza jasangarria bultzatzea. 5. helmuga: Gaztenek 2020 Plana Nekazari Gazteentzat.
- 3. helburua: Guztiontzat eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea. 19. helmuga: Adikzioak prebenitzea eta tratatzea, gazteei zuzendutako ekimenak indartuz.
- 8. helburua: Guztiontzako hazkunde ekonomiko jarraitua, inklusiboa eta jasangarria, osoko enplegu produktiboa eta lan duina sustatzea; 42. helmuga: Gazteen laneratzea bultzatzea eta ekintzailetzaren alde egitea.
- 17. helburua: Garapen Jasangarrirako Munduko Aliantza inplementatzeko eta biziberritzeko tresnak sendotzea: Euskadiko Gazteak Lankidetzan programan parte hartzen duten gazteak.

Hala ere, Plan honen xede den kolektiboari eta, ondorioz, hedatu beharreko jardun-eremuei ere eragiten diete honako Helburu hauek:

- 1. helburua: Pobreziari bere forma guztietan amaiera ematea.
- 4. helburua: Kalitatezko hezkuntza inklusiboa eta ekitatiboa bermatzea, eta pertsona guztientzako etengabeko ikaskuntzarako aukerak sustatzea.
- 5. helburua: Genero-berdintasuna lortzea eta emakume eta neska guztiak ahalduntzea.
- 10. helburua: Desberdintasunak murriztea.
- 11. helburua: Hiriak eta giza kokalekuak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta iraunkorrak izatea.

- 12. helburua: Kontsumo eta ekoizpen iraunkorreko modalitateak bermatzea.
- 13. helburua: Klima-aldaketari eta haren ondorioei aurre egiteko premiazko neurriak hartzea.
- 16. helburua: Garapen iraunkorrerako gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea, pertsona guztiei justiziarako sarbidea erraztea eta maila guztietan erakunde eraginkorrak eta inklusiboak eraikitzea, kontuak emateko.

1.2.3 Erronka Demografikorako 2030erako Euskal Estrategia

Eusko Jaurlaritzaren XII. Legegintzaldiko Gobernu Programaren arabera, erronka demografikoa hamar herri-helburuetako bat da. Bere konpromiso espezifikoaren artean, 2030erako Euskal Estrategia idaztea eta bultzatzea aurreikusten du arlo horretan. Estrategia hori 2022ko ekainean onartu zen.

Estrategia familia-egituren, familia-bizitzako ibilbideen eta familia barruko harremanen aldaketa-prozesu sakona onartzean oinarritzen da, eta familia-egitura guztiek babes sozial maila bera izatea bilatzen du. Azken batean, familia-aniztasuna, tratu-berdintasuna eta pertsonen eta familien diskriminaziorik eza aitortu eta babestu behar dute.

Gazteek beren bizi-proiektua gauzatzeko dituzten zailtasunak defizit handiaren adierazle dira, eta, beraz, emantzipaziorako baldintza mesedegarriak sustatzea estrategia horren ardatz nagusia da erronka demografikoari lotutako gazte-politikei dagokienez. Hala, aukerarik ezak emantzipazioan izan dezakeen atzerapenean eragin nahi da.

Estrategiak ikuspegi integrala eta progresiboa proiektatzen du, 2030 Agendaren Garapen Iraunkorreko Helburuekin bat datorrena, eta horrek honako politika hauek eskatzen ditu: etxebizitza, enplegua, hezkuntza, gizarte- eta osasun-politikak, migrazioa eta gizarte-prestazioak, laguntzak edo gaitasunak garatzeko laguntza, bai eta hiri- eta landa-dimentsio bikoitza ere, epe labur eta ertaineko ekimenekin eta lau sektore hauen lankidetzarekin: publikoa, enpresa, hirugarren sektorea eta familia, sare komunitarioekin batera.

Erronka Demografikorako 2030erako Euskal Estrategiak 36 ekimen osagarri biltzen ditu helburu berarekin: neurri eta baldintza egokien ekosistema bat eratzea, demografia leheneratzeko.

Jarduera Plana jarraian azaltzen diren hiru atal handietan egituratzen da.

1. Lehen atala. Jarduera berriak bultzatzea, epe laburrerako eragin-irizpidearekin.

- Helburuak
 - Datozen urteetan joera negatiboan aldaketa eragitea, bai emantzipatzeko adinean, bai jaiotza-tasetan, epe ertainean beherakada demografikoko agertokitik errekonferazio demografikoko agertokira igarotzea errazteko. Horren ondorioz, lehenik eta behin joera-aldaketa lortu behar da, epe laburrean. Bigarrena, helburu hori lortzera bideratutako jarduerak ibilbide luzean ere iraunkorrak eta jasangarriak izango direla ziurtatzea da.

Lehen atal horren barruan lau jarduera berri jasotzen dira, eta bigarrena nabarmendu behar da: gazteen ekintzailletza-, prestakuntza- edo etxebizitza-proiektuetarako interesik gabeko mailegu-programa.

2. Bigarren atala. Ibilbide luzeko inaktu-irizpidearekin abian dauden jarduerak indartzea.

I. ardatza, jarduera estrategikoa: **Gazteen emantzipazioa.**

- 2030erako helburuak
 - Euskadiko gazteen emantzipazio-adina 28 urtetik beherakoa izatea.
- Legegintzaldiko helburuak
 - Emantzipazio-adina atzeratzeko joera indargabetzea, beste arrazoi batzuen artean eta oraindik zehazteke dagoen intentsitatearekin, COVID-19aren krisiaren inpaktua indartzen ari dena, eta emantzipatzeko batez besteko adina murriztea, 30,2 urtetik 29 urtera pasatuta.
 - Estrategia aktibo eta ezagun bat hedatzea politika eta neurri espezifiko argiekin, gazteei emantzipatzen eta enplegua eta etxebizitza lortzen laguntzeko.

II. ardatza, jarduera estrategikoa: **Familia-proiektuak eraikitzea.**

- 2030erako helburuak
 - Helburu nagusia, haur-pobrezia prebenitzeaz gain, familia bakoitzak nahi adina seme-alaba izan ditzan ahalbidetzea da, bai eta lehenengo amatasuna atzeratzea ez behartzea ere, baldintzarik ez dagoelako, eta, horren ondorioz, bizitza-proiektu pertsonaletarako eta familia-proiektuetarako aukerak sortzea, familia-ereduen aniztasunetik abiatuta.
 - Jaiotza-tasa % 15 handitzea eta ardurapean seme-alabak dituzten familien pobrezia-tasa % 20 murriztea.
- Legegintzaldiko helburuak
 - Estrategia aktiboa eta ezaguna izatea, ardatz eta laguntza argiak dituen, familiak eraikitzen laguntzeko.
 - Joera-aldaketa sustatzea, bai jaiotza-tasan, bai lehen amatasunaren atzerapen gero eta handiagoan, Covid inpaktuak eraginda.

III. ardatza, jarduera estrategikoa: **Adinekoen bizitza autonomia eta osoa sustatzea.**

- Ardatz horren atzean dauden helburuak, funtsean, hiru eremu handitan oinarritzen dira: 1) zahartze aktiboa eta osasungarria bultzatzea eta adinekoen autonomia pertsonala, parte-hartze soziala eta bizitza osoa sustatzea, 2) bizi-itxaropen osasungarria edo desgaitasunik gabekoa handitzea eta 3) arreta soziosanitarioko eredu integral berri bat sustatzea.

IV. ardatza, jarduera estrategikoa: **Migranteen gizarteratzea.**

- 2030erako helburuak

- Gizarteratzeko eta Integratzeko Euskal Indize sintetikoaren oinarritzko zazpi dimentsioak % 10 handitzea, migratzaileak Euskadin integratzeari dagokionez, inoren kargura ez dauden adingabeak izateari uzten dioten gazte migratzaileak barne.
- Legegintzaldiko helburuak
 - Migrazio-arloko eginkizunak eta zerbitzuak transferitzea, euskal administrazioak bere gain hartu ahal izan dezan lan-baimenen eta Euskadiren eskumen-tituluetan sar daitezkeen jarduera guztien kudeaketa.
 - Migratzaileak iristeko zailtasunak ahal den neurrian murriztea eta harrerako euskal eredia definitzea eta bultzatzea.
 - Migratzaileen prestakuntza-, gaikuntza-, kualifikazio-, homologazio- eta profesionaltasun-ziurtagirako ibilbideak definitzea, bai eta gizarteratze- eta laneratze-ibilbide erabilgarriak eta eskuragarriak ere.

3. Hirugarren atala. Zeharkako jarduera-ildoak.

Ardatz horrek, era berean, hiru jarduera-ildo nagusi biltzen ditu:

- 1. ildoak, zeharkako jarduera: Landa-balioa handitzea
 - Bi helburu nagusi lantzen dira: 1) landa-ingurunea zahartzeko eta despopulatzeko joera epe laburrean geldiaraztea eta 2030erako lehengoraztea, natura-ingurunearen edo populazio txikien berezko jardura sozioekonomikoak proiektu erakargarri, bideragarri eta jasangarriak izan daitezzen lagunduz eta 2) landa-biztanleriaren hazkundera sustatzea.
- 2. ildoak, zeharkako jarduera: Prospekzioa, dibulgazioa eta komunikazioa
 - Lortu nahi da: 1) erronka demografikoari buruzko hausnarketa-, dibulgazio- eta proposamen-ekimenak elkartzea ahalbidetuko duen dinamika sendotzea, 2) prospekzio-tresnak artikulatzea, modu erregularrean eta jarraituan diagnostiko sakonak egin ahal izateko, bai emantzipazio berantiarrean edo jaiotza-tasan eragina duten faktoreei buruz, eta 3) kontzientzia sozial eraikitzailea sendotzea problematika demografikoari dagokionez, eta sinergia eta auzolanaren pentsaera bultzatzea.
- 3. ildoak, zeharkako jarduera: Aurrekontua, jarraipena eta ebaluazioa
 - Lortu nahi da: 1) Demografiaren erronkari heltzeko prozesu metodologiko bat sendotzea, datuetan, ekintza-hausnarketa-ekintzan eta neurrien zuzenketan eta doikuntzan oinarrituta, estrategia kudeatzeko aginte-taula integral, simple eta garrantzitsu baten adierazleetatik abiatuta, helburu eta faktore giltzarriak lotuta, eta 2) estrategiari dagozkion ebaluazio-prozesuak garatzea (tartekoa eta amaierakoa).

1.2.4 Gazteriaren arloko Euskal Estrategiaren ildo orientatzaileak

Gazteriaren Euskal Legearen 19. artikulua Gazteriaren arloko Euskal Estrategiari buruz honakoa ezartzen du:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak onartuko du Gazteriaren arloko Euskal Estrategia, non bilduko baitira, koordinatuta eta globalki, EAEko administrazio publikoek gazteriaren arloan garatu behar duten jarduera gidatuko duten esku-hartze ildoak eta gidalerroak, izaera orokorrekoak eta administrazio bakoitzaren eskumen-esparrua errespetatuko dutenak. Gero, Eusko Legebiltzarrari emango dio horren berri, bai eta strategiaren ebaluazioaren edo betetze-mailaren berri ere, urteko memoria bidalita.
- Gazteriaren arloko Euskal Estrategia prestatzeko lanetan, udalerriek, aldundiek eta gazteek parte hartuko dute, koordinatuta, eta Erakundearteko Koordinazio Organoak eta Consejo de la Juventud de Euskadi-Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak txostena egingo dute.
- Gazteriaren arloko Euskal Estrategiak gazteen emantzipazioa eta autonomia bultzatuko duten neurri eta helburu zehatz batzuk izango ditu, bat etorriko direnak hurrengo artikuluan jasota dauden esku-hartze ildoekin, EAEko gazteen batez besteko emantzipazio-adina modu progresiboan murriztu eta haien igurikimenera egokitzeko.
- Gazteriaren arloko Euskal Estrategiak genero-ikuspegia eta ikuspegi intersektionala txertatuko ditu hura diseinatzean, hedatzean eta ebaluatzean, eta gaitu egingo ditu eragileak xede horretarako.
- Gazteriaren arloko Euskal Estrategiak beharrezko baliabideak eta aurrekontuak izango ditu bere diseinua, gauzatzea, ebaluazioa eta jarraipena egiteko eta bermatzeko.

Bestalde, 20. artikulua Gazteriaren arloko Euskal Estrategiaren esku-hartze ildoak definitzen ditu, eta gazteen gaitasunak, ekimena, autonomia eta emantzipazioa sustatzera bideratzen da, aniztasuna aintzat hartuta, betiere honako hauei arreta eskainiz:

- Hezkuntza formala eta ez-formala, arreta berezia emanda autonomiarako balioei eta gaitasunei.
- Partaidetza soziala.
- Enplegua, etxebizitza eta babes soziala.
- Berdintasuna, kohesio soziala, aniztasuna eta elkarbizitza.

Gazteriaren arloko Euskal Estrategiak lehentasuna emango die eskari eta premien bilakaerari ondoen erantzuten dieten esku-hartze ildoei, honako ildo hauen eta dagokion aldi egindako diagnostikotik eratorritako beste batzuen artean.

Gazteen Legeak ezarritako esku-hartze ildoak

- a) Enplegua
- b) Hezkuntza
- c) Etxebizitza

- d) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna
- e) Sexu- eta genero-aniztasuna
- f) Gizarte-zerbitzuak
- g) Kultura
- h) Kirola
- i) Aisialdia eta denbora librea
- j) Osasuna eta prebentzioa
- k) Ingurumena eta ekologia
- l) Kontsumoa
- m) Informazioaren gizarte
- n) Boluntariora
- o) Landa-ingurunea eta kostaldeko ingurunea
- p) Mugikortasuna
- q) Mugikortasuna eta garraio publikoa
- r) Elkarbizitza
- s) Autonomia eta erantzunkidetasuna
- t) Atzerrian dauden gazte euskaldunak
- u) Sexualitateentzako arreta integrala
- v) Komunitatearekiko errotzea
- w) Gazteriaren Sistemarako irispidea
- x) Euskara
- y) Gazte migratzaileak

1.2.5 Gazteen emantzipazioa laguntzeko 2030erako Euskal Estrategia

Gazteen emantzipazioa laguntzeko 2030erako Euskal Estrategia 2023ko martxoaren 21 ean onartu zen. Estrategia hori lantzeko aurretiazko prozesuak hainbat partaidetza-prozesu izan zituen gazteekin, bai eta hainbat kontraste-prozesu EGKrekin (Euskadiko Gazteriaren Kontseilua). 2022ko abenduaren 7an Gobernu Kontseiluan aurkeztu zen hasierako proposamen gisa. Une horretatik aurrera, otsailaren 7ra arteko epea ireki zen herritarren, erakundeen eta gazteen elkarleen ekarpenak jasotzeko. 2023ko otsailaren 22an, Eusko Jaurlaritzak agerraldia egin zuen Eusko Legebiltzarreko Gizarte Politika eta Gazteria Batzordean, edukia aurkezteko. Estrategia aurkeztu (2022ko abenduak 7) eta behin betiko onartu arte (2023ko martxoak 21) igarotako hiru hilabete eta erdian zehar estrategiaren edukiak berrikusteko eta parte hartzeko prozesuari esker, ekarpen ugari egin ziren, edukia hobetu zutenak, eta datuak eta aurreikuspenak eguneratu ziren.

a) **Misioa**

Estrategia horren helburua da batez besteko adina hezte eta emantzipazio-tasak handitzea, jatorrizko etxetik irteko prozesuak sostengatuz, bizkortuz eta hauei eusten lagunduz.

b) Helburuak

Estrategia hori ebaluatzeko, hiru helburu nabarmentzen dira:

- 18-34 urte bitarteko gazteen emantzipazio-adina 29 urte inguruan kokatzea 2025ean; eta 28 urte inguruan, 2030eko hamarkadan.
- Gazteen emantzipazio-tasak handitzea, % 50 eta % 75 inguruan kokatuz pixkanaka 25- 29 eta 30-34 urte bitarteko adin-tarteetan.
- Helburu horri laguntzeko politikak emaitza onenak dituzten herrialdeen mailan kokatzea.

c) Jomugak

Lehenengo etapan, 2030 Estrategia honi dagokiona, asmoa da 25-29 eta 30-34 urte bitarteko pertsonak, batez ere lan-esperientzia dutenean eta/edo emantzipazio-prozesuari ekin diotenean:

- Enplegurako sarbidea eta diru-sarrerak hobetzea. Ebaluazioaren ondorioetarako, hileko batez besteko soldata garbia hobetzea eta hilean 600 euro baino gehiago dituztenen tasa handitzea dakar.
- Etxebizitza eskuratzeko gaitasuna hobetzea, bai parke publikoan, bai merkatu pribatuan, eta, bereziki, alokairu-erregimenean.
- Jatorrizko etxetik irteteko prestazioak, laguntzak eta/edo maileguak eskuratzeko, eta era askotako diru-sarreraren eta bizitza-proiektu autonomo bati eusteko behar den gastuaren arteko ratioa hobetzea.
- Zaurgarritasun-egoeran dauden gazteek, bereziki, ekintza positiboko neurriak hartzea.
- Emantzipazio-ibilbideetarako informazio eta orientazio pertsonalizatua izatea.

d) Jarduera-plana

1. ardatza: Enplegua (eta enplegurako prestakuntza)

- I. trakzio-proiektua. Gazte Enplegurako Talka Plana (Berpiztu Programa): 13.500 lanpostu sortzea 2023-2024 aldian.
- II. trakzio-proiektua. Gazteen enpleguaren aldeko akordioa bultzatzea Elkarriketa Sozialaren Mahaian.
- Jarduketa konektatuak eta/edo osagarriak enplegu arloan.

2. ardatza: Etxebizitza

- III. trakzio-proiektua. Emantzipazioa Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialesan sartzeko, etxebizitza-sustapen publikoetan gazteentzako kupoa handitzea eta jarduera berritzaileak bultzatzea.
- IV. trakzio-proiektua. Gaztelagun programa: laguntzaren zenbatekoa handitzea, Programa urtero eguneratzea eta sartzeko baldintzak hobetzea.
- Jarduketa konektatuak eta/edo osagarriak etxebizitza arloan.

3. ardatza: Errenta

- V. trakzio-proiektua. 25 eta 29 urte bitarteko gazteen emantzipaziorako laguntza ekonomikoen Emantzipa Programa abian jartzea.
- VI. trakzio-proiektua. Ekintzailtza-, prestakuntza- edo etxebizitza-proiektuetarako mailegu-programa garatzea.
- Jarduketa konektatuak eta/edo osagarriak errenta arloan.

4. ardatza: Kohesioa

- VII. trakzio-proiektua. Trapezistak programa garatzea, 25 urtera arteko familia-laguntzako sarerik gabeko gazteei laguntzeko.
- VIII. trakzio-proiektua. Zaurgarritasun-egoeran dauden gazteei (18 urtetik gorakoei) laguntzeko neurriak garatzea.
- Jarduketa konektatuak eta/edo osagarriak kohesioaren arloan.

5. ardatza: Erresilientzia

- IX. trakzio-proiektua. Aholkularitza eta laguntza pertsonalizatuko zerbitzua, autonomia-ibilbideak eta emantzipazio-kultura berria bultzatzeko GAZ Zerbitzua sortzea; bai eta Ameslariak Programa garatzea ere.
- X. trakzio-proiektua. Basque Deal for Youth (Herri-ituna gazteekin eta gazteen alde).
- Jarduketa konektatuak eta/edo osagarriak erresilientziaren eremuan.

1.2.6 1/2022 Legea, martxoaren 3koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egitekoa

Gazte Planak 1/2022 Legearen, martxoaren 3koa, aginduak bete behar ditu. Lege horrek Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, aldatzen du, eta hemendik aurrera Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna lortzeko eta Emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legea izango da. Hala, 23. artikuluan jasotako gaien arabera, Gazte Planak honako hauek egin behar ditu:

1. Genero-ikuspegia sartu, eta neurriak txertatu berdintasuna sustatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeriak ezabatzeko, bereziki kontuan hartuta diskriminazio-egoerak eragin ditzaketen beste faktore batzuk biltzen dituzten emakumeen egoera. Salbuespena egingo da txosten arrazoitu baten bidez justifikatzen bada planari ez dagokiola genero-ikuspegia txertatzea. Txosten hori emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan eskuduna den organo edo organismoari helaraziko zaio, zer irizten dion jakiteko.
2. Planaren memorietan edo ebaluazioetan aurreikusitako ebaluazio-adierazleei eta Planean garatutako neurrien onuradunei buruzko informazioa sexuaren arabera banakatuta aurkezten dela bermatzea, emakumeen eta gizonen egoeran nolako inpaktua izan dezaketen jakiteko.

3. Euskal administrazio publikoek, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan eskuduna den organo edo organismoak proposatuta, arauak edo gidalerroak onar ditzakete, zeinetan adieraziko den zer egin behar den aurreko paragrafoetan aurreikusitakoa benetan aplikatzeko eta horren jarraipena egiteko.

Bestalde, 17. artikulua, estatistikei eta azterlanei dagokienez, honakoa zehazten du:

- a) Sexuaren aldagaia sistematikoki sartzea egiten dituzten estatistika, inkesta eta datu-bilketa guztietan.
- b) Eragiketa estatistikoetan adierazle berriak ezartzea eta sartzea, emakumeen eta gizonen balio, rol, egoera, baldintza, jomuga eta beharrezan dauden diferentziak, horien guztien adierazpena eta aztertuko den errealitatearekin duten elkarreragina hobeto ezagutzea ahalbidetzeko.
- c) Beharrezkoak diren adierazleak eta mekanismoak diseinatzea eta sartzea, diskriminazio anizkoitzeko egoerak sortzen dituzten beste aldagai edo faktore batzuen eragina ezagutzeko
- d) Lagin zabalak hartzea, sartutako aldagai guztiak sexuaren aldagaia oinarri hartuta ustia eta azter daitezela ahalbidetzeko.
- e) Datuak ustiatzea eta zabaltzea emakumeek eta gizonen esku-hartze eremuetan dituzten egoera, baldintza, jomuga eta beharrezkoak ezagutu ahal izateko moduan.
- f) Gaur egun dauden definizio estatistikoak berrikustea, eta, hala badagokio, egokitzea, emakumeen lana aitortu eta baloratzen laguntzeko eta emakumeen zenbait kolektiboren estereotipatze negatiboa saihesteko.

1.2.7 EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana EAEko botere publikoek berdintasunaren arloan duten jarduera bideratzeko ibilbide-orrria da. VII. Planak Eusko Jaurlaritzak eta bere sailek, foru-aldundiek eta udalek elkarrekin eta koordinatuta lortu behar dituzten esku hartzeko helburu nagusiak adierazten ditu, Berdintasunerako Legeak eskatzen dituen beren jarduera-planen bidez.

a) Helburua

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren helburua da emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko prozesuan aurrera egitea, bizitza politiko, ekonomiko, kultural eta sozialaren eremu guztietan.

b) Xedea

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren xedea botere publikoak gidatzea da, zertarako eta bizitzaren arlo guztietan emakumeen eta emetasunaren mendekotasuna mantentzen eta justifikatzen duten balioak aldatzeko.

c) Printzipio gidariak

4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, berdintasunaren arloan euskal herri-aginteen jarduna gidatu behar duten printzipio orokorrak ezartzen ditu.

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planak horietako batzuk sakontzen eta azpimarratzen ditu, estrategikoak direlako, eta beste batzuk gehitzen ditu:

- Paradigma feminista
- Genero-ikuspegia
- Interseksionalitatea
- Emakumeen ahalduntzea
- Giza garapen jasangarria

d) Bermeak

VII. Planean proposatutako ekintzen oinarri diren printzipio horiez gain, berme hauek ezarri dira, jasotako jarduketak operatiboak izan daitezten eta aurreikusitako eragina izan dezaten:

1. Emakumeen eta gizonen berdintasunarekiko benetako konpromiso politikoa.
2. Beharrezko aurrekontu-baliabideak, giza baliaabideak eta baliaabide teknikoak berdintasuneko politika publikoen esku jartzea.
3. Politika gardena izatea eta herritarrei kontuak ematea, diru publikoaren bidez berdintasunari nola laguntzen zaion jakinarazteko.
4. Emakume- eta herri-mugimenduek, baita eragile ekonomiko eta sozialek ere, politiken garapenean parte hartzea eta hitz egitea, parte hartzeko eredu demokratikoago batetik, halako moldez non haien ekarpenak aintzat hartuko diren eta eragina izango duten.
5. Erakunde guztiek eta horiek osatzen dituzten sailek erantzunkidetasuna izatea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortze aldera.

e) Esku-hartzeko eremuak

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana 4 esku-hartze eremutan egituratzen da:

1.- GOBERNU ONA**Barne-eremua. Erakundeen barrutik.**

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako printzipioaren integrazioa legitimatzeaz, aitortzeaz eta bultzatzeaz arduratzen da.

Horretarako, gainerako gizartearentzat eredugarria izateaz gain, Gobernu Onak gobernu-jarraibideak, aurrekontu-esleipenak, akordio instituzionalak, kudeaketa gardeneko prozedurak eta zaintza-sistemak ezartzen ditu.

Gobernu Onaren eremu horretan sartzen diren programen artean, honako hauek nabarmendu behar dira, Gazte Planarekin lotura berezia dutelako:

- 3. programa: Genero-ikuspegia lan-prozeduretan; hala nola, genero-ikuspegia txertatzea estatistiketan eta azterlanetan.
- 4. programa: Koordinazioa eta elkarlana.
- 5. programa: Parte-hartzea eta eragina, honako alderdi hauek barne hartzen dituen: zuzendaritza-organoetan eta/edo pluripersonaletan emakumeen eta gizonen ordezkartza orekatua bermatzea, edo parte hartzeko eta kontsultarako guneetan genero-ikuspegia sartzea.

2.- EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

Emakumeen eta nesken ahalduntzea babestea eta sustatzea maila pertsonalean, kolektiboan, sozialean eta politikoa.

Ahalduntzea betekizun eta berme bat da, munduan emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko gizarte eraldatzeko. Emakumeen ahalduntzerik gabe, ez dago berdintasunik.

Emakumeen ahalduntzea VII. Berdintasun Planak eta Gazte Planak partekatzen duten helburua da; beraz, eremu honetako programetan lerrokatze berezi bat dago:

- 1. programa: Emakumeen ahalduntze pertsonalerako eta kolektiborako laguntza, emakumeen autonomiari, autozainketari eta osasunari buruzko neurriak barne hartzen dituen.
- 2. programa: Emakumeen ahalduntze sozial eta politikorako laguntza, besteak beste, partaidetzan eta espazio sozial eta politikoetan edo erabaki- eta zuzendaritza-eremuetan berdintasuna sustatzen duena.

3.- EKONOMIAK ETA GIZARTE-ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA

Eragile sozial, politiko eta ekonomiko guztien inplikazioa behar da, eskubideak bermatzeko eta gizarte-eredu iraunkorragoa eta berdintasunezkoagoa lortzen laguntzeko.

Eremu honetan sartzen diren programen artean, honako hauek nabarmendu behar dira, Gazte Planarekin lotura berezia dutelako:

- 3. programa: Berdintasuna gizarte eta ekonomia eraldatzeko beharrezko balioa dela aitortzea. Besteak beste, honako gai hauek biltzen ditu: herritartasun-eskubideen erabilera bultzatzea hezkidetzaren bidez edo antolaketa- eta enpresa-kultura berdintasunaren alde kokatzea.
- 4. programa: Emakumeen autonomia ekonomikoa; bertan, enplegu gehiago eta hobeak sortzeko edo pobrezia feminizazioa murrizteko helburua txertatzen da.

4.- EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAK

Eremu horretan, prebentzioan eta bizirik atera diren biktimak erabat sendatu bitarteko arreta integramean jartzen da arreta.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planak eta Gazte Planak emakumeen aurkako indarkeria matxista desagerrarazteko helburua partekatzen dute, sentsibilizazio- eta prebentzio-jarduerak barne, baita kaltearen arreta eta erreparazioa ere. Ondorioz, bloke honetako programak estu lotuta daude Gazte Planarekin:

- 6. programa: Sentsibilizazioa eta prebentzioa. Helburu hauek ditu: indarkeria estrukturala eta kulturala murriztea, emakumeen aurkako indarkeriari buruzko informazioa, ikerketa eta prestakuntza hobetzea, eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa sustatzea eta finkatzea.
- 7. programa: Kaltea hautematea, arreta ematea eta konpontzea
- 8. programa: Erakundearteko koordinazioa, emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko esku-hartze koordinatua sustatzeko.

1.1 taula EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana

GOBERNU ONERAKO PROGRAMAK ETA NEURRIAK	
1. PROGRAMA: KONPROMISO POLITIKOA	<ul style="list-style-type: none"> • 1.1. Berdintasunaren gaiari buruzko berariazko araudia onartzea eta garatzea. • 1.2. Berdintasun-politikak garatzeko aurrekontua handitzea. • 1.3. Berdintasunerako plangintza eta ebaluazioa areagotzea eta hobetzea. • 1.4. Berdintasunerako organo eta unitate administratiboak sortzea eta indartzea.
2. PROGRAMA: BERDINTASUNERAKO TREBAKUNTZA	<ul style="list-style-type: none"> • 2.1. Erakunde publikoetako langile guztiak prestatzea, baita politikariak ere.
3. PROGRAMA: GENERO-IKUSPEGIA LAN-PROZEDURETAN	<ul style="list-style-type: none"> • 3.1. Estatistiketan eta azterlanetan genero-ikuspegia txertatzea. • 3.2. Enplegu publikora sartzeko eta bertan gora egiteko hautaketa-prozesuetan berdintasunari buruzko edukiak sartzeko. • 3.3. Komunikazioan berdintasuna txertatzea. • 3.4. Araudian berdintasunaren printzipioa txertatzea. • 3.5. Aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzea. • 3.6. Genero-ikuspegia txertatzea sektorekako eta zeharkako planetan. • 3.7. Kontratu, diru-laguntza eta hitzamenetan berdintasunerako klausulak sartzeko.
4. PROGRAMA: KOORDINAZIOA ETA ELKARLANA	<ul style="list-style-type: none"> • 4.1. Berdintasunerako koordinazioa eta elkarlana indartzea.
5. PROGRAMA: PARTE-HARTZEA ETA ERAGINA	<ul style="list-style-type: none"> • 5.1. Emakumeek eta gizonek zuzendaritza-organotara eta/edo pluripersonaletan ordezkaritza orekatua izatea bermatzea. • 5.2. Kontsultarako eta parte hartzeko guneetan genero-ikuspegia sartzeko.
I. ARDATZA. EMAKUMEEN AHALDUNTZERAKO PROGRAMAK ETA HELBURUAK	
1. PROGRAMA: EMAKUMEEN AHALDUNTZE PERTSONAL ETA KOLEKTIBORAKO LAGUNTZA	<ul style="list-style-type: none"> • 1.1. Giza garapen jasangarriko emakumeek eta feminismoak duten zereginaren onarpena sustatzea. • 1.2. Emakumeen genero-kontzientzia, autoestimua eta autonomia garatzeko laguntza ematea. • 1.3. Autozainketa eta osasuna sustatzea adin guztietako emakumeengan.

	<ul style="list-style-type: none"> 1.4. Baliabideak hobetzea, halako moldez non emakume guztien askotariko egoerek, esperientziek eta premiek beren aldaketan eragin dezaten, bereziki desberdinkeria handienak dituzten baliabide horietan.
2. PROGRAMA: EMAKUMEEN AHALDUNTZE SOZIAL ETA POLITIKORAKO LAGUNTZA	<ul style="list-style-type: none"> 2.1. Gizarte- eta herri-mugimenduetatik berdintasuna sustatzea. 2.2. Emakumeek gizartean parte har dezaten sustatzea, eremu eta gune guztietan. 2.3. Erabaki- eta zuzendaritza-eremuetan emakumeen presentzia eta eragina handitzea.
II. ARDATZA. ESKUBIDEAK BERMATU AHAL IZATEKO EKONOMIAK ETA GIZARTE-ANTOLAMENDUA ERALDATZEKO PROGRAMAK ETA HELBURUAK	
3. PROGRAMA: BERDINTASUNA GIZARTEA ETA EKONOMIA ERALDATZEKO BEHARREZKO BALIOA DELA AITORTZEA	<ul style="list-style-type: none"> 3.1. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna gizarte-balioa dela onartzeko laguntza ematea. 3.2. Heritartasun-eskubideak erabiltzea bultzatzea, hezkidetzaren bidez. 3.3. Antolaketa- eta enpresaren kultura berdintasunaren alde kokatzea.
4. PROGRAMA: EMAKUMEEN AUTONOMIA EKONOMIKOA	<ul style="list-style-type: none"> 4.1. Lan gehiago eta hobeak sortzea. 4.2. Pobreziaren feminizazioa murriztea.
5. PROGRAMA: ZAINKETA EKONOMIA FEMINISTA	<ul style="list-style-type: none"> 5.1. Zainketa bizitzaren jasagarritasunerako ezinbesteko baldintza dela sozialki onartzea. 5.2. Ordaindu gabeko zainketa-lanak ikusaraztea eta horien balioa aitortzea. 5.3. Zaintzen antolakuntza sozial berri bat babestea, horien gaineko ardurak birbanatzeko.
III. ARDATZA. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAK LORTZEKO PROGRAMAK ETA HELBURUAK	
6. PROGRAMA: SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA	<ul style="list-style-type: none"> 6.1. Indarkeria estrukturala eta kulturala murriztea. 6.2. Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko informazioa, ikerketa eta prestakuntza hobetzea. 6.3. Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa sustatzea eta finkatzea.
7. PROGRAMA: KALTEA HAUTEMATEA, ARRETA EMATEA ETA KONPONTZEA	<ul style="list-style-type: none"> 7.1. Emakumeen aurkako indarkeriaren antzemate goiztiarra handitzea. 7.2. Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta integrala bermatzea, ahalduzkoaren ikuspegitik, esku-hartze horretan nazioarteko estandarrekin bat eginez. 7.3. Norbanakoek eta taldeek kaltearen ordaina jasotzeko duten eskubidea bermatzea.
8. PROGRAMA: ERAKUNDEARTEKO KOORDINAZIOA	<ul style="list-style-type: none"> 8.1. EAEn emakumeen aurkako indarkeria jorratzen duten erakundearen arteko eskuhartze koordinatua sustatzea.

1.2.8 Euskararen Agenda Estrategikoa

Legegintzaldi honetan, Eusko Jaurlaritzak euskararen zeharkakotasuna eta hizkuntza-politikaren garrantzia azpimarratu nahi izan ditu. Euskarak zeharkako lerroa izan behar du; euskararen erabilera bermatu egin behar da administrazioan eta herritarrekiko harremanetan. Horregatik, beharrezkoa da euskara kontuan hartzea sail guztien plan estrategiko eta proiektu guztietan.

Eusko Jaurlaritzak 2021eko azaroan Euskararen Agenda Estrategikoa onartu izana euskararekiko duen konpromiso irmoaren beste isla bat da.

Euskararen Agenda Estrategikoaren xedea da euskararen normalizazioan aurrera egiteko, euskararen ezagutza areagotzeko eta euskararen erabilera indartzeko baliabide bat izatea, eremu guztietan aktibazio soziala sustatuz, euskararen erabilera arau sozial normalizatu bihur dadin.

a) **Helburu estrategikoak**

- Herritarren euskararen ezagutza handitzen jarraitzea.
- Herritarren euskararen erabilera handitzen jarraitzea.
- Herritarren hizkuntza-eskubideen bermean aurrera egitea.
- Euskararen lurralde guztietan erakundeen arteko lankidetzaz indartzen jarraitzea.

Gazte Planaren helburuen artean, aurrerago islatuko den bezala, gazteen artean euskararen erabilera sustatzea dago, bi jarduera-ildorekin: 1) aisialdiko eremuetan euskararen erabilera bultzatzea eta euskarazko kultura-produktuen kontsumoa sustatzea, eta 2) gazteen artean euskara ikusarazten eta balioesten duten ekimenak bultzatzea.

Jarraian, Euskararen Agenda Estrategikoan planteatutako lau konpromiso nagusiak jasotzen dira, dagozkien ekimenekin.

b) **Aurreikusitako konpromisoak eta ekimenak**

1.2 taula Euskararen Agenda Estrategikoa

1. KONPROMISOA	
<p>EUSKARAREN EZAGUTZA AREAGOTZEA ETA, BATEZ ERE, EUSKARAREN ERABILERAN ERAGITEA GIZARTE-ETA KULTURA-EREMUETAN, EREMU EKONOMIKOETAN, DIGITALETAN ETA SEKTORE PUBLIKOAN</p>	<ul style="list-style-type: none"> • 1.1. Indarrean dagoen Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren ebaluazioa egi-tea eta, gizarte-eragile nagusiekin, hurrengo aldirako hizkuntza politika zehaztuko duen plangintza egitea eta adostea. (HIKZ) • 1.2. Legegintzaldi honetako Euskararen Agenda Estrategikoa onestea eta garatzea. (HIKZ) • 1.3. Euskararen ezagutza handitzeko programak eta laguntzak areagotzea, oro har, egiaztatutako B2 mailara arteko doakotasuna ezarriz eta C1 mailara arteko doakotasuna eskainiz 16 eta 30 urte bitartekoentzat. (HABE) • 1.4. Helduen kontziliazio-premietara hobeto egokitutako eskaintza sustatzea, ikaskuntza-modalitate erdi-presentzialen bidez eta plataforma birtualen erabilerean bidez, betiere euskaltegiekin elkarlanean. (HABE) • 1.5. Helduen euskalduntze-sistemaren finantzazioa indartzea eta handitzea, irakasleen lan-baldintzak hobetzeko euskaltegien finantzaziorako ohiko deialdien bidez. (HABE) • 1.6. Migratzaileei zuzendutako euskara ikasteko eta hobetzeko programak areagotzea, bai eremu sozioekonomikoan, bai hezkuntzaren eremuan, horien gizarteratzean eta laneratzean laguntzeko xedez. (HABE) • 1.7. Euskaraldia bezalako euskararen erabilera sustatzeko programak indartzea, bai eremu formalean, bai eremu ez-formalean: aisialdia, gizarte-hedabideak, kirola, familia, hezkuntza sistema, kultura... (ESZ / HIKZ) • 1.8. Hizkuntza Teknologia Plana onestea eta garatzea eta euskararen presentzia, euskarazko edukien sorkuntza eta horien ingurune digitaleko erabilera sustatzea. (ESZ / HIKZ) • 1.9. Euskara Eremu Sozioekonomikoan Normalizatzeko Plan Estrategikoa 2020-2023 garatzea. (HIKZ) • 1.10. Adostasunetik abiatuta, herritarrei euskara bizitzaren eremu guztietan erabiltzea ahalbidetzen dieten diskurtso positiboak eta gizarte-aktibazioa lantzea. Horretarako, euskararen zeharkakotasuna azpimarratuko da eta Gobernuaren sail eta arlo guztien, sektore publikoaren eta, oro-korrean, gizartearen inplikazioan sakonduko da (industria, berdintasuna, lanbide-heziketa, unibertsitatea, merkataritza, turismoa...). Erakunde arteko lankidetzatik lan egingo da. (ESZ / HIKZ) • 1.11. Hizkuntza gutxituaren ezagutzari eta erabilerari dagokienez, gizarte-eremu desberdinen analisia bermatzen duten ikerketak sustatzea eta Euskararen Adierazle Sistema elikatzen jarraitzea. (HIKZ)
2. KONPROMISOA	
<p>HIZKUNTZA ESKUBIDEEN ERABATEKO ERRESPETURANTZ ETA NORMALIZATUTAKO HIZKUNTZA BIZIKIDETZA BATERANTZ AURRERA EGITEA</p>	<ul style="list-style-type: none"> • 2.1. Administrazio Publikoetan Euskara Normalizatzeko VII. Plana (2023-2027) diseinatzea eta ezartzea, herritarrek administrazioarekin duten harremanean hizkuntza eskubideak errespetatzea helburu; edonola ere, pertsonak nahi duten hizkuntza ofiziala erabiltzeko daukaten erabateko askatasuna bermatuko da. Planaren beste xede bat izango da euskararen erabileraren normalizazioan aurrera egitea, hain zuzen ere, sektore publikoaren lanerako hizkuntza gisa. (HAHNZ) • 2.2. Administrazio publikoetan euskararen erabilera sustatzeko dekretuak onestea. (HAHNZ) • 2.3. Sozietate publikoentzako normalizazio plana abiaraztea. (HAHNZ) • 2.4. BIKAIN Euskararen Kalitate Ziurtagiria sustatzea eta beharrezko egokitzapenak egitea horren eraginkortasuna handitzeko. (HIKZ / HAHNZ) • 2.5. Urratsak ematen jarraitzea Elebide zerbitzuaren bidez herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko. (HAHNZ) • 2.6. Neurriak hartzea kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak bermatzeko eta sektoreko eragileekin adostasunak lortzeko. (HIKZ)

3. KONPROMISOA	
ERAKUNDE ARTEKO LANKIDETZA INDARTZEA EUSKARAREN LURRALDE GUZTIEKIN	<ul style="list-style-type: none"> • 3.1. Erakunde arteko eta EAeko eragile pribatuekiko lankidetzaren eta koordinazioa indartzea koordinazio-organismo desberdinen bidez (EAB eta HAKOBA). (HIKZ / HAHNZ) • 3.2. Euskararen lurraldeen arteko lankidetzaren eta elkarlana indartzea, 2017an adostutako Hiruko Itunaren bidez. (HIKZ) • 3.3. Hizkuntza politikak koordinatzea euskararen erabilera komuna eta nagusia den eremu geografikoetako erakunde publiko eta pribatu desberdinen artean, hizkuntza errealitate hori finkatzeko eta indartzeko. (HIKZ) • 3.4. Nazioartean hizkuntza desberdinen arteko lankidetzaren sustatzea, eleaniztasunarekin eta hizkuntzen arteko bizikidetzarekin lotutako nazioarteko programetan eta foroetan parte hartuz. (ESZ / HIKZ)
4. KONPROMISOA	
ELEANIZTASUNEAN AURRERA EGITEA, EUSKARA HARTUZ ARDATZ NAGUSITZAT	<ul style="list-style-type: none"> • 4.1. Euskararen eta gaztelaniaren erabilera eta ezagutza finkatzea, hezkuntza sistema eleaniztun baterantz aurrera eginez. Sistema horrek euskara edukiko du ardatz nagusi gisa eta hobekuntza eta aurrerapen nabarmenak txertatuko ditu ingelesaren prestakuntzan Lehen Hezkuntzatik; horrekin batera, ikasleen ingelesaren ezagutza hobetzeko jarduerak indartuko dira. Beraz, horretarako, zentro guztietan hedatuko dira hizkuntza proiektu eleaniztunak, horien errealitate soziolinguistikora egokituz eta euskara hartuz ardatz nagusitatzat.

1.2.9 Eusko Jaurlaritzaren beste plan eta estrategia batzuk

V. Gazte Plana bat dator Eusko Jaurlaritzak onartutako indarreko plan eta ekimen hauekin:

- **Ekonomia eta enplegua:**
 - 2030erako Enpleguaren Euskal Estrategia
 - 2021-2024 aldiko Enplegu Plan Estrategikoa
 - 2021-2024 aldiko Gizarte Ekonomiaren Sailarteko Plan Estrategikoa
 - Lanbide Hobetzen Plana
 - 2024rako Euskadiko Erakunde arteko Ekintzaitza Plana
 - 2020-2024 aldiko Euskadiko Ekonomia eta Enplegua Suspertzeko Berpiztu Programa
 - 2021-2026 aldiko Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategia
- **Gazteria eta erronka demografikoa:**
 - Gazteen emantzipazioa laguntzeko 2030erako Euskal Estrategia
 - Erronka Demografikorako 2030erako Euskal Estrategia
- **Berdintasuna:**
 - EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VIII. Plana (lanketa prozesuan)
 - Euskadin Soldata-arrakala murrizteko Estrategia eta Plan Operatiboa
 - EAEko hezkuntza-sistamarako II. hezkidetza-plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean 2019-2023
 - Hezkuntza-sisteman hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Plana
- **Hezkuntza:**
 - Heziberri 2020 Plana, hezkuntza-sistema hobetzeko (indarrean)
 - GLEAren Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzako Ekintza Plana
 - 2017-2020 aldiko Giza eskubideen, bizikidetzaren eta lankidetzaren Hezkuntza-programa Osagarria (indarrean)
 - 2019-2022 aldiko Unibertsitate Sistemaren Plana (indarrean)
 - 2019-2022 aldiko Eskola Inklusiboa Garatzeko Esparru Plana (indarrean)
 - 2019-2022 aldiko Adimen-gaitasun handiko ikasleei hezkuntza-arreta emateko Plana (indarrean)
 - Ikasle Etorkinentzako Hezkuntza Arretarako II. Plana, eskola-eredu inklusibo eta kulturartekoaren esparruan 2016-2020 (luzatuta)
 - Lanbide Heziketako VI. Euskal Plana
 - Kanpo Harremanetarako 2025eko Plana
 - Astialdiko Hezigarria Sustatzeko 2030 Euskal Estrategia
 - 2022-2024 aldiko Euskal Hezkuntza Sistemaren Eraldaketa Digitalerako Plana

- **Gizarte-politikak eta integrazioa:**
 - EAEko Familiei laguntzeko Erakunde arteko IV. Plana 2018-2022 aldirako (indarrean)
 - Gizarte Zerbitzuen II. Plan Estrategikoa (lanketa prozesuan)
 - Udaberri 2024. Bizikidetzeta, Giza Eskubide eta Aniztasunaren Plana
 - 2018-2021 aldiko Garapenerako Lankidetzaren IV. Gida Plana (2022-2024 luzatua)
 - 2022-2026 aldiko Gizarteratzeko V. Euskal Plana
 - 2020-2024 aldiko Gazte Justiziaren V. Plana
 - Haurren eta nerabeen kontrako indarkeriari aurre egiteko 2022-2025 aldiko Euskal Estrategia
 - Herritartasunaren, Immigrazioaren eta Asiloaren Kulturarteko VI. Plana, 2022-2025
 - 2021-2024 aldiko Boluntariotzaren Euskal Estrategia
 - Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategia
 - Euskadiko Irisgarritasun Estrategiaren Ekintza Plana
- **Ingurumena eta kontsumo jasangarria:**
 - Euskadiko Garraio Jasangarriaren 2030erako Gida Plana
 - 2018-2020 aldiko Kontsumobideren Plan Estrategikoa (indarrean)
 - Hiri Agenda Bultzatu 2050
- **Osasuna, jarduera fisikoa eta kirola:**
 - Mugiment Jarduera Fisikoaren Plan Zuzentzailea
 - 2021-2024 aldiko Osasunaren Esparru Estrategikoa
 - 2022-2026 aldiko Adikzioen VIII. Plana
- **Etxebizitza:**
 - 2021-2023 aldiko Etxebizitza Plan Zuzentzailea
- **Euskara eta kultura:**
 - 2021-2024 aldiko Euskararen Agenda Estrategikoa
 - 2021-2024 aldiko Kirolean euskara sustatzeko plana
 - 2020-2023 aldiko Euskara eremu sozioekonomikoan sustatzeko plana
 - Kultura 2028 Plan Estrategikoa
- **Zientzia eta teknologia:**
 - Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Plana Euskadi 2030 (ZTBP)
- **Zeharkako programak:**
 - Euskadiko 2030 Agenda
 - XII. Legegintzaldiko Gobernu Programa 2021-2024
 - 2023-2026 aldiko Euskal Estatistika Plana

1.3. EUSKO JAURLARITZAREN V. GAZTE PLANA EGITEKO PROZESUA

V. Gazte Planaren lanketa metodologia parte-hartzailean oinarritu da, eta lana honako fase eta pieza metodologiko hauean egituratu da:





2.

IV. GAZTE PLANAREN EBALUAZIOA

2.1. EUSKO JAURLARITZAREN IV. GAZTE PLANAREN EBALUAZIOA

Ebaluazioaren emaitzak, adierazleak eta horiei lotutako xede-balioak oinarri hartuta

- COVID-19aren eragin negatiboa gorabehera, ezarritako 40 adierazleetatik, bete egin dira edo joera positiboa erakusten dute: **% 69**
 - **17** adierazlek lortu edo gaintitu egin dute xede-balioa
 - **10**ek joera positiboa dute eta helburura hurbiltzen ari dira
 - **12**k ez dute helburua betetzen, eta 1 ezin izan da baloratu

2.1 taula IV. Gazte Planeko helburuen betetze-mailaren laburpen-etaula

ARDATZA	Zk.	Adierazlea	Oinarri-lerroa	Itxarondako emaitza	Ebaluazio datuak	Betetze-maila
1. ardatza: Emantzipazioa eta Autonomia	1	Unibertsitateko ikasketak egin ondorengo lan-eratzte-tasa	82 % (2016)	> 80 %	87 % (2020)	●
	2	LHko ikasketak egin ondorengo laneratzte-tasa	72,4 % (2016)	> 80 %	78,5 % (2020)	●
	3	Gazteen langabezia-tasa	23,7 % (2016)	< 15 %	17,4 % (2021)	●
	4	Prestakuntzari lotutako enplegua	52,7 % (2015)	> 60 %	67,8 % (2020)	●
	5	Lan-istripuen indizea	36,4 x 1.000 (2015)	< 40 x 1.000	32,4x1000 (2020)	●
	6	Soldatapeko gazteen behin-behinekotasu-naren tasa	66,9 % (2016)	< 65 %	65,5 % (2021)	●
	7	Lanaldi partzialeko enpleguaren tasa	30,4 % (2016)	< 30 %	33,5 % (2021)	●
	8	Norberaren konturako enpleguaren tasa	4,6 % (2015)	> 10 %	4,1 % (2020)	●
	9	Luzaroko langabezia-tasa	9,4 % (2016)	< 5 %	6,8 % (2021)	●
	10	Gehienez ere bigarren mailako ikasketa ez profesionalak amaitu dituzten gazteen lan-gabezia tasa	32,6 % (2016)	< 25 %	23,2 % (2020)	●
	11	Emantzipazio-tasa	38,9 % (2016)	> 40 %	35,1 % (2020)	●
	12	Batez besteko emantzipazio-adina	29,8 urte (2015)	< 29 urte	30,2 (2019)	●
	13	Etxebizitza librea alokairuan hartzeko kostua	65,3 % (2016)	< 63, 5 %	80,3 % (2020)	●
	14	Emantzipazioa alokairu-araubidean	39,9 % (2015)	> 56 %	43,4 % (2020)	●
	15	Intolerantzia ideologikoa	16,6 % (2016)	< 15 %	24,9 % (2020)	●
	16	Hirueletasun-tasa	30,9 % (2014)	> 38 %	49,3 % (2019)	●
	17	Eskola-uzte goiztiarren tasa	10,2 % (2015)	< 7 %	6,5 % (2020)	●
	18	Goi mailako hezkuntzako titulazioa	54,2 % (2015)	> 50 %	59,6 % (2020)	●
	19	Gainditutako doktorego-tesiak	400 (2016)	> 400	311 (2020)	●
2. ardatza: Ongizatea eta bizi-tza osasungarria	20	Suizidioagatiko hilkortasun-tasa	5,8 x 100.000 (2014)	< 4 x100.000	2,6x100.000 (2020)	●
	21	Antsietate- eta depresio-arazoaren prebalen-tzia	13,7 % (2013)	< 10 %	8,3 % (2018)	●
	22	Obesitate-tasa	5,4 % (2013)	< 4 %	4,2 % (2018)	●
	23	Jarduera fisikoa	75,3 % (2013)	> 85 %	86,3 % (2018)	●
	24	Nerabeen haurdunaldi-tasa	7,6 x 1.000 (2014)	< 6 x 1.000	4,9x1.000 (2020)	●
	25	Sexu-harreman arriskutsuak	15,2 % (2016)	< 15 %	17,5 % (2020)	●
	26	Trafikoaren ondoriozko heriotza-tasa gizonen artean	9,6 x 100.000 (2015)	< 4 x 100.000	6,4x100.000 (2020)	●
	27	Ohiko tabako-kontsumoa	23,5 % (2012)	< 18 %	18,5 % (2017)	●
	28	Gehiegizko eta arriskuzko alkohol-kontsumo-a	24,5 % (2012)	< 20 %	20,3 % (2017)	●
29	Ohiko kalamu-kontsumoa	4,3 % (2012)	< 4 %	4,2 % (2017)	●	
3. ardatza: Berdintasuna eta gizarte-inklusioa	30	Benetako pobrezia-tasa	8,1 % (2016)	< 8 %	6,0 % (2020)	●
	31	Lana lortzeko esparruan genero-desberdin-keria hautematea	24,3 % (2016)	< 20 %	23,4 % (2020)	●
	32	Emakumeen aurkako indarkeriaren tasa	7,5 x 1.000 (2016)	< 7 x 1.000	7,6x1.000 (2020)	●
	33	Ziberjazarpena	4,5 % (2016)	< 4 %	3,3 % (2021)	●
4. ardatza: Parte-hartzea eta konpromiso soziala	34	Asoziazionismo-tasa	46,2 % (2016)	> 50 %	43,9 % (2021)	●
	35	Gai publikoetan gehiago parte hartzeko nahia	42,4 % (2016)	> 45 %	55,1 % (2020)	●
	36	Kontsumo jasangarria	29,8 % (2016)	> 35 %	41,8 % (2021)	●
5. ardatza: Sozializazioa	37	Irakurtzeko ohitura	54,4 % (2016)	> 55 %	48,8 % (2021)	●
	38	Jarduera artistikoetan parte hartzea	55,1 % (2016)	> 58 %	76,8 % (2021)	●
	39	Jarduera fisikoa ohikotasunez egitea	49,0 % (2016)	> 50 %	56,4 % (2021)	●
	40	Lagunartean euskara erabiltzea	35,3 % (2016)	> 36 %	35,3 % (2016)	●

Iturria: IV. Gazte Planaren eraginaren ebaluazioa. 2018-2021 (Gazteen Euskal Behatokia)

2.1.1 Ebaluazioaren ondorioak

Covid19aren pandemiak zeharkatutako plana

- Covid19aren pandemia gorabehera, gazteen egoerak hobera egin du eragin-adierazle gehienetan. Planteatutako helburuen % 44 bete dira, % 25ek nahi den norabidean eboluzionatu dute eta adierazleen herenak baino zertxobait gutxiagok joera negatiboa dute eta ezarritako helburutik urruntzen dira.

Enpleguaren hobekuntza, 2018an nabarmena zena, eten egin zen 2020an, baina azkar hasi da suspertzen 2021ean

- 2021. urtea % 17,4ko langabezia-tasarekin amaitu zen, eta helburuarekin bat ez badator ere, oso emaitza positiboa da, izan ere, langabezia-tasa pandemia-aurreko mailetaraino berreskuratu baita urtebeteko epean.
- Pandemia gorabehera, nabarmentzekoa da enplegua duten gazteen ehuneko handia dagoela unibertsitateko eta lanbide-heziketako ikasketak amaitu dituztenen artean.
- Enpleguaren kalitatearen adierazle batzuk, hala nola prestakuntzarekin lotutako enplegua edo laneko ezbehar-tasa, hobetu egiten dira eta proposatutako helburua lortzen dute.
- Hala ere, behin-behinekotasunak edo lan partzialak datu negatiboak erakusten jarraitzen dute, bereziki emakumeen artean.

Emantzipazioa da gainditu gabeko gai nagusia

- 18-34 urteko gazteen % 35,1 emantzipatuta dago; plana hasi zenean, tasa hori % 38,9koa zen.
- 34 urte arteko gazte emantzipatuen batez besteko adina handia da, 30,2 urtekoa, hain zuzen ere.

Aurrerapenak hezkuntzan: porrot gutxi eta ikasketa-maila handia

- Eskola-uzte goiztiarraren tasa Europako txikienetakoa da, eta beherakada handia izan du 2018tik 2020ra.
- Unibertsitateko ikasketak eta/edo goi-mailako heziketa-zikloak amaitu dituzten 30-34 urteko biztanleen ehunekoa ere EB-27ko handienen artean dago.
- Datu horrek eta hirueletasun-tasak (ingelesez, euskaraz eta gaztelaniaz ondo hitz egiten dutenak) gora egin izanak prestakuntza-maila handia erakusten dute.

Datuek oraindik ez dituzte pandemiak osasunean dituen ondorioak jasotzen

- Osasun Inkestaren 2023ko ediziora arte itxaron behar da okerrera egin duen baieztatzeko, osasun mentaleko hainbat profesional-taldek adierazi bezala. Adikzioen hurrengo inkestaren datuei ere itxaron behar zaie (azkena 2017koa da).
- Jarduera fisikoa erregulartasunez egiteak ere nabarmen egin du gora, batez ere emakumeen artean.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunak zailtasunak ditu oraindik

- Emakume gazteen herenak uste du gizon batek aukera gehiago dituela lanpostu bat lortzeko prestakuntza eta esperientzia bereko emakume batek baino. Ideia hori egonkor mantendu da 2008tik, hobekuntzarik gabe.
- Emakumeen aurkako indarkeria, desberdintasunaren adierazlerik muturrekoena, 15-29 urteko 1.000 emakumeko indarkeria-salaketa jarri duten emakumeen kopuruarekin neur-tuta, oinarizko ildoari eusten zaio.

Ingurumenarekiko konpromiso handiagoa eta gai publikoetan parte hartzeko gogo handiagoa

- Gai publikoekiko interesa eta kontsumoarekiko jokabide arduratsuak areagotu dira.



3.

**EUSKADIKO GAZTEEN
EGOERAREN DIAGNOSTIKOA**

3.1. TESTUINGURU DEMOGRAFIKOA


Gazteak Euskadiko biztanleria osoaren % 13,9 dira

2021eko urtarrilaren 1ean, Euskadin erroldatutako eta 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen kopurua **305.067** zen, hau da, **biztanleria osoaren (2.193.199) % 13,9**. Hona hemen Euskadiko gazteen sexuaren arabera banaketa: % 51,3 gizonak (156.394) eta % 48,7 emakumeak (148.673).

15-29 urteko biztanleriaren banaketa bost urteko adin-taldean arabera nahiko homogeneoa da, eta pisu erlatibo oso antzekoak ditu: 15-19 urteko pertsonak kolektiboaren % 34,6 dira (105.549 pertsona), 20-24 urtekoak % 32,9 (100.368) eta 25-29 urtekoak % 32,5 (99.150 pertsona).

3.1 grafikoa 15 eta 29 urte bitarteko biztanle gazteak, bost urteko adin-taldean eta sexuaren arabera, 2021ean

(zenbaki absolutuak)




Iturria: EUSTAT (Biztanleen udal estatistika)

Lurralde historikoen arabera, **Euskadiko 15-29 urteko biztanleen % 51,1 Bizkaian** bizi da (155.769 pertsona), **% 34,3 Gipuzkoan** (104.546 pertsona) eta gainerako **% 14,7 Araban** (44.752 pertsona).

Gazteen indizeak edo gazteen proportzioak, biztanleria osoarekiko, aldakuntza positibo oso txikia izan du, 2020an % 13,8 izatetik 2021ean % 13,9 izatera igaro baita. Horrela, indartu egiten da 2018az geroztik behatutako goranzko bilakaera, etengabeko beheranzko joeraren ondoren. Hala ere, Euskadi da, oraindik ere, dagoeneko zahartuta dagoen kontinente batean gazte-indize txikiena duen Europako eskualdeetako bat, kontuan hartzen badugu EB-27ko batez bestekoa 2020an % 16,5ekoa zela.

3.2 grafikoa Euskadiko gazteen indizearen bilakaera (15-29 urte)

(%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, EUSTATen datuak oinarri harturik (Biztanleen udal estatistika)

Atzeritar jatorriko gazteen kopuruak behera egin du 2021ean, aurreko urtearekin alderatuta

Euskadin bizi diren gazteen % 14,5 atzeritarrek dira (44.327). Emaitza horrek uzkurdura erakusten du termino absolutuetan eta erlatiboetan 2020an ikusitakoarekin alderatuta, baina gazteen presentzia atzeritarra txikiagoa zen etapan (2015-2018) lortutakoak baino askoz balio handiagoetan mantentzen da.

3.3 grafikoa Euskadin bizi diren 15 eta 29 urte bitarteko biztanle atzeritarren bilakaera

(zenbaki absolutuak)



Iturria: EUSTAT (Biztanleen udal estatistika)


Ama lehen aldiz izateko batez besteko adina: 32,4 urte

Lehen seme-alaba izateko batez besteko adinak ia 20 urte daramatza Euskadin, 2000tik, **30 urtetik gora**, eta **2021ean 32,4 urtera iritsi da**.

Datu hori are adierazgarriagoa da ama gazteen nazionalitateari erreparatzen badiogu; izan ere, **Espainiako nazionalitatea duten biztanleen artean, batez besteko adina 33 urtekoa da**. Atzerriko nazionalitatea duten gazteen artean, batez besteko adina 28,6 urtekoa da. Azpimarratzekoa da atzerriko nazionalitatea duten neska gazteen batez besteko adina atzeratzen ari dela, 2004ko 26,8 urtetik 2021eko 28,6 urtera.

3.4 grafikoa Ama lehen aldiz izateko batez besteko adinaren bilakaera Euskadin, nazionalitatearen arabera

(urteak)



Iturria: EIN (Oinarrizko Adierazle Demografikoak)

3.2. HEZKUNTZA


Eskola-uzte goiztiarra % 4,8an kokatzen da

Eskola-uzte goiztiarraren tasak gehienez Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) amaitu duten eta inkesta egin aurreko lau asteetan ikasketekin edo prestakuntzarekin jarraitu ez duten 18 eta 24 urte bitarteko biztanleen ehunekoa neurtzen du.

Euskadin **eskola uztearen tasak bilakaera positiboa** izan du azken urteetan, 2021ean % 4,8koa izan baita. Gizonen hezkuntza-uzte goiztiarraren tasa emakumeen tasaren parekoa izan da 2021ean.

Euskadik eskola-uzte goiztiarraren tasarik txikiena du autonomia-erkidego guztien artean, eta EB-27n ikusitakoa baino balio txikiagoa ere erakusten du (% 9,7 2021ean).

3.5 grafikoa 18 eta 24 urte bitarteko gazteek eskola behar baino lehen uztearen tasaren bilakaera (sexuaren arabera, %)




Iturria: EUSTAT, Biztanleria Aktiboaren Inkesta (BAI)

30 eta 34 urte bitartekoen artean, goi-mailako hezkuntzako titulazio-tasa % 62,9 ingurukoa da

30-34 urte bitarteko pertsonen goi-mailako hezkuntzako titulazio-tasa (unibertsitate-ikasketak edo goi-mailako heziketa-zikloak) **% 62,9koa da 2021ean**, baina % 65,6raino igotzen da emakumeen artean. Gizonek, aldiz, tasa txikiagoa dute (% 60,2 2021ean), baina iguera nabarmena izan dute azken urtean.

3.6 grafikoa 30 eta 34 urte bitarteko gazteen goi-hezkuntzako graduazio-tasaren bilakaera

(sexuaren arabera, %)




Iturria: EUSTAT, Biztanleria Aktiboaren Inkesta (BAI)

Zientzia eta teknologian graduatutako emakumeak 35 urtetik beherako graduatuen heren bat dira

2020-2021 ikasturtean 2.580 pertsona graduatu ziren Euskadin zientzia eta teknologia arloetan, horietatik 1.722 gizonak izan ziren eta 858 emakumeak; beraz, arlo horietan graduatutako pertsona guztien % 33,3 emakumeak izan ziren.

2012-2013 ikasturtetik, arlo zientifiko-fisiko-teknikoetan graduatutako pertsonen artean emakumeen pisuak ez du gainditu 2015-2016 ikasturtean lortutako % 36ko maximoa.

3.7 grafikoa Zientzia eta teknologian graduatutako emakumeen ehunekoaren bilakaera, ezagutza-arlo horietan graduatutako 35 urtetik beherako pertsona guztiekiko (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, EUSTATen Unibertsitate Estatistikako datuetan oinarrituta

354 doktore-tesi onartu dira, 35 urtetik beherako pertsonen egindakoak

2010 eta 2021 artean **35 urtetik beherako** pertsonen egindako **3.849 doktore-tesi** onartu dira euskal unibertsitateetan. **2021ean 354 doktore-tesi** aurkeztu dituzte 35 urtetik beherakoek, eta onartuak izan dira. 2021ean, gizonen defendatutako tesiak emakumeek aurkeztutakoak baino gehiago izan dira.

3.8 grafikoa 35 urtetik beherakoek euskal unibertsitateetan onetsitako tesi kopuruaren bilakaera
(sexuaren arabera, zenbaki absolutuak)



Iturria: EUSTAT, Hezkuntza Jardueraren Adierazleak.


Gora egiten jarraitzen du euskara komunikazio-hizkuntza gisa duten unibertsitateaz kanpoko ikasleen ehunekoak

Azken urteetan, **nabarmen igo da unibertsitateaz kanpoko hezkuntzan dauden** (haur hezkuntza, lehen hezkuntza, derrigorrezko bigarren hezkuntza, hezkuntza berezia, batxilergoa, lanbide-heziketa, hasierako lanbide-prestakuntzarako programak eta helduen hezkuntza) eta **ikasketak D hizkuntz eremuan** (euskaraz, eta gaztelania irakasgai bezala) **egiten ari diren ikasleen** ehunekoak. 2020-2021 ikasturtean, ikasleen bi heren baino apur bat gehiago izan dira (% 67,2).

Lurralde historiko batetik bestera alde nabarmenak daude. 2020-2021 ikasturtean, ikasle horiek % 52,2 izan dira Araban, % 62,1 Bizkaian eta % 81,8 Gipuzkoan.

3.9 grafikoa D hizkuntza eremuan matrikulatutako unibertsitateaz kanpoko ikasleen ehunekoaren bilakaera, ikasturtea hasteko urtearen arabera

(lurralde historikoaren arabera, %)



Iturria: EUSTAT (Hezkuntza-jardueraren estatistika).

Euskara irakas-hizkuntza duten ikasleen kopuruak gora egin duenez, **euskaraz ondo hitz egiten dutela dioten 15-29 urteko gazteen ehunekoak ere gora egin du**. 2009an % 61,3 zen, eta 2019an, Eustaten azken Bizi Baldintzen Inkestaren data, % 78,5era iristen zen. Ehuneko hori handiagoa da Gipuzkoan (% 87,3), eta txikiagoa, berriz, Araban (% 72,4) eta Bizkaian (% 74,6).


Euskadiko gazteen erdiak hirueledunak dira

Euskadiko hirueletasun-tasa kalkulatzeko, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez ondo egiten duten gazteen ehunekoa hartzen da kontuan. Adierazle horrek balio gero eta handiagoak ematen ditu, ingelesaren ezagutzak nabarmen gora egin duelako. **2019an, Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen % 49,3k adierazi zuten euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez ondo hitz egiten zutela;** kopuru hori 2004an erregistratutakoa baino 30 puntu handiagoa da.

Lurralde historikoen arabera, balio handiena Gipuzkoan erregistratu da, % 59,2; izan ere, alde handia dago beste bi lurralde historikoekin konparatuta, bai euskara maila, bai ingeles maila, handiagoak direlako.

3.10 grafikoa 15-29 urte bitarteko gazteen hirueletasunaren bilakaera

(lurralde historikoen arabera, %)



Iturria: EUSTAT, Bizi-baldintzei buruzko inkesta.

3.3. ENPLEGUA ETA EKONOMIA-EGOERA


Okupazio-tasa (16-29 urte): % 40,4

2021ean okupatutako gazteen ehunekoak (% 40,4) gora egin du aurreko urtearekin alderatuta, eta pandemiaren aurreko balioak berreskuratu ditu.

Gizon gazteen okupazio-tasa % 40,8koa da, eta emakumeena % 40,0koa.

Jarduera- eta okupazio-tasak alderatuz gero, 2021ean bien arteko aldea ehuneko 8,5 puntukoa dela egiaztatzen da (11,6 puntu 2016an, horrek esan nahi du gazte gehiagok nahi zutela lan egin eta ezin zutela).

3.11 grafikoa 16 eta 29 urte bitarteko gazteen okupazio-tasaren bilakaera




Iturria: EUSTAT, Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta (BJA).

Lanbide-heziketa amaitu dutenen okupazio-tasa: % 79,1

2021ean, **Lanbide Heziketako erdi-mailako edo goi-mailako ziklo bat urtebete lehenago amaitu eta ikasten jarraitu ez duten pertsonen okupazioa % 79,1ekoa da**, aurreko urteko datua baino zertxobait handiagoa, baina 2018ko eta 2019ko emaitzen azpitik. Gizonen okupazioa emakumeena baino bi puntu handiagoa da.

3.12 grafikoa Lanbide Heziketako promozioen okupazio-tasaren bilakaera ikasketak amaitu eta urtebetera



Iturria: LANBIDE (Lan-munduan sartzeari buruzko estatistikak)


2018an unibertsitatea amaitu zutenen okupazio-tasa % 87

Unibertsitateko promozioak laneratzeari buruzko azterketa ez da egiten titulazioa lortu eta hurrengo urtean, Lanbide Heziketan bezala, baizik eta ikasketak amaitu eta hiru urtera. Horrek esan nahi du ez dela komeni emaitza horiek zuzenean alderatzea Lanbide Heziketa egin dutenen emaitzekin.

2018ko unibertsitate-promozioko landunen ehunekoa % 87koa da, 2021ean egindako inkestaren arabera, ikasketak amaitu eta hiru urtera. Ez dago alderik gizonen eta emakumeen artean.

3.13 grafikoa Euskal unibertsitateetako promozioen okupazio-tasaren bilakaera ikasketak amaitu eta hiru urtera

(sexuaren arabera, %)



Iturria: LANBIDE (Lan-munduan sartzeari buruzko estatistikak)

Langabezia-tasak behera egin du (16-29 urte): % 17,4

2021. urtean langabezia-tasa % 17,4koa izan zen 16 eta 29 urte bitarteko gazteentzat. Langabezia-tasa biztanleria aktiboaren gainean kalkulatu da, hau da, inkesta egin aurreko lau asteetan lana bilatzeko gestioen bat egin duen biztanleria aktiboaren gainean.


2021ean langabezia-tasak behera egin du aurreko urtearekin alderatuta, pandemiaren eraginak markatuta, eta 2019koaren antzeko zifrak berreskuratuta dira. Era berean, 16 urte eta gehiagoko Euskadiko biztanleria osoaren langabezia-tasarekiko distantzia gutxitu egin da, eta 2021ean ehuneko 10 puntukoa da.

Hurrengo grafikoa ikus daitekeenez, Euskadiko gazteen langabezia-tasak gora egiten duenean, gizonen eta emakumeen arteko aldea handitu egiten da. Gizonek, oro har, emakumeek baino langabezia-tasa handiagoak dituzte.

Gehienez bigarren mailako ikasketak (ez profesionalak) amaitu dituzten gazteei erreparatuz gero, ikusten da langabezia-tasa zertxobait handiagoa dela gazte guztien tasa baino (% 23,5 eta % 17,4, hurrenez hurren).

3.14 grafikoa 16 eta 29 urte bitarteko biztanleen langabezia-tasaren bilakaera

(sexuaren arabera, %)



Iturria: EUSTAT (Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta, BJA)


Iraupen luzeko langabezia-tasa: % 6,8

Iraupen luzeko langabezia-tasak 16 eta 29 urte bitarteko biztanleria aktiboaren ehunekoa adierazten du, zeinak ondoz ondoko hamabi hilabete baino gehiago daramatzen langabezian.

Azken urtean, igo egin da ehuneko hori, eta 2021ean % 6,8ra iritsi da. Zifra hori 16 urte eta gehiagoko biztanleria osoan ikusitakoaren gainetik dago (% 5,5).

3.15 grafikoa Iraupen luzeko langabezia-tasaren bilakaera 16 eta 29 urte bitarteko biztanleriaren eta 16 urte eta gehiagoko biztanleriaren artean

(%)



Iturria: EUSTAT (Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta, BJA)

Behin-behinekotasunak soldatapeko hiru langiletik biri eragiten die: % 65,5


16-29 urteko soldatapeko gazteen % 65,5k aldi baterako kontratua du, eta Euskadiko soldatapekoen % 29,1k.

Ez da alde handirik ikusten gizon eta emakume gazteen artean 2021ean, nahiz eta emakumeen behin-behinekotasun-tasa (% 66,5) gizonena (% 64,5) baino handiagoa izan.

Soldatapeko gazteen behin-behinekotasun-tasak ehunekorik txikiena izan zuen 2009an (% 41,1), krisiaren hasieran, eta orduetik 2018ra arte gora egin zuen, gorenera iritsi arte (% 68,1). 2020an apur bat behera egin zuen, eta berriro egin du gora 2021ean.

3.16 grafikoa Euskadiko 16 eta 29 urte bitarteko soldatapeko gazteen eta 16 urteko eta hortik gorako soldatapeko biztanle guztien aldi-baterakotasun tasaren bilakaera

(%)



Iturria: EUSTAT (Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta, BJA)


Lanaldi partzialeko enplegua baliorik altuenean: % 33,5

Lanaldi partzialeko enplegu-tasa, astean 30 orduetik behera lan egiten duten 16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuen ehunekoa adierazten duena, **igo egin da, 2021ean lan egiten duten gazteen herena izateraino.**

Emakumeek askoz ere partzialtasun handiagoa dute; emakume eta gizon gazteen arteko aldea oso esanguratsua da, emakumeen tasa gizonena baino ehuneko 15 puntu handiagoa baita: % 41,1 eta % 26,4, hurrenez hurren.

3.17 grafikoa Lanaldi partzialeko enpleguaren bilakaera 16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuen artean

(sexuaren arabera, %)




Iturria: EUSTAT (Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta, BJA)

Prestakuntzari lotutako enpleguak gora egin du: 10 gaztetik ia 7 dira: % 67,8

16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuena % 67,8k diote beren lana oso edo nahiko lotuta dagoela egindako ikasketekin. Gizonen ehunekoa emakumeena baino pixka bat handiagoa da (% 70,8 eta % 64,7, hurrenez hurren, 2020an).

3.18 grafikoa Prestakuntzaren arabera enpleguaren bilakaera lana okupazio nagusi duten 16 eta 29 urte bitarteko gazteen artean

(sexuaren arabera, %)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea, Emantzipazioa seriea eta Euskadiko gazteak 2020/2021)

Gazteen batez besteko soldata garbia 1.210 eurokoa da hilean

Euskadin **18 eta 29** urte bitarteko soldatapeko gazte baten **batez besteko soldata garbia** (bi aparteko ordainsari hainbanatuta barne) 1.210 eurokoa izan da 2021ean, eta % 8,3 jaitsi da 2010etik. **Emakumeek**, batez beste, **gizonek baino 224 euro gutxiago** kobratzen dute hilean.

3.19 grafikoa 18 eta 29 urte bitarteko soldatapeko gazteen batez besteko soldata garbiaren bilakaera

(sexuaren arabera, eurotan)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Etxebizitza-emanzipazioaren kostua Euskadin seriea)

Norberaren konturako lanaren indize txikia: % 3,8

Lanean ari diren **20 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, norberaren konturako enpleguaren ehunekoa**, hau da, autonomo edo enpresaburu gisa lan egiten dutenena, **% 3,8koa da 2021ean**. Ehuneko hau EB-27ko herrialdeen batez bestekoa (% 6,4) baino txikiagoa da.

3.20 grafikoa Norberaren konturako enpleguaren bilakaera 20 eta 29 urte bitartekoen artean, Euskadin eta EB-27n



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak lan-merkatuan), eta EUROSTAT (Gazteei buruzko datu estatistikoak, Youth data)


Laneko ezbehar-tasa nabarmen jaitsi da

Baja eragin duten 16 eta 34 urte bitarteko biztanleria okupatuaren **lan-istripuen kopurua nabarmen jaitsi da 2020an**, eta 1.000 pertsona landuneko 32,4ko tasa lortu da. Eraitza hori oso baldintzatuta dago Covid-19aren inpaktuarekin (konfinamenduak, ABEEak, teledana...).

Ezbehar-tasa askoz handiagoa da gizonen artean emakumeen artean baino, eta alde horretan eragiten du, funtsean, kolektibo baten eta bestearen sektore-banaketa desberdinak: gizonak presentzia handiagoa dute industrian eta eraikuntzan, ezbehar-tasa handienak dituzten sektoreak.

3.21 grafikoa 16 eta 34 urte bitarteko gazte landunen lan-ezbeharren indizearen bilakaera sexuaren arabera

(1.000 pertsonako tasa)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, OSALANen datuak (Laneko ezbehar-tasaren estatistikak) eta EUSTATenak (Biztanleria jardueraren arabera, BJA) oinarri hartuta


Pobrezia-egoeran dauden gazteen ehunekoa murriztu egin da

Benetako pobrezia-egoeran dauden **16 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa** (adin horretako gazte guztiekiko) **% 6 da 2020an** (% 9,2 2018an). Eusko Jaurlaritzaren Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestaren metodologiaren arabera, benetako pobrezia elikadura-, etxebizitza-, jantzi- eta oinetako-gastuei aurre egiteko baliabide ekonomiko (diru-sarrerak eta ondarea) nahikorik ez izatea jasotzen du.

Sexuaren arabera, aldeak ez dira oso handiak, baina 2020an emakume gazteek gizon gazteek baino 1,4 puntu handiagoa dute benetako pobrezia-tasa.

3.22 grafikoa Pobrezia errealeko egoeran dauden 16 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren bilakaera

(sexuaren arabera, %)



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila (Pobreziaren eta Gizarte Ezberdintasunen Inkesta seriea)


3.4. EMANTZIPAZIOA ETA ETXEBIZITZA

Batez besteko emantzipazio adina: 29,7 urte

2021ean, euskal biztanleriaren batez besteko emantzipazio-adina 29,7 urtekoa da. Zenbateko hori 18 eta 34 urte bitarteko gazteek emantzipatzeko egokitzat jotzen duten adina baino bost urte handiagoa da (2021ean 24,5 ziren, batez beste). Emantzipatzeko batez besteko adin hori **Europako batez bestekoa baino hiru urte berantiarroga da** (26,5). Ez dago alderik gizonen eta emakumeen artean aldagai horri dagokionez.

3.23 grafikoa Batez besteko emantzipazio-adina Euskadin eta EB-27n 2021ean

(urteak)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Emantzipazioa seriea) eta EUROSTAT (Gazteei buruzko datu estatistikoak, Youth data)


Emantzipazio-tasak behera egin du (18-34 urte): % 32,9

Euskadiko 18 eta 34 urte bitarteko pertsonen emantzipazio-tasak behera egin du. Izan ere, tasa hori % 38,5ekoa zen 2019an, eta **% 32,9koa da 2021ean**. Adinaren arabera oso handiak dira: 18-24 urtekoen taldean Euskadiko gazteen % 5,2 baino ez dago emantzipatuta; 25-29 urtekoen artean % 32,8 dira, eta 30-34 urtekoen artean gehienak emantzipatuta daude (% 71,5). Hiru adin-taldeek behera egin dute emantzipazio-tasan, 2019ko balioekin alderatuta.

Alde handiak daude gizonen eta emakumeen artean; 18-34 urtekoen artean, emakume emantzipatuen ehunekoa % 38,1 da, eta gizonena, % 27,7.

3.24 grafikoa 18 eta 34 urte bitarteko biztanleen emantzipazio-tasa 2021ean

(sexuaren eta adin-taldearen arabera, %)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Emantzipazioa seriea)

Etxebizitza bat erosteak edo alokatzeak ahalegin ekonomiko handia eskatzen die gazteei


2021ean, Euskadiko gazte batek bere soldata garbiaren % 52,9 erabili behar zuen etxebizitza libre bat erosteko hipoteka ordaintzeko. Alokairu librea aukeratuz gero, batez besteko soldata garbiaren % 51,1 ordaintzen zen hilero.

3.25 grafikoa Etxebizitza librea jabetzan hartzearen kostua Euskadin 2021ean, sexuaren eta adin-taldean arabera



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia. Etxebizitza-emantzipazioaren kostua Euskadin, 2021.

3.26 grafikoa Etxebizitza librea alokatzearen kostua Euskadin 2021ean, sexuaren eta adin-taldean arabera




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia. Etxebizitza-emantzipazioaren kostua Euskadin, 2021.

Alokairua da gazteen % 43,4ren emantzipazio-aukera

Alokairuan **emantzipatutako** 18 eta 34 urte bitarteko gazteen ehunekoak **gora egin du nabarmen azken urteotan, baina 2020an beherakada txiki bat izan du 2019arekin alderatuta**: % 43,4 eta % 45,1, hurrenez hurren.

3.26 grafikoa Euskadin alokairuan bizi diren 18 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatuen ehunekoaren bilakaera



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Emantzipazioa seriea).


3.5. OSASUNA

Gazte gehienek uste dute euren osasuna ona dela

Beren osasunari buruzko pertzepzioa ona da gazte gehientzat, baina bost gaztetik ia batek osasun-arazo kronikoak ditu, eta hamarretik ia batek antsietatea eta/edo depresioa du. **15-29 urteko gazteen % 2,4k uste du bere osasuna hala-moduzkoa, txarra edo oso txarra dela.** Nahiz eta emakume gazteek gizonek baino ehuneko handiagoan adierazten duten osasun txarra dutela, egia esan, ehunekoak oso txikiak dira, eta sexuen arteko aldea ez da bereziki esanguratsua.

3.27 grafikoa Osasun txarraren prebalentziaren bilakaera 15 eta 29 urte bitarteko gizon eta emakume gazteen artean

(sexuaren arabera, %)



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila (EAEko Osasun Inkesta seriea).

Euskadiko gazteen % 8,3k antsietate- edo depresio-sintomak izan ditu kontsulta egin aurreko lau asteetan, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Inkestaren arabera. Emakume gazteen ehunekoa % 11,4ra igotzen da, eta gizon gazteen artean, berriz, antsietate- edo depresio-sintomak txikiagoak dira (% 5,1).

3.28 grafikoa Antsietate- eta depresio-arazoaren prebalentziaren bilakaera 15-29 urte bitarteko gizon eta emakume gazteen artean

(sexuaren arabera, %)



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila (EAEko Osasun Inkesta seriea).


Hamar gaztetik zortzik baino gehiagok jarduera fisiko osasungarria egiten dute

15 eta 29 urte bitarteko gazteen **% 86,3k** dio **jarduera fisiko osasungarria neurritz edo intentsitatez egin duela kontsulta egin aurreko astean**. Gazteen jarduera fisikoak, kirola egitea baino modu zabalagoan ulertuta, gora egin du pixkanaka 2007tik (% 67,6) 2013ra (% 75,3), eta are gehiago 2018an (% 86,3).

Jarduera fisiko osasungarria egiten duten gizon gazteen ehunekoa emakumeena baino zertxobait handiagoa da, eta jarduera fisikoa apur bat hedatuago dago 25-29 urteko adin-taldean.

3.29 grafikoa Jarduera fisiko osasungarria egin duten 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen ehunekoa 2018an

(sexuaren eta adin-taldearen arabera, %)




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila (EAEko Osasun Inkesta seriea).

Gazteen obesitate-tasak behera egin du 2013 eta 2018 artean

15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 4,2ak obesitatea dauka, hau da, euren gorputz-masaren indizea 30 baino handiagoa da. Obesitate arazoak dituzten gazteen ehunekoa igo egin zen 2002tik (% 3,4) 2007ra (% 4,2) eta 2007tik 2013ra (% 5,4); 2018an, aldiz, zenbateko hori berriro % 4,2ra jaitsi da. Nolanahi ere, obesitatea duten gazteen ehunekoa Euskadiko biztanleria osoaren batez besteko ehunekoa (% 12,5) baino dezente txikiagoa da.

3.30 grafikoa 15 eta 29 urte bitarteko gazteen obesitate-tasaren bilakaera, eta tasa horren eta Euskadiko biztanleria osoaren tasaren arteko alderaketa

(%)



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila (EAEko Osasun Inkesta seriea).


Bost gaztetik batek alkohol gehiegi edo arrisku handiegian kontsumitu du

2017an (Eusko Jaurlaritzaren EAEko Adikzioen gaineko inkesten azken txostena) 15 eta 29 urte bitarteko biztanleen **% 20,3k alkohol gehiegi edo arrisku handiegian kontsumitu zuen inkesta egin aurreko hilabetean**. Horrek esan nahi du hilabete horretako egunen batean (laneguna zein asteburua izan) 65 gramo alkohol baino gehiago kontsumitu zituela (zortzi garagardo kaña baino gehiago, adibidez). Gehiegizko edo arriskuko kontsumo horrek behera egin du pixkanaka 2004tik, eta 2017an seriean erregistratutako baliorik txikiena lortu du.

2017an alkohol gehiegi edo arrisku handiegian kontsumitu zutela zioten gizon gazteen kopurua (% 25,3) gehiegizko edo arriskuko kontsumoa zuten emakume gazteena (% 15,3) baino askoz handiagoa zen.

3.31 grafikoa Galdeketa aurreko hilabeteko egunen batean alkohol gehiegi edo modu arriskutsuan kontsumitu duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren bilakaera

(sexuaren arabera, %)




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila (*Euskadi eta drogak seriea eta Euskadiko adikzioei buruzko inkesta*).

Tabakoaren kontsumoak behera egin du eta biztanleriaren batez bestekoa baino txikiagoa da

15 eta 29 urte bitarteko gazteen ia bosten bat ohiko tabako-erretzaileak dira (% 18,5); eta mutilen eta nesken artean ia ez dago alderik (% 18,9 eta % 18,2, hurrenez hurren). Erretzen duten gazteen proportzioa 15-74 urteko biztanleriaren batez bestekoa baino txikiagoa da (% 22,1).

3.32 grafikoa 15 eta 29 urte bitarteko ohiko erretzaileen ehunekoaren bilakaera

(sexuaren arabera, %)




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila (Euskadi eta drogak seriea eta Euskadiko adikzioei buruzko inkesta).

Kalamuaren ohiko kontsumoa egonkor 2012 eta 2017 artean

2017an Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen % 4,2k adierazi zuten kalamua egunero edo ia egunero (astean lau egunetan edo gehiagotan) **erre zuela inkesta egin aurreko hilean**. Alkoholarekin gertatzen den bezala, kalamuaren kontsumoa zabalduago dago gizon gazteen artean (% 7,3) emakume gazteen artean (% 1,0).

3.33 grafikoa Egunero edo ia egunero kalamua erretzen duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren bilakaera

(sexuaren arabera, %)



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila (Euskadi eta drogak seriea eta Euskadiko adikzioei buruzko inkesta).

Gazteen % 3,3 ziber-jazarpenaren biktima sentitu dira


2021ean, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 3,3k jazarpena jasan zuen etengabe mezuak bidaltzen zizkion, iruzkin desatseginak egiten zizkion, iraintzen zuen, mehatxatzen zuen norbaitengandik. Ehuneko horrek gora egin du azken neurketarekin alderatuta (2018), % 1,7ko emaitza izan baitzuen.

Ziber-jazarpenaren intzidentzia handiagoa da gizonen artean (% 3,9) emakumeen artean baino (% 2,7).

Adinak ere fenomeno horrekiko korrelazioa erakusten du, adinean gora egin ahala indizeak behera egiten baitu pixkanaka. Izan ere, ziberjazarpenak 15-19 urteko pertsonen % 4,5i, 20-24 urteko gazteen % 3,2ri eta 25-29 urteko gazteen % 2,2ri eragiten die.

3.34 grafikoa 15 eta 29 urte bitarteko Euskadiko gazteak, norbaitek etengabe mezuak bidaltzen zizkiela, iruzkin desatseginak egiten zizkiela, iraintzen zuela, mehatxatzen zuela eta abar sentitu dutenak. 2021

(sexuaren eta adin-taldean arabera, %)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko gazteak 2020/2021.


15-29 urteko gazteen % 17,5ek arriskuko sexu-harremanen bat izan du azken urtean

2020an 15 eta 29 urte bitarteko nesken % 18,6k adierazi zuen aurreko urtean nahi gabeko haurdunaldia izateko edo sexu-transmisioko gaixotasunen bat hartzeko arriskua zekarren sexu-harremanen bat izan zutela. Adin bereko mutilen kasuan, ehunekoak zertxobait txikiagoa da, % 16,4koa.

20 eta 24 urte bitarteko gizonen eta emakumeen kolektiboa da arriskuko sexu-harremanak neurri handienean izan dituen (% 19,4).

3.35 grafikoa Galdeketa aurreko urtean sexu-harreman arriskutsuren bat izan duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren bilakaera, 2020

(sexuaren eta adin-taldearen arabera, %)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea).

Nerabeen haurdunaldi-tasa: 4,9 15-17 urte bitarteko 1.000 emakumeko

Nerabeen haurdunaldi-tasa (15 eta 17 urte bitarteko neska nerabeen urte bateko jaiotza-kopuruaren eta haurdunaldiaren borondatezko etenduren kopuruaren gehikuntza, adin-talde bereko 1.000 emakumeko) **4,9 zen adin-talde horretako 1.000 emakumeko 2020an**. Emaitza horrek igoera adierazten du aurreko urtearekin alderatuta (4, mila emakumeko 2019an).

3.36 grafikoa Euskadiko 15 eta 17 urte bitarteko nesken nerabegaroko haurdunaldien tasaren bilakaera

(lurralde historikoen arabera, 1.000 pertsonako tasa)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren datuak (Haurdunaldiaren borondatezko etenduren erregistroa) eta EUSTATenak (Biztanleen udal estatistika) abiapuntu hartuta.

Trafiko-istripuak eta suizidioa dira gazteen heriotza-kausa ohikoena

Trafiko-istripuengatiko heriotza-tasa 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean **3,3 pertsonakoa da adin-tarte horretako 100.000 gazteko** 2020an. Adierazle horrek 2015etik beheranzko joera izan badu ere, 2020an goranzko inflexioa gertatu da.

3.37 grafikoa Nork bere buruaz beste egiteagatiko edo trafiko istripuengatiko heriotzen tasaren bilakaera 15 eta 29 urte bitarteko Euskadiko gazteen artean

(100.000 pertsonako tasak)



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila (Hilkortasunaren erregistroa)

Bi kasuetan **tasak handiagoak dira gizon gazteen artean emakume gazteen artean baino**: 2020ko trafikoagatiko heriotza-tasak 100.000 biztanleko 6,4koak dira gizon gazteen artean eta 0,0koak emakume gazteen artean. Suizidioaren kasuan, adin bereko 100.000 gizon gazteekiko tasa 3,9koa da, eta emakumeena, berriz, 1,4koa adin bereko 100.000 emakumeekiko.

3.6. GIZARTE-EKINTZA ETA BERDINTASUNA


Genero-indarkeriagatik salaketa jarri zuten 8,6 emakumek (15-29 urte) 1.000 emakumeko

Emakumeen aurkako indarkeriaren tasa orokorra, 2021ean, 8,6koa da 15-29 urteko 1.000 emakumeko. Tasa horrek adierazten du zenbat emakumek jarri duten salaketa (edo salaketa bat baino gehiago) genero indarkeriagatik, adin-talde bereko 1.000 emakumeko.

Emakume gazteei dagozkien tasak 29 urtetik gorako emakumeenak baino **altuagoak** dira serie osoan zehar. Horrek ez du esan nahi, nahitaez, emakume gazteek genero-indarkeria handiagoa jasaten dutenik; aitzitik, egoera horiek neurri handiagoan salatzen dituzte, tasak arrazoi horrengatik salaketa jarri duten emakumeak zenbatzen baititu.

3.38 grafikoa Emakumeen aurkako indarkeriaren tasaren bilakaera 15-29 urteko eta 30 urteko eta gehiagoko emakumeen artean

(1.000 emakumeko tasa)




Iturria: Segurtasun Saila. Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza. Azterlan eta Analisisien Alorra.

Hiru emakume gazteak batek dio gizonak aukera gehiago dituela enplegua lortzeko

Kualifikazio eta esperientzia bera duen gizon batek eta emakume gazte batek parte hartzen duten hautaketa-prozesu batean, **2020an, emakumeen % 33,6k uste du bere aurkari maskulinoak berak baino aukera gehiago** izango lituzkeela, **gizon izateagatik. Gizonen % 6,7k iritzi bera dute.** Emakume gazteen % 5,5ek eta gizon gazteen % 13,8k soilik uste dute emakumeak aukera gehiago izango lituzkeela emakume izateagatik.

3.39 grafikoa Lana lortzeko diskriminazio-sentsazioaren bilakaera 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen artean

(sexuaren arabera, %)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea)

15 eta 29 urte bitarteko lau emakumetik hiruk beldurra sentitzen dute beren herrian edo auzoan gaez bakarrik dabiltzanean

15 eta 29 urte bitarteko hamar gaztetik lauk diote beldurra sentitzen dutela beren herrian edo auzoan gaez bakarrik ibiltzen direnean (% 42,2). Hala ere, beldurraren pertzepzio hori ez da berdina gizon eta emakume gazteen artean; **emakumeen artean, % 74,1ek diote beldurra sentitzen dutela beren udalerrian gaez bakarrik ibiliz gero, eta gizonen artean, berriz, % 11,9k.**

Gainera, kalean gaez bakarrik ibiltzeko beldurra nabarmen handitu da aurreko neurketekin alderatuta. Emakumeen artean bikoiztu egin da 2016 eta 2020 artean, eta gizonen artean ere igoera esanguratsua izan da, aurreko urteekin alderatuta.

3.40 grafikoa Kalean gaez bakarrik ibiltzeko beldurra dutela dioten 15-29 urteko emakume eta gizonen ehunekoaren bilakaera



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea)


3.7. BALIOAK ETA JARRERAK

Asoziazionismo-tasa (15-29 urte): % 43,9

2021ean, **Euskadiko gazteen % 43,9 elkarteren bateko kide ziren**. Asoziazionismo-tasa handiagoak daude gizonen artean (% 46,8) emakumeen artean baino (% 40,9), neurri handi batean, kirol-elkarteetan gizonak presentzia handiagoa dutelako.

3.41 grafikoa 15 eta 29 urte bitarteko gazteen asoziazionismo-tasaren bilakaera

(sexuaren arabera, %)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea).


Politikarekiko interesak handitzen jarraitzen du gazteen artean

2020an, gazteen (15-29 urte) erdiek diote politikan oso edo nahiko interesatuta daudela (% 51,4).

2008. urtearekin alderatuta, ia hirukoiztu egin da interes handia edo nahikoa interes duten gazteen ehunekoa. COVID-19ri buruzko erabaki politikoen jarraipenak eragina izan dezake, neurri handi batean, interesaren gorakadan, eta, nolabehi ere, goranzko joera izan du azken urteotan.

3.42 grafikoa 15 eta 29 urte bitarteko gazteen politikarekiko interesaren bilakaera

(sexuaren arabera, %)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak seriea eta Lehendakarietzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetea

Gazteen erdiek baino gehiagok modu aktiboagoan parte hartu nahi dute gai publikoetan

2020an, 30 urtetik beherako gazteen % 55,1ek adierazten du gai publikoetan modu aktiboagoan parte hartzeko nahia. Ehuneko hori, alde handiz, 2000. urteaz geroztik galdera horri dagokionez erregistratutako handiena da. Emakume gazteek gainditu egiten duten gizonei dagokien ehunekoa (ehuneko 10 puntu gehiago).

3.43 grafikoa 15 eta 29 urte bitarteko gazteek gai publikoetan parte-hartze aktiboagoa izateko duten nahiaren bilakaera

(sexuaren arabera, %)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea).


Euskadiko gazteen % 41,8k modu jasangarriaren kontsumitzen du

Kontsumo jasangarriaren indizeak ingurumena zaintzeari lotutako jokabide hauek hartzen ditu kontuan: **gutxi ontziratutako edo gutxi paketatutako produktuak erosten saiatzea, norberaren poltsa edo erosketa-orga eramatea, etxeko zaborra hondakin motaren arabera bereiztea, uraren kontsumoa mugatzea eta garraio publikoa erabiltzea edo autoa partekatzea.**

Pertsona batek modu jasangarriaren kontsumitzen duela pentsatzeko, iraunkortasunarekin lotutako bost jokabide horietako lau egin behar ditu gutxienez. **2021ean, modu iraunkorrean kontsumitzen zutenen ehunekoa % 41,8 zen**, 2016an baino hamabi puntu gehiago (% 29,8). Emakume gazteek gizonak baino modu jasangarriagoan kontsumitzen dute: % 47,8 eta gizon gazteen % 35,7.

3.44 grafikoa 15 eta 29 urte bitarteko gazteen kontsumo jasangarriaren indizearen bilakaera

(sexuaren arabera, %)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea).

Garraio publikoaren eta bizikletaren erabilera handitu dira

2021ean, **15 eta 29 urte bitarteko euskal gazteen % 59,3k adierazi zuten egunero edo ia egunero erabiltzen zuela garraio publiko kolektiboa** (autobusa, trena, metroa, tranbia). Ehuneko hori 2016an erregistratutakoa (% 39,8) baino ia ehuneko hogeita puntu handiagoa da.

Gazteek **bizikleta egunero edo ia egunero erabiltzeak ere gora egin du**, ohiko joan-etorriak egiteko. Ehuneko hori 2016an % 8,1 izatetik 2021ean % 23,8 izatera igaro da.

3.45 grafikoa Egunero edo ia egunero garraio publiko kolektiboan eta bizikletan mugitzen diren 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren bilakaera



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea).


3.8. AISIA

Lau gaztetik hiruk jarduera artistikoren bat egiten dute

2021ean, 15-29 urteko **gazteen % 76,8k** adierazi zuen azken urtean honako **jarduera artistikoren bat egin zuela**: argazkigintza, musika-tresna bat jotzea, margotzea, idaztea, dantza, bideoa eta ikus-entzunezko produktuak, abesbatza edo musika-talde batean abestea, antzerkia, bertsolaritza edo beste arte plastiko batzuk.

Ehuneko hori aztertutako seriean ikusitako en artean handiena da, eta duela gutxi oso jauzi nabarmena izan du (% 55 2016an). Emakumeek gizonek baino partaidetza-tasa handiagoak dituzte jarduera mota horietan, baina aldeak nabarmen murriztu dira.

3.46 grafikoa Azken urtean jarduera artistikoak egin dituzten Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren bilakaera



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea) eta Kulturaren Euskal Behatokia (Euskal Herriko kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko estatistika).


Sare sozialen eguneroko erabilerak gora egin du 2018 eta 2021 artean

Euskadiko 15-29 urteko pertsonen % **84,3k** hiru sare sozial edo gehiago erabiltzen ditu egunero. Ehuneko hori nabarmen handitu da 2018tik, bai pandemiaren, konfinamenduaren eta abarren ondorioz, bai TikTok bezalako sare sozial berriak hedatu eta ospetsu bihurtu direlako.

Gazteen % 12,7k **euskara erabiltzen du hizkuntza nagusi gisa** sare sozialetan; Gipuzkoan, berriz, % 22,9k.

3.47 grafikoa Hiru sare sozial edo gehiago egunero erabiltzen duen 15 eta 29 urte bitarteko gazteen bilakaera

(sexuaren eta adin-taldearen arabera, %)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak eta Euskadiko gazteak eta sare sozialak serieak).


Gazteen erdiak baino gehiagok jarduera fisikoa egiten du maiz

Euskadiko gazteen % 56,4k astean hirutan edo gehiagotan egiten du jarduera fisikoa, eta ehuneko horrek gorakada nabarmena izan du 2012tik (% 40,2).

Hala ere, gizon eta emakume gazteen arteko aldea mantendu egiten da, nahiz eta **emakumeen artean jarduera fisikoa areagotu egin den**. 2016an jarduera fisikoa modu erregularrean egiten zutela adierazi zuten emakumeen proportzioa % 37koa zen, baina 2021ean ehuneko hori % 52koa da; gizonen kasuan, proportzioa ia egonkor mantendu da (% 60,7 2021ean eta % 60,3 2016an).

3.48 grafikoa 15 eta 29 urte bitarteko gazteen jarduera fisiko erregularraren bilakaera

(sexuaren eta adin-taldearen arabera, %)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea)


Gazteen ia erdiek libururen bat irakurri dute beren aisialdian azken hilabetean

Euskadiko gazteek irakurtzeko duten ohiturak atzerakada txiki bat erakusten du 2021ean; izan ere, % 48,8k dio libururen bat irakurri duela azken hilabetean, eta 2018an % 52tik gorakoa zen. Atzerakada hori amankomuna da gizonentzat eta emakumeentzat.

Serie osoan zehar ikusten da irakurtzeko ohitura zabalduago dagoela emakume gazteen artean gizon gazteen artean baino (% 57,9 eta % 39,6, hurrenez hurren, 2021ean).

3.49 grafikoa 15 eta 29 urte bitarteko gazteen irakurtzeko ohituraren bilakaera

(sexuaren arabera, %)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea) eta Kulturaren Euskal Behatokia (EAEko kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko estatistika eta EAEko parte-hartzea kulturalari buruzko inkesta).

Adin-tarteak kontuan hartuta, egiaztatu da 2021ean **25 eta 29** urte bitarteko pertsonen dutela irakurtzeko ohitura handiena, baina emaitza hori ez da mantendu aztertutako aldian.

3.50 grafikoa 15 eta 29 urte bitarteko gazteen irakurtzeko ohituraren bilakaera

(adin-taldeen arabera, %)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea) eta Kulturaren Euskal Behatokia (EAEko kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko estatistika eta EAEko parte-hartzea kulturalari buruzko inkestak).


Euskaraz irakurtzeko ohiturak pixka bat gora egin du

Euskaraz irakurtzen duten gazteen ehunekoak gora egin du pixkanaka, aurreko urteekin alderatuta. Hala ere, hazkundea ez da euskararen ezagutzaren hazkundearen parekoa. 2012tik 2020ra, euskaraz ondo hitz egiten dutela dioten gazteen ehunekoa % 62,0tik % 80,3ra igo da, aldiz, euskarazko irakurketaren hazkundea 4,1 puntukoa izan da 2012tik 2021era.

Adin-taldean arabera, irakurketarekin oro har gertatzen denaren kontrako ikusten da, eta euskarazko irakurketa-ehuneko handiagoak ikusten dira gazteen artean. Horrek esan nahi du euskarazko irakurketak lotura handiagoa duela ikasketekin aisialdiarekin baino.

3.51 grafikoa 15 eta 29 urte bitarteko gazteek euskaraz irakurtzeko ohituraren bilakaera

(adin-taldean arabera, %)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea)


Lagunekin euskararen erabilerak gora egin du 16-24 urteko gazteen artean

Lagunekin euskara erabiltzeak goranzko joera izaten jarraitzen du gazte euskaldunen artean: 2001etik 2021era bitartean, metatutako irabazia ehuneko 10 puntu baino gehiagokoa da, eta % 24,8tik % 37,8ra igaro da batez ere euskara edo euskara eta gaztelania berdinean erabiltzen dituzten gazte euskaldunen ehunekoa, lagunekin harremanetan daudenean.

Lagunekin euskara erabiltzeak Gipuzkoan jarraitzen du nabarmentzen; izan ere, 16 eta 24 urte bitarteko gazteen % 63,6ek lagunekin harremanetan jartzeko erabiltzen du. Ehuneko hori 2021ean Bizkaian % 24,5koa zen eta Araban % 27,5koa.

3.52 grafikoa 16 eta 24 urte bitarteko gazte euskaldunen euskararen lagunarteko erabileraren bilakaera

(Iurralde historikoaren arabera, %)



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politikako Saila (Inkesta Soziolinguistikoa)

3.9. EUSKADIKO GAZTEEN EGOERAREN EZAUGARRI NAGUSIAK

3.1 taula Euskadiko gazteen egoera, 2022

ESPARRUA	INDARGUNEAK	AHULGUNEAK
Hezkuntza	<ul style="list-style-type: none"> • Eskola-uzte goiztiarraren beherakada (% 4,8 2021ean). • Goi-mailako hezkuntzako titulazio-tasa % 62,9ra iristen da 30 eta 34 urte bitarteko artean. • Euskara komunikazio-hizkuntza duten unibertsitateaz kanpoko ikasleen ehunekoak gora egiten jarraitzen du. • Hirueletasuna areagotu da. 	<ul style="list-style-type: none"> • Lurralde historikoen arteko alde nabarmenak euskararen ezagutzan era erabileran.
Enplegua eta ekonomia-egoera	<ul style="list-style-type: none"> • 16-29 urteko gazteen okupazio-tasak gora egin du. • Lanbide-heziketako ikasketak egin ondoren laneratzea handia da. • Unibertsitatea amaitzen dutenen enplegu-tasa azken hamarkadako altuenetakoa da. • Langabezia-tasak behera egin du eta pandemiaren aurreko mailetara itzuli da. • Enplegu egokitu altua da (prestakuntzarekin lotutako enplegua). • Laneko ezbehar-tasaren beherakada nabarmena azken hamarkadan. • Nahitaezko emigrazioaren itzaropenak % 10etik behera jarraitzen du. • Pobrezia-egoeran dauden gazteen ehunekoak behera egin du. • 18-29 urteko gazteen % 2,1ek jasotzen du DSBEa 2021ean, eta ehunekoak beherantzko bilakaera erakusten du. 	<ul style="list-style-type: none"> • Gazteen langabezia-tasa Europakoaren gainetik dago. • Enpleguaren behin-behinekotasuna handia da oraindik. • Lanaldi partzialeko enpleguak gora egin du da eta emakumeen eta gizonen arteko aldeak areagotu egin dira. • Gazteen soldata-maila txikia da, eta gizonen eta emakumeen arteko aldea mantendu egiten da. • Norbere konturako enplegu-tasa txikia. • Genero-desberdintasunaren pertzepzioa lana eskuratzean. • Baztertuta geratzeko arriskuan dauden gazteak laneratzeko zailtasunak. • Gazte landunek enplegua galtzeko edo prekarizatzeko arriskuaren pertzepzioa handitzea. • Lana da gazteen kezka nagusia. • Lehen seme-alaba izateko batez besteko adinak gora egiten jarraitzen du. • Seme-alabak izan nahi dituzten gazteen kopuruak behera egin du pixkanaka.
Emantzipazioa eta etxebizitza	<ul style="list-style-type: none"> • Gazte gehienek alokairuko etxebizitza babestua eskatzen dute. • 5.000 gaztek jasotzen dute Gaztelagun programaren laguntza. 	<ul style="list-style-type: none"> • 30 urtetik beherakoaren prestakuntza-aldia luzatzea. • Gazte gehienak familiaren mende daude ekonomikoki. • Emantzipazio-tasaren jaitsiera. • Emantzipazio berantiarra (ia 30 urte, batez beste). • Emantzipatu gabeko hiru pertsonatik batak etxebizitza bat behar du. • Hipoteka edo alokairu-etxebizitza ordaintzeko finantza-ahalegina soldataren erdia baino gehiago da. • Etxebizitza bakarrik eskuratzeko zailtasunak.

ESPARRUA	INDARGUNEA	AHULGUNEA
Osasuna	<ul style="list-style-type: none"> Oro har, gazte gehienek beren osasun-egoerari buruzko pertzepzio ona dute. Tabakoaren, alkoholaren eta kanabisaren kontsumoak behera egin du (2017ko datuak). Nerabeen haurdunaldi-tasa eta haurdunaldiaren borondatezko etendurak jaitsi egin dira. Jarduera fisiko osasungarria egiten dutenen ehuneko esanguratsua (% 86). Haurren obesitate-tasak behera egin du. Gehienak abortuaren eta eutanasiaren alde daude. Sexu-aniztasunarekiko babez zabala. 	<ul style="list-style-type: none"> Hamar pertsonatik batek dio antsietate-eta/edo depresio-sintomak esperimentatzen dituela. Joko patologikoak gazteen % 1i eragiten dio. Interneten erabilera patologikoa gazteen % 2an erregistratu da. Gazteen % 17,5ek sexu-harreman arrisku-suren bat izan du. Obesitate-maila handiagoa maila sozioekonomiko baxuko gazteen artean. Suizidioa eta norberak eragindako lesioak dira heriotzaren kanpoko lehen kausa (gai-xotasunarekin loturarik ez dutenak). Gazteen osasun mentalarekiko kezka gero eta handiagoa.
Gizarte-ekintza eta berdintasuna	<ul style="list-style-type: none"> Gazte gehienek feministatzat dute beren burua. Gazteek mobilizazio feministetan parte hartzea. 	<ul style="list-style-type: none"> Prestakuntza eta esperientzia berarekin gizonen lan-aukera gehiago dituztela hautematen da. Beldurraren sentimendua nabarmen areagotu da emakumeen artean, beren herrian edo auzoan gauzez bakarrik ibiltzen direnean. Emakumeen aurkako indarkeriaren tasa orokorra 1.000 biztanleko 8,6koa da gazteen artean. Tratu txar modu berrien eragina.
Balioak eta jarrerak	<ul style="list-style-type: none"> Politikarekiko interesa eta gai publikoetan modu aktiboagoan parte hartzeko nahia handitu dira. Boluntariotzako jardueretako parte-hartze mailari eutsi zaio (% 11,5). Hamarretik seik manifestazio edo mobilizazio sozialetan parte hartu dute. Gaztetasunaren ziberaktibismoa areagotu da. Etorkinen sarrera ahalik eta gehien errazteko akordioa Gazteen artean kontsumo jasangarria handitzea. 	<ul style="list-style-type: none"> Alderdi politikoen begikotasun eta balorazio txikia. Asoziazionismo-tasa ez da % 50era iristen, eta gehienek kirol-elkarteetan parte hartzen dute. Politikarekiko interesa handitu den arren, interes hori gazteen erdira baino ez da iristen. Gazteen asoziazionismo-tasak pixka bat behera egin du. Gora egin du lehen boluntarioak zeudela eta orain ez daudela onartzen duten gazteen proportzioak.
Aisia	<ul style="list-style-type: none"> Sare sozialen erabileraren hazkundera. Lagunartean euskararen erabilerak gora egin du. Euskararen irakurtzeko ohitura handitzea. Jarduera fisiko gehiago egitea. Jarduera artistikoaren hazkunde handia. 	<ul style="list-style-type: none"> Sare sozialetan euskararen erabileraren ehuneko desberdina da lurralde historikoen arabera. Irakurketaren beheranzko joera arina.



4.

V. GAZTE PLANAREN ESPARRU ESTRATEGIKOA

4.1. JARDUTEKO PRINTZIOAK

V. Gazte Planak bere egiten ditu Gazteriaren Euskal Legeak gazteriaren arloan proposatzen dituen euskal administrazioaren jarduna gidatu eta bideratu behar duten printzipio orokorrak.

- Aukera-berdintasuna**   **Balioen sustapena**
- Unibertsaltasuna, eta aniztasuna nahiz desberdintasuna errespetatzea**   **Informazioa**
- Gazte-ikuspegia txertatzea**   **Kalitatea, berrikuntza eta ikaskuntza soziala**
- Ekintza positiboa**   **Euskararen erabileraren normalizazioa**
- Emakumeen eta gizonen berdintasuna**   **Kulturartekotasuna**

Atzerritar jatorriko gazteen integrazio osoa eta inklusioa, eta arreta ematea babesgabetasun-, bazterketa- nahiz pobrezia-egoerei, edo pobrezian sartzeko arrisku-egoerei, edo kalteberatasuneko beste egoera batzuei
- Elkarlana eta koordinazioa**   **Elkarrizketa zibila**
- Erantzukizun publikoa**   **Elkarrizketa zibila**
- Plangintza eta ebaluazioa**   **Irisingarritasun unibertsala, gizarte-inklusioa eta bizimodu independentea**
- Hurbiltasuna**   **Euskal sektore publikoak eta hirugarren sektore sozialeko erakundeek beharrezko baldintzak sustatuko dituzte**
- Gazteen partaidetza demokratikoa** 

4.2. 2026ko V. GAZTE PLANAREN ARDATZ ESTRATEGIKOAK

2026ko V. Gazte Plana Euskadiko gazteei buruzko diagnostikoaren ondorioetan, IV. Gazte Planaren ebaluazio-txostenean identifikatutako erronketan eta plana egiten parte hartu duten pertsona guztien ekarpenetan oinarrituta osatu da.

Elementu horiei guztiei esker, 2026ko Gazte Plana 4 ardatz estrategikotan, 15 esku-hartze arlotan, 33 helburutan eta 73 jarduera-ildotan zehaztu ahal izan da.



4.3. HELBURUAK ETA JARDUKETA-ILDOAK

1. ARDATZA: EMANTZIPAZIOA: (BIZI)		
Arloa	Helburua	Jarduketa-ildoak
1. ENPLEGUA	1.1. Gerturatzeko abiadura handiagoa lortzea hezkuntza- eta lan-arloaren trantsituan	1.1.1. Prestakuntza lan-merkatuaren eskaerari egokitzea 1.1.2. Prestakuntza-sistema dualaren garapen integrala 1.1.3. Talentua itzultzen eta erakartzen laguntzeko programak ezartzea eta indartzea
	1.2. Kalitatezko enplegua duten gazteen kopurua handitzea	1.2.1. Lehen lan-esperientziak bultzatzea 1.2.2. Esperientzia duten gazteak kontratatuzko laguntza 1.2.3. Kalitatezko enplegu-aukerak sustatzea, bereziki sektore estrategikoetan 1.2.4. Gizarte- eta lan-arloko informazioa eta orientazioa hobetzea 1.2.5. Enplegarritasuna aktibatuzko eta hobetzeko prestakuntza indartzea
	1.3. Prebentzio-kultura eta laneko segurtasuna eta osasuna hobetzea	1.3.1. Laneko osasunari eta arriskuen prebentzioari buruzko informazioa, sentsibilizazioa eta prestakuntza bultzatzea 1.3.2. Lan-ingurunean osasunaren zaintza indartzea, ezbehar-tasa prebenitzeko
	1.4. Gazte ekintzaileen kopurua handitzea	1.4.1. Bokazio eta ekimen ekintzaileak bultzatzea, bereziki emakumeen artean 1.4.2. Ekintzailetza eta gizarte-ekonomia sustatzea 1.4.3. Landa-ingurunean eta itsasertzean enplegua eta gazte-ekintzailetza sustatzea
	1.5. Baztertuta geratzeko arriskuan dauden gazteen laneratzean aurrera egitea	1.5.1. Langabezian eta egoera zaugarrian dauden gazteen prestakuntza eta gaikuntza hobetzea 1.5.2. Orientazioa eta laguntza espezifiko indartzea
	1.6. Tratu-berdintasunean eta diskriminaziorik ezean aurrera egitea	1.6.1. Enplegurako sarbidean eta lanbide-sustapenean aukerak parekatzeko neurriak hartzea 1.6.2. Emakumeen eta gizonen soldatak parekatzeko ekintzak bultzatzea 1.6.3. Lana eta familia bateragarri egitea bultzatzea
2. ETXEBIZITZA	2.1. Etxebizitza eskuratzeko aukerak zabaltzea	2.1.1. Etxebizitza babestuen lehentasunezko erreserba ezartzea 2.1.2. Laguntza ekonomikoen sistema eta alokairua sustatzeko programak indartzea
3. ERRENTA	3.1. Errenta erabilgarria hobetzea	3.1.1. Gazteen emantzipazioa errazteko laguntza eta mailegu berriak ezartzea
4. KOHESIOA	4.1. Baztertuta geratzeko arrisku-egoerak prebenitzea	4.1.1. Diru-sarrerak bermatzeko tresnen bidez oinarritzko premiak estaltzeko behar beste baliabide bermatzea 4.1.2. Kalteberatasun-egoerak prebenitzeko eta esku hartzeko ekintzak bultzatzea
5. ERRESILIENTZIA	5.1. Emantzipazioarako kultura-eraldaketa bultzatzea	5.1.1. Emantzipazio-prozesuan aholkularitza- eta laguntza-ekintzak indartzea

2. ARDATZA: GARAPENA (GOZATU)		
Arloa	Helburua	Jarduketa-ildoak
6. OSASUN INTEGRALA	6.1. Osasun mentala eta emozionala hobetzea	6.1.1. Ongizaterako eta osasun mentalerako hezkuntza 6.1.2. Arreta eta prebentzioa antsietate- eta depresio-egoerarako
	6.2. Arrisku-portaerak eta/edo adikzioak (sustantziarekin edo gabe) prebenitzea gazteen artean, eta kontsumitzen hasteko adina atzeratzea	6.2.1. Tabakoaren, alkoholaren, cannabisaren eta beste substantzia batzuen kontsumoaren arriskuei buruzko sentsibilizazioa eta prebentzioa 6.2.2. Jokoari eta sare sozialei lotutako arriskuen inguruko sentsibilizazioa eta prebentzioa 6.2.3. Trafiko-istripuen inguruko sentsibilizazioa eta prebentzioa
	6.3. Sexu-bizitza osasuntsua sustatzea	6.3.1. Heziketa afektibo-sexuala bultzatzea 6.3.2. Sexu-transmisiozko gaixotasunak prebenitzeko neurriak indartzea
	6.4. Ohitura osasungarriak sustatzea	6.4.1. Elikadura osasungarria sustatzea 6.4.2. Jarduera fisikoa eta aisialdi osasungarria sustatzea
7. HEZKUNTZA	7.1. Aukera-berdintasunean aurrera egitea	7.1.1. Derrigorrezko eskolaldiaren ondorengo ikasketak egiteko eta amaitzeko neurriak hartzea, batez ere zailtasunak dituzten ikasleen artean 7.1.2. Eskola inklusiboa, hezkidetzakoa eta multikulturala sustatzea 7.1.3. Gaitasun handiko ikasleentzako hezkuntza-arreta
	7.2. Berdintasunerako eta arrisku-egoeren prebentziorako hezteak	7.2.1. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako prestakuntza eta genero-indarkeriaren prebentzioa 7.2.2. Arrisku-egoerak prebenitzeko prestakuntza
	7.3. Gazte eleaniztun gehiago lortzea	7.3.1. Hezkuntzaren eremu formalean euskara sustatu eta indartzea 7.3.2. Hizkuntza-gaitasunak garatzea beste hizkuntza batzuetan, mundura gehiago irekitzeko oinarri gisa
	7.4. Ikertzaile gazteen presentzia handitzea	7.4.1. Ikerketa-bokazioak bultzatzea etapa goiztiarretatik 7.4.2. Gazte ikertzaile eta teknologoentzako laguntza, bereziki emakume ikertzaileentzako
8. KULTURA ETA EUSKARA	8.1. Kulturaren kontsumoa eta gazteei zuzendutako zein gazteek sortutako kultura-jarduerak bultzatzea	8.1.1. Kultura-jarduerak sustatzea 8.1.2. Teknologiaren bidez kultura eskuratzeko modu berriak bultzatzea 8.1.3. Irakurtzeko ohitura sustatzea
	8.2. Euskararen erabilera sustatzea	8.2.1. Aisialdiko eremuetan euskararen erabilera bultzatzea eta kultura-produktuen euskarazko kontsumoa sustatzea 8.2.2. Euskara ikusarazten eta balioesten duten ekimenak bultzatzea
9. AISIA ETA DENBORA LIBREA	9.1. Aisialdian hezkuntza bultzatzea	9.1.1. Aisialdi hezitzailean parte hartzen duten eragileen sistema babestea eta indartzea
		9.1.2. Aisialdiko eta denbora libreko alternatibak sustatzea

3. ARDATZA: ERAGINA (ERALDATU)		
Arloa	Helburua	Jarduketa-ildoak
10. PARTAIDETZA	10.1. Gazteen parte-hartzea eta aintzatespena bultzatzea	10.1.1. Gazteek parte hartzeko eredu eta elkarrizketa-gune berriak bultzatzea 10.1.2. Gazte asoziazionismoaren ekimenak babestea 10.1.3. Gazte-boluntarioria bultzatzea 10.1.4. Talentu gazteen aintzatespena indartzea
11. BERDINTASUNA	11.1. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean eta erantzunkidetasunean aurrera egitea	11.1.1. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea gizarte osoan 11.1.2. Emakumeen eta gizonen kontziliario erantzunkidea bultzatzea
	11.2. Emakumeen aurkako indarkeria errofik kentzea	11.2.1. Sentsibilizazio- eta prebentzio-neurriak hartzea (zero tolerantzia) 11.2.2. Arreta integrala eta kaltearen konponketa indartzea
	11.3. Emakumeak ahalduntzea	11.3.1. Emakume gazteen ahalduntze pertsonalerako eta kolektiborako laguntza 11.3.2. Emakume gazteek eremu eta gune guztietan parte har dezaten bultzatzea
12. ANIZTASUNA	12.1. Sexu- eta genero-aniztasuna txertatzea	12.1.1. Sexu- eta genero-aniztasuna ikusarazteko eta bermatzeko neurriak bultzatzea
	12.2. Aniztasun funtzionala txertatzea	12.2.2. Irigarritasun unibertsala eta bizimodu independentea sustatzea
13. BIZIKIDETZA	13.1. Indarkeria eta tratu txar egoerak errofik kentzea	13.1.1. Gurasoen aurkako indarkeriaren eta tratu txarren detekzioa, prebentzioa eta arreta indartzea 13.1.2. Eskolako jazarpenaren (bullying eta ziberbullying) detekzioa, prebentzioa eta arreta indartzea 13.1.3. Aisialdian, kirolean eta kalean indarkeriaren detekzioa, prebentzioa eta arreta indartzea
	13.2. Balioetan hezteak	13.2.1. Herritartasun globalerako, giza eskubideetarako, bizikidetzarako eta aniztasunerako hezkuntza sustatzea
14. KLIMA-ALDAKETA	14.1. Jasangarritasunarekin eta planetaren zaintzarekin konprometitutako gazte gehiago izatea	14.1.1. Ingurumen-hezkuntza, ekonomia zirkularra eta kontsumo arduratsua bultzatzea 14.1.2. Mugikortasun jasangarria sustatzea

4. ARDATZA: BEHAKETA ETA KOORDINAZIOA		
Arloa	Helburua	Jarduketa-ildoak
15. EZAGUTZA ETA LANKIDETZA	15.1. Gazteen egoera hobeto ezagutzea eta ebaluatzea	15.1.1. Euskadiko gazteei buruzko azterlanak egitea 15.1.2. Gazte-politiken ebaluazioa eta jarraipena 15.1.3. Gazteekin lan egiten duten profesionalen ezagutza eta prestakuntza zabaltzea
	15.2. Gazteei informazioa eta aholkularitza ematea	15.2.1. Gazteentzako orientazio- eta aholkularitza-zerbitzuak ematen laguntzea
	15.3. Lankidetzak eta elkarlana hobetzeak gazteriaren arloan	15.3.1. EGKren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko koordinazioa eta lankidetzak bultzatzea 15.3.2. Erakunde publikoen eta pribatuen arteko partaidetzak sustatzea



5.

**ARDATZAK, ARLOAK,
HELBURUAK ETA
JARDUKETA-ILDOAK**

5.1. 1. ARDATZA: EMANTZIPAZIOA: (BIZI)

1. ARDATZA: EMANTZIPAZIOA: (BIZI)		
Arloa	Helburua	Jarduketa-ildoak
1. ENPLEGUA	1.1. Gerturatzeko eta abiadura handiagoa lortzeko hezkuntza- eta lan-arloaren trantsituan	1.1.1. Prestakuntza lan-merkatuaren eskaerari egokitzea 1.1.2. Prestakuntza-sistema dualaren garapen integrala 1.1.3. Talentua itzultzen eta erakartzen laguntzeko programak ezartzea eta indartzea
	1.2. Kalitatezko enplegua duten gazteen kopurua handitzea	1.2.1. Lehen lan-esperientziak bultzatzea 1.2.2. Esperientzia duten gazteak kontratatuzko laguntza 1.2.3. Kalitatezko enplegu-aukerak sustatzea, bereziki sektore estrategikoetan 1.2.4. Gizarte- eta lan-arloko informazioa eta orientazioa hobetzea 1.2.5. Enplegarritasuna aktibatuzko eta hobetzeko prestakuntza indartzea
	1.3. Prebentzio-kultura eta laneko segurtasuna eta osasuna hobetzea	1.3.1. Laneko osasunari eta arriskuen prebentzioari buruzko informazioa, sentsibilizazioa eta prestakuntza bultzatzea 1.3.2. Lan-ingurunean osasunaren zaintza indartzea, ezbehar-tasa prebenitzeko
	1.4. Gazte ekintzaileen kopurua handitzea	1.4.1. Bokazio eta ekimen ekintzaileak bultzatzea, bereziki emakumeen artean 1.4.2. Ekintzailetza eta gizarte-ekonomia sustatzea 1.4.3. Landa-ingurunean eta itsasertzean enplegua eta gazte-ekintzailetza sustatzea
	1.5. Baztertuta geratzeko arriskuan dauden gazteen laneratzean aurrera egitea	1.5.1. Langabezian eta egoera zaugarrian dauden gazteen prestakuntza eta gaikuntza hobetzea 1.5.2. Orientazioa eta laguntza espezifikoak indartzea
	1.6. Tratu-berdintasunean eta diskriminaziorik ezean aurrera egitea	1.6.1. Enplegurako sarbidean eta lanbide-sustapenean aukerak parekatzeko neurriak hartzea 1.6.2. Emakumeen eta gizonen soldatak parekatzeko ekintzak bultzatzea 1.6.3. Lana eta familia bateragarri egitea bultzatzea
2. ETXEBIZITZA	2.1. Etxebizitza eskuratzeko aukerak zabaltzea	2.1.1. Etxebizitza babestuen lehentasunezko erreserba ezartzea 2.1.2. Laguntza ekonomikoen sistema eta alokairua sustatzeko programak indartzea
3. ERRENTA	3.1. Errenta erabilgarria hobetzea	3.1.1. Gazteen emantzipazioa errazteko laguntza eta mailegu berriak ezartzea
4. KOHESIOA	4.1. Baztertuta geratzeko arrisku-egoerak prebenitzea	4.1.1. Diru-sarrerak bermatzeko tresnen bidez oinarritzko premiak estaltzeko behar beste baliabide bermatzea 4.1.2. Kalteberatasun-egoerak prebenitzeko eta esku hartzeko ekintzak bultzatzea
5. ERRESILIENTZIA	5.1. Emantzipazioarako kultura-eraldaketa bultzatzea	5.1.1. Emantzipazio-prozesuan aholkularitza- eta laguntza-ekintzak indartzea

5.1.1 1. arloa: Enplegua

1. ARDATZA: EMANTZIPAZIOA: (BIZI)		
Arloa	Helburua	Jarduketa-ildoak
1. ENPLEGUA	1.1. Gerturatze eta abiadura handiagoa lortzea hezkuntza- eta lan-arloaren trantsituan	1.1.1. Prestakuntza lan-merkatuaren eskaerari egokitzea 1.1.2. Prestakuntza-sistema dualaren garapen integrala 1.1.3. Talentua itzultzen eta erakartzen laguntzeko programak ezartzea eta indartzea
	1.2. Kalitateko enplegua duten gazteen kopurua handitzea	1.2.1. Lehen lan-esperientziak bultzatzea 1.2.2. Esperientzia duten gazteak kontratatzeko laguntza 1.2.3. Kalitateko enplegu-aukerak sustatzea, bereziki sektore estrategikoetan 1.2.4. Gizarte- eta lan-arloko informazioa eta orientazioa hobetzea 1.2.5. Enplegarritasuna aktibatzeke eta hobetzeko prestakuntza indartzea
	1.3. Prebentzio-kultura eta laneko segurtasuna eta osasuna hobetzea	1.3.1. Laneko osasunari eta arriskuen prebentzioari buruzko informazioa, sentsibilizazioa eta prestakuntza bultzatzea 1.3.2. Lan-ingurunean osasunaren zaintza indartzea, ezbehar-tasa prebenitzeko
	1.4. Gazte ekintzaileen kopurua handitzea	1.4.1. Bokazio eta ekimen ekintzaileak bultzatzea, bereziki emakumeen artean 1.4.2. Ekintzailetza eta gizarte-ekonomia sustatzea 1.4.3. Landa-ingurunean eta itsasertzean enplegua eta gazte-ekintzailetza sustatzea
	1.5. Baztertuta geratzeko arriskuan dauden gazteen laneratzean aurrera egitea	1.5.1. Langabezian eta egoera zaurgarrian dauden gazteen prestakuntza eta gaikuntza hobetzea 1.5.2. Orientazioa eta laguntza espezifiko indartzea
	1.6. Tratu-berdintasunean eta diskriminaziorik ezean aurrera egitea	1.6.1. Enplegurako sarbidean eta lanbide-sustapenean aukerak parekatzeko neurriak hartzea 1.6.2. Emakumeen eta gizonen soldatak parekatzeko ekintzak bultzatzea 1.6.3. Lana eta familia bateragarri egitea bultzatzea

1.1. Gerturatze eta abiadura handiagoa lortzea hezkuntza- eta lan-arloaren trantsituan

Lotura estua dago prestakuntza-eremuaren eta lan-arloaren artean. Horregatik, funtsezkoa da prestakuntza lan-merkatuaren eskarira egokitzeko ahaleginei eustea, enpresek eskatzen dutena hobeto ezagutzen eta berariazko prestakuntza hautematen lagunduz. Helburu horrek prestakuntza-sistema duala modu integralean garatzea du helburu, eta pixkanaka unibertsitate-prestakuntzan ere hedatzea. Enplegurako prestakuntzan berrikuntzaren aldeko apustuari eusten zaio, enplegatzaileen sentsibilizazio- eta konpromiso-neurriekin. Arreta berezia eskaintzen zaio, halaber, STEAM profilen prestakuntzari, gaur egun dauden defiziten estaldura bermatzeko.

Euskadiko gazteen artean talentua erakartzea eta atxikitzea ere sartzen da, eta eremu hori indartu egin behar da Euskadiko enpresek beren lehiakortasunari eusteko eta, gainera, erronka demografikoari aurre egiteko; izan ere, gero eta zailtasun handiagoak daude sektore jakin batzuetan hutsik dauden lanpostuak betetzeko.

1.2. Kalitatezko enplegua duten gazteen kopurua handitzea

Unibertsitateko eta lanbide-heziketako lehen lan-esperientziak erraztu nahi dira. Era berean, esperientzia duten gazteen kontratazioa sustatu nahi da, txanda-kontratuak bezalako baliabideen bidez. Bestalde, gazteen enplegu-aukerak hobetzeko, administrazio publikoetan eta enpresa pribatuetan lehen esperientzia profesionalak errazten dituzten programak planteatzen dira. Sektore estrategikoetan gazteentzako lan-aukerak sustatzearen aldeko apustua ere egiten da. Halaber, enpleguko eta prestakuntzako ekintzak planteatzen dira hiru trantsizioetan -digitala, energetikoa-klimatikoa eta soziala eta demografikoa-, Eusko Jaurlaritzaren 2021-2024 Enplegu Plan Estrategikoan jasotako lan-ildoak.

Gazteen enplegarritasuna hobetzearen eta laneratzea sendotzearen esparruan, alde batetik, gizarte- eta lan-arloko informazio- eta orientazio-ekintzak mantentzen dira, eta, bestetik, aktibaziorako prestakuntza-ekintzak.

1.3. Prebentzio-kultura eta laneko segurtasuna eta osasuna hobetzea

2021-2026 Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategiaren ildotik, gazteen lan-ingurunean prebentzio-kultura areagotzea bilatzen da, lan-osasunari eta lan-arriskuen prebentzioari buruzko informazio- eta komunikazio-ekintzen bidez. Helburua da ezbehar-tasa murriztea eta gazteen lan-osasuna zaintzearen alde egitea. Beharrezkotzat jotzen da enplegatzaileak sentsibilizatzea adinaren faktoreak laneko arriskuen prebentzioan duen eraginari buruz, eta laneko arriskuen prebentzioari buruzko edukiak sartzeari enplegurako prestakuntzan eta bestelako prestakuntza-programetan. Ildo horretan sartzen dira, halaber, lan-istripuak murrizteko eta osasuna zaintzeko esparruan garatzen diren ekintza guztiak.

1.4. Gazte ekintzaileen kopurua handitzea

Helburu horren xedea da gazteek enpresa berriak garatzea eta abian jartzea, enplegu-aukera berriak sortzeko oinarri gisa. Bokazio ekintzaile berriak bultzatzea eta unibertsitate-eremuan edo lanbide-heziketan gazteek sortutako ekintzailetza-ekimenak babestea helburu duten ekintzak aurreikusten dira. Emakumeen ekintzailetza sustatzea da berriazko erronka. Era berean, gizarte-ekonomiako enpresetan ekintzailetza-proiektuak garatzen lagunduko da. Eremu hori lehentasunezkoa da gazteen enplegua indartzeko, eta Gizarte Ekonomiako Sailarteko Plan Estrategikoaren xedea da.

Bestalde, landa-ingurunean eta itsasertzean enpleguak sortzea sustatu nahi da, enpresa-espirtua eta ekintzailtza bultzatuz, gazteek enpresa berriak abian jarri eta enpresetan inbertsioak eginez landa-eremuen dibertsifikazio ekonomikorako. Nekazaritza-sektorearen ezagutza eta ekintzailtza-aukerak hobetzearen aldeko apustua egiten da.

1.5. Baztertuta geratzeko arriskuan dauden gazteen laneratzean aurrera egitea

Bazterketa-arriskuan dauden gazteak laneratzeko, prestakuntza eta kualifikazioa hobetzeko neurriak hartu behar dira, enplegua eta prestakuntza uztartzen dituzten programen bidez, edo, beren ezaugarriengatik, langabezia dauden pertsona kalteberen kolektiboentzako berriazko prestakuntza-jardueren bidez.

Era berean, baztertuta geratzeko arriskuan dauden gazteei enplegurako sarbidea erraztu nahi zaie, orientazioaren eta laguntza espezifikoaren bidez. Nabarmentzekoa da ikaskuntza-bitartekarien sareak duen zeregina.

1.6. Tratu-berdintasunean eta diskriminaziorik ezean aurrera egitea

Helburu horrek tratu-berdintasunaren eta enpleguan diskriminaziorik ezaren alde lan egiten jarraitzeko beharra azpimarratzen du. Enplegua lortzeko eta garapen profesionalerako aukera-berdintasunean, kontratazio-berdintasunean, ordainsari-berdintasunean eta soldata-arraila ezabatzean eta lana eta familia bateragarri egitean aurrera egin nahi da. Azpimarratzekoak dira familia eta lana bateragarri egiteko familiei zuzendutako laguntza-ildoak (seme-alabak eta adingabeak zaintzeko, adingabeak edo mendeko pertsonak zaintzeko kontratazioa, eragina kotizazio-aldietan, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna, kontziliazio erantzukidea, etab.), emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean eta erantzunkidetasunean aurrera egiteko 11.1 helburuarekin lotutakoak.

5.1.2 2. arloa: Etxebizitza

1. ARDATZA: EMANTZIPAZIOA: (BIZI)		
Arloa	Helburua	Jarduketa-ildoak
2. ETXEBIZITZA	2.1. Etxebizitza eskuratzeko aukerak zabaltzea	2.1.1. Etxebizitza babestuaren lehentasunezko erreserba ezartzea 2.1.2. Laguntza ekonomikoaren sistema eta alokairua sustatzeko programak indartzea

2.1. Etxebizitza eskuratzeko aukerak zabaltzea

Gazteen emantzipazioa laguntzeko 2030erako Euskal Estrategiaren helburua da 2030ean emantzipatzeko batez besteko adina 28 urtera murriztea, eta 25 eta 29 urte bitarteko emantzipazio-tasa egungo % 39,5etik % 50era igotzea. Funtsezko eremuetako bat etxebizitza da, eta etxebizitza hori eskuratzen laguntzeko, etxebizitza-sustapen publikoetan gazteentzako kupoa

handitzea eta alokairurako laguntzak handitzea planteatzen da (2023an 300 euroraino), Gaztelagun Programaren bidez.

Etxebizitza eskuratzeko laguntza-sistema indartzeko, gainera, dauden programei buruzko informazio- eta publizitate-jarduerak bete behar dira, gazte guztiengana iristeko eta egiaztatutako defizita konpontzeko.

Jarduketa-ildo honetan jasotako ekintzen ezinbesteko erreferentzia Eusko Jaurlaritzaren 2021-2023 aldiko Etxebizitzaren Gida Plana da.

Gainera, gazteen emantzipazioa laguntzeko 2030erako Euskal Estrategiaren esparruan, gazteei zuzendutako jarduera berritzaile sorta bat bildu da, zehazki, belaunaldien arteko programei edo programa irekiei dagokienez: gazteentzako berariazko zuzkidura-bizitokien kopurua handitzea, gazteen eta belaunaldien arteko cohousinga eta colivinga bultzatzea, hiri-masoveria sustatzea (errenta bidezko birgaitzea) edo etxebizitza eskuratzeko modu berritzaile gisa etxebizitzaren erabilera lagatzea. V. Gazte Planak jarduera berri horiek sartu beharko ditu martxan jartzen direnean.

5.1.3 3. arloa: Errenta

1. ARDATZA: EMANTZIPAZIOA: (BIZI)		
Arloa	Helburua	Jarduketa-ildoak
3. ERRENTA	3.1. Errenta erabilgarria hobetzea	3.1.1. Gazteen emantzipazioa errazteko laguntza eta mailegu berriak ezartzea

3.1. Errenta erabilgarria hobetzea

Gazteen errenta erabilgarria hobetzerantz bideratutako esku-hartze ildo horretan sartzen dira Errenka Demografikorako Estrategian ezarri nahi diren gazteen emantzipazioa errazteko laguntza eta mailegu berriak. Izan ere, estrategia horretan epe laburrean eragina izango duten jarduera berriak aurreikusten dira, hala nola gazteen ekintzailetza-, prestakuntza- edo etxebizitza-proiektuetarako mailegu-programa bat garatzea.

Hemen sartuko dira, halaber, 25 eta 29 urte bitarteko gazteen emantzipazioari laguntzeko planaren laguntza berriak (300 €/ hilean), Eusko Jaurlaritzak 2024rako martxan jarri asmo dituenak, urtean 28.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten gazteentzat.

5.1.4 4. arloa: Kohesioa

1. ARDATZA: EMANTZIPAZIOA: (BIZI)		
Arloa	Helburua	Jarduketa-ildoak
4. KOHESIOA	4.1. Baztertuta geratzeko arrisku-egoerak prebenitzea	4.1.1. Diru-sarrerak bermatzeko tresnen bidez oinarrizko premiak estaltzeko behar beste baliabide bermatzea 4.1.2. Kalteberatasun-egoerak prebenitzeko eta esku hartzeko ekintzak bultzatzea

4.1. Baztertuta geratzeko arrisku-egoerak prebenitzea

Gizarte kohesionatu bat lortzeko helburua gazteen oinarrizko beharizanak eta kalteberatasun-egoerak prebenitzeko eta esku hartzeko politikak betetzeko baliabide nahikoak bermatzera bideratutako politiketan oinarritzen da.

Oinarrizko premien estaldurak pobrezia eta/edo gizarte-bazterketako arrisku-egoeran dauden gazteen beharrak arintzea du helburu, eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarria eskaintzean gauzatzen da. Trapezistak programa ere esparru horretan txertatuko litzateke, gazteen emantzipazioa laguntzeko 2030erako Euskal Estrategiaren barruan. Programa horren bidez, familia-sarerik ez duten 18 eta 25 urte bitarteko gazteei lagunduko litzateke helduaroaren hasieran. Horretarako, gida psikosozial bat eskainiko litzateke, prestakuntzarako eta lan-bitartekaritzarako gida bat, kaletik aterako lirateke eta bizitegi-baliabide bat emango litzateke.

Jarduera-ildo horren barruan, arreta berezia eskaintzen zaio bazterketa-arriskuan dauden etorkinei. Horregatik, immigrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren arloko jarduerak garatzera eta immigrazioko teknikariak mantentzera bideratutako jarduerak sartzen dira hemen. Era berean, esparru honetan sartzen dira hirugarren sektore sozialaren esku-hartze sozialeko jarduerak, pertsona guztien autonomia pertsonala eta integrazio komunitarioa sustatzera eta babestera bideratuak.

5.1.5 5. arloa: Erresilientzia

1. ARDATZA: EMANTZIPAZIOA: (BIZI)		
Arloa	Helburua	Jarduketa-ildoak
5. ERRESILIENTZIA	5.1. Emantzipaziorako kultura-eraldaketa bultzatzea	5.1.1. Emantzipazio-prozesuan aholkularitza- eta laguntza-ekintzak indartzea

5.1. Emantzipaziorako kultura-erlidaketa bultzatzea

Jarduketa-ildo berri horrek gazteen emantzipazioa sustatzeko ekimenak eta proiektuak biltzen ditu, eta hor sartuko dira 2030erako Euskal Estrategiatik eratorritako ekintza berriak, emantzipazioaren alde egiteko. Horren adibide da GAZ (Gazteriaren-ibilbideak Abiarazteko Zerbitzua), autonomia-ibilbideak eta emantzipazio-kultura berria sustatzeko aholkularitza eta laguntza personalizatuko zerbitzua.

Ameslariak (Dreamers) programa berria ere hemen kokatuko litzateke. Programa hori GAZek emandako zerbitzuen bidez aktibatuko da, eta gazteen migrazio- eta mugikortasun-proiektuak laguntzera bideratuta dago. Gazteen erakarpena, atxikipena, itzulera eta konexioa bultzatu nahi ditu, bai eta haien beharren ebaluazioa eta laguntza-baliabideen diseinu parte-hartzailea ere.

5.2. 2. ARDATZA: GARAPENA (GOZATU)

2. ARDATZA: GARAPENA (GOZATU)		
Arloa	Helburua	Jarduketa-ildoak
6. OSASUN INTEGRALA	6.1. Osasun mentala eta emozionala hobetzea	6.1.1. Ongizaterako eta osasun mentalerako hezkuntza 6.1.2. Arreta eta prebentzioa antsietate- eta depresio-egoerentarako
	6.2. Arrisku-portaerak eta/edo adikzioak (sustantziarekin edo gabe) prebenitzea gazteen artean, eta kontsumitzen hasteko adina atzeratzea	6.2.1. Tabakoaren, alkoholaren, cannabisaren eta beste substantzia batzuen kontsumoaren arriskuei buruzko sensibilizazioa eta prebentzioa 6.2.2. Jokoa eta sare sozialei lotutako arriskuen inguruko sensibilizazioa eta prebentzioa 6.2.3. Trafiko-istripuen inguruko sensibilizazioa eta prebentzioa
	6.3. Sexu-bizitza osasuntsua sustatzea	6.3.1. Heziketa afektibo-sexuala bultzatzea 6.3.2. Sexu-transmisiozko gaixotasunak prebenitzeko neurriak indartzea
	6.4. Ohitura osasungarriak sustatzea	6.4.1. Elikadura osasungarria sustatzea 6.4.2. Jarduera fisikoa eta aisialdi osasungarria sustatzea
7. HEZKUNTZA	7.1. Aukera-berdintasunean aurrera egitea	7.1.1. Derrigorrezko eskolaldiaren ondorengo ikasketak egiteko eta amaitzeko neurriak hartzea, batez ere zailtasunak dituzten ikasleen artean 7.1.2. Eskola inklusiboa, hezkidetzakoa eta multikulturala sustatzea 7.1.3. Gaitasun handiko ikasleentzako hezkuntza-arreta
	7.2. Berdintasunerako eta arrisku-egoeren prebentziorako hezteak	7.2.1. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako prestakuntza eta genero-indarkeriaren prebentzioa 7.2.2. Arrisku-egoerak prebenitzeko prestakuntza
	7.3. Gazte eleaniztun gehiago lortzea	7.3.1. Hezkuntzaren eremu formalean euskara sustatu eta indartzea 7.3.2. Hizkuntza-gaitasunak garatzea beste hizkuntza batzuetan, mundura gehiago irekitzeko oinarri gisa
	7.4. Ikertzaile gazteen presentzia handitzea	7.4.1. Ikerketa-bokazioak bultzatzea etapa goiztiarretatik 7.4.2. Gazte ikertzaile eta teknologoentzako laguntza, bereziki emakume ikertzaileentzako
8. KULTURA ETA EUSKARA	8.1. Kulturaren kontsumoa eta gazteei zuzendutako zein gazteek sortutako kultura-jarduerak bultzatzea	8.1.1. Kultura-jarduerak sustatzea 8.1.2. Teknologiaren bidez kultura eskuratzeko modu berriak bultzatzea 8.1.3. Irakurtzeko ohitura sustatzea
	8.2. Euskararen erabilera sustatzea	8.2.1. Aisialdiko eremuetan euskararen erabilera bultzatzea eta kultura-produktuen euskarazko kontsumoa sustatzea 8.2.2. Euskara ikusarazten eta balioesten duten ekimenak bultzatzea
9. AISIA ETA DENBORA LIBREA	9.1. Aisialdian hezkuntza bultzatzea	9.1.1. Aisialdi hezitzailean parte hartzen duten eragileen sistema babestea eta indartzea
		9.1.2. Aisialdiko eta denbora libreko alternatibak sustatzea

5.2.1 6. arloa: Osasun integrala

2. ARDATZA: GARAPENA (GOZATU)		
Arloa	Helburua	Jarduketa-ildoak
6. OSASUN INTEGRALA	6.1 Osasun mentala eta emozionala hobetzea	6.1.1. Ongizaterako eta osasun mentalerako hezkuntza 6.1.2. Arreta eta prebentzioa antsietate- eta depresio-egoerarako
	6.2. Arrisku-portaerak eta/edo adikzioak (sustantziarekin edo gabe) prebenitzea gazteen artean, eta kontsumitzen hasteko adina atzeratzea	6.2.1. Tabakoaren, alkoholaren, cannabisaren eta beste substantzia batzuen kontsumoaren arriskuei buruzko sensibilizazioa eta prebentzioa 6.2.2. Jokoa eta sare sozialei lotutako arriskuen inguruko sensibilizazioa eta prebentzioa 6.2.3. Trafiko-istripuen inguruko sensibilizazioa eta prebentzioa
	6.3. Sexu-bizitza osasuntsua sustatzea	6.3.1. Heziketa afektibo-sexuala bultzatzea 6.3.2. Sexu-transmisiozko gaixotasunak prebenitzeko neurriak indartzea
	6.4. Ohitura osasungarriak sustatzea	6.4.1. Elikadura osasungarria sustatzea 6.4.2. Jarduera fisikoa eta aisialdi osasungarria sustatzea

6.1. Osasun mentala eta emozionala hobetzea

Gazteen osasun mentala eta emozionala hobetzeko helburua indartu egin da Plan honetan, pandemiaren ondoren areagotu egin den gai horren inguruko gizarte-kezka gero eta handiagoari erantzunez.

Helburu hori bi jarduketa-ildoren bidez hedatzen da: ongizaterako eta osasun mentalerako hezkuntza eta antsietate- eta depresio-egoeren aurrean arreta eta prebentzioa. Lehenengo kasuan, esku-hartze psikohezitzaileekin edo irakasleen prestakuntzarekin zerikusia duten jarduerak txertatzen dira, adibidez, ikasleen arazo emozionalari aurre egiteko. Bigarren kasuan, nahasmendu mentalak (antsietatea, depresioa edo bestelakoak) tratatzeko jarduerak sartzen dira.

6.2. Arrisku-portaerak eta/edo adikzioak (sustantziarekin edo gabe) prebenitzea gazteen artean, eta kontsumitzen hasteko adina atzeratzea

Bigarren helburuaren xedea da gazteen artean jokabide arriskutsuak eta/edo adikzioak (sustantziarekin edo gabe) prebenitzea eta kontsumitzen hasteko adina atzeratzea.

Lehenik eta behin, tabakoaren, alkoholaren, cannabisaren eta beste substantzia batzuen kontsumoa murrizteko lan egingo da, kontsumitzen hasteko adina murrizteko helburuarekin. Era berean, kontsumo edo ohitura kaltegarriari buruzko sensibilizazio-kanpainak, tabakismoa eta beste substantzia batzuk prebenitzeko programak eta aisia eta drogen kontsumoa binomioaren disoziazioa erraztera bideratutako programak planteatzen dira.

Bigarrenik, jokoari eta sare sozialei lotutako arriskuei buruz sentsibilizatu eta prebenitu nahi da. Interneten erabilera seguru eta arduratsuari, online jokoaren arriskuari eta joko patologikoaren prebentzioari buruzko sentsibilizazio- eta informazio-ekintzak sartzen dira. Kontzientziatzeko eta ikuskatzeko kanpainak ere egingo dira, adingabeak debekatuta duten joko-lokaletan sar ez daitezzen.

Hirugarrenik, trafiko-istripuei buruz sentsibilizatzeko eta prebenitzeko jarduketa-ildo bat ezartzen da, arrisku-jokabideak prebenitzeko kanpainen, prebentzio-kontrolen eta prestakuntza-jardueren bidez.

6.3. Sexu-bizitza osasuntsua sustatzea

Osasun arloaren hirugarren helburuetako bat gazteen artean sexu-bizitza osasuntsua bultzatzea da. Hezkuntza afektibo-sexuala helburu duen jarduketa-ildo bat proposatzen da, sexu-aniztasunari dagokionez hezkuntza formalaren eta ez-formalaren eremuetan gazteekin lan egiten duten profesionalen prestakuntza eta informazioa ematera bideratutako ekintzen bidez. Helburu horren barruan, beharrezkotzat jotzen da gazteen artean pornografiaren kontsumoari buruzko informazio- eta sentsibilizazio-ekintzak sartzea.

Halaber, garrantzitsua da gazteen artean sexu-transmisiozko gaixotasunen prebentzioan lan egiten jarraitzea, eta laguntza ekonomikoak ematea GIBaren, C hepatitisaren eta sexu-transmisiozko infekzioen arloan lan egiten duten erakundeei, bai eta tratamendu-, errehabilitazio- eta txertaketa-programei ere, hainbat arazoren aurrean, hala nola nerabeei zuzendutako Papilomaren Birusaren aurkako Programari.

6.4. Ohitura osasungarriak sustatzea

Osasun integralaren arloan jarraituz, laugarren helburua bizitza osasungarria sustatzea da. Alde batetik, gehiegizko pisua eta gazteen obesitatea murrizteko asmoari eusten zaio, eta elikadura osasungarria sustatu nahi da, ohitura osasungarriei buruzko prestakuntza- eta informazio-ekintzak kontuan hartuta, informazio- eta prestakuntza-materialak landuz eta hedatuz, elikadura osasungarriari buruzko orientabide eta mezu erraz, argi eta homogeneoekin.

Bestalde, gazteen artean jarduera fisikoa eta ariketa bultzatzea da helburua. Talde honetan kirol-jarduera sustatzearen aldeko apustua egiten da, besteak beste, Kirolaren Euskal Eskolak garatutako prestakuntza-ekintzen eta -programen bidez, Eskolarteko Kirol Jokoak antolatuz eta Guraso Elkartei eta irakaskuntza-kooperatibei laguntzak emanez, eskola-bideak sustatzeko, patioak eraldatzeko eta jarduera fisikoa familian egiteko, ikasleen osasuna eta autonomia hobetzeko.

V. Gazte Planak jarduera fisikoa sustatuko du maila guztietan eta praktika-maila txikiagoak dituzten gazte-taldearen artean (emakumeak, derrigorrezko eskola-etapa uzten duten gazteak, LGTBI biztanleria, eta abar).

5.2.2 7. arloa: Hezkuntza

2. ARDATZA: GARAPENA (GOZATU)		
Arloa	Helburua	Jarduketa-ildoak
7. HEZKUNTZA	7.1. Aukera-berdintasunean aurrera egitea	7.1.1. Derrigorrezko eskolaldiaren ondorengo ikasketak egiteko eta amaitzeko neurriak hartzea, batez ere zailtasunak dituzten ikasleen artean 7.1.2. Eskola inklusiboa, hezkidetzakoa eta multikulturala sustatzea 7.1.3. Gaitasun handiko ikasleentzako hezkuntza-arreta
	7.2. Berdintasunerako eta arrisku-egoeren prebentziorako hezte	7.2.1. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako prestakuntza eta genero-indarkeriaren prebentzioa 7.2.2. Arrisku-egoerak prebenitzeko prestakuntza
	7.3. Gazte eleaniztun gehiago lortzea	7.3.1. Hezkuntzaren eremu formalean euskara sustatu eta indartzea 7.3.2. Hizkuntza-gaitasunak garatzea beste hizkuntza batzuetan, mundura gehiago irekitzeko oinarri gisa
	7.4. Ikertzaile gazteen presentzia handitzea	7.4.1. Ikerketa-bokazioak bultzatzea etapa goiztiarretatik 7.4.2. Gazte ikertzaile eta teknologoentzako laguntza, bereziki emakume ikertzaileentzako

7.1. Aukera-berdintasunean aurrera egitea

Hezkuntzaren arloan, lehenengo helburua hezkuntza-sisteman aukera-berdintasunean aurrera egitea da, ikasketak, batez ere derrigorrezkoen ondokoak, egitea, jarraitzea eta amaitzea erraztuz, zailtasun bereziko egoeran dauden ikasleei zuzendutako ekintzak barne.

Halaber, eskola inklusiboa eta hezkidetzakoa sustatzearen aldeko apustua egiten da, haur eta gazteei kalitatezko hezkuntza, aukera-berdintasunean oinarritutakoa, eta gazte guztientzat bidezkoa, lortzeko aukera bermatuko diena. Era berean, bilatzen da kulturartekotasuna sustatzea, aniztasunari eta hezkidetzari arreta eskaintzea. Hemen sartuko lirateke, halaber, haur eta gazte etorkinen eskola-laguntza indartzeko ekintzak.

Jarduketa-ildo berri bat planteatzen da, adimen-gaitasun handiak dituzten ikasleei arreta eskaintzeko. Haren helburua adimen-gaitasun handiko ikasleentzako hezkuntza-arretako planean jasotako ekintzak hartzea da.

7.2. Berdintasunerako eta arrisku-egoeren prebentziorako hezte

Berdintasunerako hezkuntzaren eta arrisku-egoeren prebentzioaren helburua, alde batetik, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta genero-indarkeriaren prebentzioa ardatz dituen esku-hartze ildoan zehazten da. Atal honetan, gazteekin lan egiten duten profesionalentzako sentsibilizazio-, prestakuntza- eta aditu-jarduerak aurreikusten dira, baita hezkuntza-tresnak eta materialak sortzea eta genero-indarkeriaren prebentzioa sustatzen duten proiektuei laguntzea ere.

Era berean, gizalegearen aurkako, arriskuko eta desegokiak diren jokabideak prebenitzeko prestakuntza-ekintzei eusten zaie (jazarpena, indarkeria, Internet, drogak, bide-segurtasuna, gorroto-delituak, etab.).

7.3. Gazte eleaniztun gehiago lortzea

Euskadin gazte eleaniztun gehiago lortzeko helburuari eusten zaio. Horretarako, batetik, euskara bultzatu eta indartu nahi da hezkuntza-eremuan, bai ikasgeletan, bai ikasgeletatik kanpo. Bestalde, beste hizkuntza batzuetako hizkuntza-gaitasunen garapena sustatu nahi da, mundura gehiago zabaltzeko oinarri gisa, atzerriko egonaldiak eta bekak babestuz, edo gazteen eremuko txartelen hornidurari lagunduz.

7.4. Ikertzaile gazteen presentzia handitzea

Hezkuntzaren arloaren barruan, ikertzaile gazte gehiago egotea proposatzen da. Ikerketa-bokazioa bultzatu nahi da etapa goiztiarretatik, ikertzaileen kontratazioa, prestakuntza eta hobekuntza ahalbidetzen duten programen bidez, eta ikertzaile eta teknologo gazteei lagundu, unibertsitateko ikasleen ikerketa-karrera erraztuz, bereziki emakume gazteena.

5.2.3 8. arloa: Kultura eta Euskara

2. ARDATZA: GARAPENA (GOZATU)		
Arloa	Helburua	Jarduketa-ildoak
8. KULTURA ETA EUSKARA	8.1. Kulturaren kontsumoa eta gazteei zuzendutako zein gazteek sortutako kultura-jarduerak bultzatzea	8.1.1. Kultura-jarduerak sustatzea 8.1.2. Teknologiaren bidez kultura eskuratzeko modu berriak bultzatzea 8.1.3. Irakurtzeko ohitura sustatzea
	8.2. Euskararen erabilera sustatzea	8.2.1. Aisialdiko eremuetan euskararen erabilera bultzatzea eta kultura-produktuen euskarazko kontsumoa sustatzea 8.2.2. Euskara ikusarazten eta balioesten duten ekimenak bultzatzea

8.1. Kulturaren kontsumoa eta gazteei zuzendutako zein gazteek sortutako kultura-jarduerak bultzatzea

Kulturaren arloaren barruan, kultura-kontsumoa bultzatzea eta gazteei zuzendutako zein gazteek sortutako kultura-jarduerak garatzea da helburua. Kolektibo horrentzako kultura-eskaintza erakargarri eta irisgarri bat mantentzeko lan egingo da. Era berean, kultura-edukietara iristeko modu berriak ematea bilatuko da, teknologia kanal gisa erabiliz. Bestalde, garrantzitsua dela uste da gazteen artean irakurtzeko ohitura sustatzeko helburua indartzea.

8.2. Euskararen erabilera sustatzea

Euskararen ezagutza nabarmen hobetu da azken urteotan eta, hala ere, euskararen kaleko erabilera apur bat murriztu da. Horregatik, V. Gazte Planak gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko berariazko helburua ezartzen du, eremu ez-formaleko erabilera azpimarratuz.

Aisialdi-inguruneetan euskararen erabilera sustatu nahi da, askotariko jardueren bidez, hala nola, ikerketak eginez, aisialdiko eta denbora libreko jarduerak euskaraz antolatzeko laguntzak emanez (kirol-ekitaldiak, kirol-aldizkariak, udalekuak, estrategia digitalean sartutako ekintzak, espedizioak, etab.). Euskarazko eduki kulturalen kontsumoa ere sustatu nahi da.

Euskararen erabilera indartzea, eremu guztietan gizarte-aktibazioa sustatuz, euskararen erabilera gizarte-arau normalizatu bihur dadin, hain zuzen ere, Euskararen Agenda Estrategikoaren misioaren osagai gisa agertzen da.

Beste jarduketa-ildo bat gazteen artean euskara ikusaraztea eta balioestea da, programa espezifikoaren bidez (Gaztemundu, adibidez, euskal diasporako gazteen prestakuntza oinarri duena) edo ikerketa-lanen bidez, besteak beste.

5.2.4 9. arloa: Aisia eta denbora libre

2. ARDATZA: GARAPENA (GOZATU)		
Arloa	Helburua	Jarduketa-ildoak
9. AISIA ETA DENBORA LIBREA	9.1. Aisialdian hezkuntza bultzatzea	9.1.1. Aisialdi hezitzailean parte hartzen duten eragileen sistema babestea eta indartzea
		9.1.2. Aisialdiko eta denbora libreko alternatibak sustatzea

9.1. Aisialdian hezkuntza bultzatzea

Aisialdiko hezkuntzak euskal haur, nerabe eta gazteen hainbat belaunaldiren sozializazioan eta gaitasunen garapenean laguntzen du.

Aisialdiko hezkuntza sustatzeko 2030erako Euskal Estrategiaren helburuen artean dago Euskadin hezkuntza-aisialdiko taldeei eustea, hau da, komunitateetatik sortu eta haien zerbitzura jartzen diren gizarte-ekimeneko erakundeei eustea.

Estrategia horretan 2024rako ezarritako helburua da taldeak sendotzea, egokitzapen-prozesu pilotuei ekitea eta sareen arteko eta sektore publikoarekiko laguntza-sistemak eta lankidetzak indartzea. Gainera, asmoa da 2030erako denbora libreko hezkuntza-taldeen eskaintza Barakaldoko Adierazpenera egokitzea eta hezkuntza-aisialdia eskubide gisa bultzatzea. Gainera, ikerketa-ekintzak eta komunikazio-kanpainak egingo dira.

Aisialdiko hezkuntza sustatzeko 2030erako Euskal Estrategian jasotako neurriak hedatzea, eta aisialdiko eta denbora libreko alternatibak sustatzea, Gazte Txartel digitala bezalako ekintzen bidez edo gazteek aisialdiko, kulturako eta abarreko jarduerak gehiago eskatzen lagunduko duten beste txartel batzuen bidez.

5.3. 3. ARDATZA: ERAGINA (ERALDATU)

3. ARDATZA: ERAGINA (ERALDATU)		
Arloa	Helburua	Jarduketa-ildoak
10. PARTAIDETZA	10.1. Gazteen parte-hartzea eta aintzatespena bultzatzea	10.1.1. Gazteek parte hartzeko eredu eta elkarrizketa-gune berriak bultzatzea 10.1.2. Gazte asoziazionismoaren ekimenak babestea 10.1.3. Gazte-boluntarioria bultzatzea 10.1.4. Talentu gazteen aintzatespena indartzea
11. BERDINTASUNA	11.1. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean eta erantzunkidetasunean aurrera egitea	11.1.1. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea gizarte osoan 11.1.2. Emakumeen eta gizonen kontziliazio erantzunkidea bultzatzea
	11.2. Emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzea	11.2.1. Sentsibilizazio- eta prebentzio-neurriak hartzea (zero tolerantzia) 11.2.2. Arreta integrala eta kaltearen konponketa indartzea
	11.3. Emakumeak ahaldunduz	11.3.1. Emakume gazteen ahaldunduz pertsonalerako eta kolektiborako laguntza 11.3.2. Emakume gazteek eremu eta gune guztietan parte har dezaten bultzatzea
12. ANIZTASUNA	12.1. Sexu- eta genero-aniztasuna txertatzea	12.1.1. Sexu- eta genero-aniztasuna ikusarazteko eta bermatzeko neurriak bultzatzea
	12.2. Aniztasun funtzionala txertatzea	12.2.2. Irigarritasun unibertsala eta bizimodu independentea sustatzea
13. BIZIKIDETZA	13.1. Indarkeria eta tratu txar egoerak errotik kentzea	13.1.1. Gurasoen aurkako indarkeriaren eta tratu txarren detekzioa, prebentzioa eta arreta indartzea 13.1.2. Eskolako jazarpenaren (bullying eta ziberbullying) detekzioa, prebentzioa eta arreta indartzea 13.1.3. Aisialdian, kirolean eta kalean indarkeriaren detekzioa, prebentzioa eta arreta indartzea
		13.2. Balioetan hezea
14. KLIMA-ALDAKETA	14.1. Jasangarritasunarekin eta planetaren zaintzarekin konprometitutako gazte gehiago izatea	14.1.1. Ingurumen-hezkuntza, ekonomia zirkularra eta kontsumo arduratsua bultzatzea 14.1.2. Mugikortasun jasangarria sustatzea

5.3.1 10. arloa: Partaidetza

3. ARDATZA: ERAGINA (ERALDATU)		
Arloa	Helburua	Jarduketa-ildoak
10. PARTAIDETZA	10.1. Gazteen parte-hartzea eta aintzatespena bultzatzea	10.1.1. Gazteek parte hartzeko eredu eta elkarrizketa-gune berriak bultzatzea 10.1.2. Gazte asoziazionismoaren ekimenak babestea 10.1.3. Gazte-boluntarioria bultzatzea 10.1.4. Talentu gazteen aintzatespena indartzea

10.1. Gazteen parte-hartzea eta aintzatespena bultzatzea

3. ardatzaren barruan, V. Gazte Planak jarduketa-eremu bat du, honako erronkarekin: gero eta partaidetza handiagoa eta ekimena duen gazteria lortzea. Horretarako, komunikazioa, parte-hartzea eta elkar ezagutzea bultzatu nahi da. Helburu hori gazteen asoziazionismoko ekimenei laguntzeko ekintzetan eta gazteen boluntariora sustatzeko ekintzetan gauzatzen da.

Berrikuntza gisa, partaidetzaren kultura, elkarrizketarako espazio berriak sortzea eta erakundeetara hurbiltzea helburu duen jarduketa-ildo bat sartu da, parte-hartze politikoa ere sustatuz. Horretarako, nabarmendu behar da etorkizuneko harremanak planteatzen direla Haur eta Nerabeek Parte Hartzeko Foro autonomikoarekin. Foro hori sortzea aurreikusita dago Haur eta Nerabeen Legearen Aurreproiektuan.

Partaidetzaren atalaren barruan, talentu gazteak aintzatesteko jarduketa-ildo bat ere sartzen da. Ildo horren bidez, irudi motibatzaile eta inspiratzailea proiektatu nahi da gainerako gazteentzat.

5.3.2 11. arloa: Berdintasuna

3. ARDATZA: ERAGINA (ERALDATU)		
Arloa	Helburua	Jarduketa-ildoak
11. BERDINTASUNA	11.1. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean eta erantzunkidetasunean aurrera egitea	11.1.1. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea gizarte osoan 11.1.2. Emakumeen eta gizonen kontziliazio erantzunkidea bultzatzea
	11.2. Emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzea	11.2.1. Sentsibilizazio- eta prebentzio-neurriak hartzea (zero tolerantzia) 11.2.2. Arreta integrala eta kaltearen konponketa indartzea
	11.3. Emakumeak ahalduntzea	11.3.1. Emakume gazteen ahalduntze pertsonalerako eta kolektiborako laguntza 11.3.2. Emakume gazteek eremu eta gune guztietan parte har dezaten bultzatzea

11.1. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean eta erantzunkidetasunean aurrera egitea

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna ardatz duen atalaren lehen helburuak gai horri gizarte osoan heldu nahi dio, prestakuntza- eta sentsibilizazio-ekintza orokorrekin. Gainera, emakumeen eta gizonen erantzunkidetasuna sustatzeko beste jarduketa-ildo bat planteatzen da. Aipatzekoak dira, berriro ere, familientzako laguntzak, familia eta lana bateragarri egiteko. Bestalde, erakunde publiko eta pribatuei eta enpresei zuzendutako sentsibilizazio-ekintzak eta kontziliazio erantzunkidea sustatzeko eta zabaltzeko neurriak ere badaude.

11.2. Emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzea

Emakumeen aurkako indarkeria matxista desagerraraztea da Emakumeen eta gizonen berdintasunean ardatz tutako atalaren bigarren helburua. Alde batetik, sentsibilizazioa eta prebentzioa landuko dira (zero tolerantzia), emakumeen aurkako indarkeria gaitzesteari buruzko

kontzientziazio soziala areagotuz, berriaz gazteei zuzendutako kanpainen, prestakuntza-ikastaroen, ikerketa-ildoen sustapenaren, berdintasun-programen garapenen, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako laguntzen eta abarren bidez. Bestetik, arreta integrala eta kaltearen erreparazioa eskainiko da genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei kalitatezko arreta emateko berriazko zerbitzu baten bidez.

11.3. Emakumeak ahalduntzea

Emakundeko VIII. Planarekin bat etorritik, emakumeen ahalduntzearen alde lan egitea da helburua, ahalduntze pertsonala eta emakume gazteen ahalduntzea sustatuz. Gainera, emakume gazteek eremu eta gune guztietan parte har dezaten bultzatuko da, eta emakumeen aurkako indarkerian esku hartzeko profil espezializatuak sortzen eta berdintasunaren arloko adituen prestakuntza bermatuko duten titulazioak ematen lagunduko da.

5.3.3 12. arloa: Aniztasuna

3. ARDATZA: ERAGINA (ERALDATU)		
Arloa	Helburua	Jarduketa-ildoak
12. ANIZTASUNA	12.1. Sexu- eta genero-aniztasuna txertatzea	12.1.1. Sexu- eta genero-aniztasuna ikusarazteko eta bermatzeko neurriak bultzatzea
	12.2. Aniztasun funtzionala txertatzea	12.2.2. Irisgarritasun unibertsala eta bizimodu independentea sustatzea

12.1. Sexu- eta genero-aniztasuna txertatzea

Helburu horren xedea da, batetik, identitate desberdinen arteko berdintasunean aurrera egitea, eta, bestetik, LGBTBI+ kolektiboari buruzko ekimen zehatzak abiaraztea. Hala, dauden laguntza-tresnen artean, Berdindu zerbitzu publikoa aipatu behar da. Zerbitzu hori LGBTBI kolektiboari telefonoz, telematikoki eta aurrez aurre arreta emateko zerbitzua da, laguntza eta aholkularitza emateko bai LGBTBI kolektiboari bai haren inguruneari.

12.2. Aniztasun funtzionala txertatzea

V. Gazte Planak jarduketa-ildo berri bat jasotzen du, premia bereziak dituzten gazteen irisgarritasun unibertsala eta bizimodu independentea sustatzeko.

2020an onartutako Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategiak bultzatutako ekintzak izango dira jarduketa-ildo horretan jasoko direnak. Estrategia horren bidez, irisgarritasuna gainditi nahi da, hau da, desgaitasuna duten pertsonentzako oztopo fisikoak desagerraraztea, ingurune, prozesu, produktu eta zerbitzu guztiak pertsona guztientzat eskuragarri izatea bermatuko duen kontzeptu zabalago baten bidez.

Estrategia hori garatzen duten 41 jarduketa-ildoek hirigintzaren eta eraikuntzaren, garraioaren, hezkuntzaren, enpleguaren, berrikuntzaren edo justizia-administrazioaren arloko jarduerak eta ekimenak jorratzen dituzte. Kontzeptuaren zeharkako ikuspegi zabal horren esparruan, herritartasun-eskubide gisa ulertuta, besteak beste, lehen, bigarren eta unibertsitateko hezkuntzan pertsona guztientzako irisgarritasunari eta diseinu unibertsalari buruzko prestakuntza txertatzeari ekiten zaio.

5.3.4 13. arloa: Bizikidetz

3. ARDATZA: ERAGINA (ERALDATU)		
Arloa	Helburua	Jarduketa-ildoak
13. BIZIKIDETZA	13.1. Indarkeria eta tratu txar egoerak errofik kentzea	13.1.1. Gurasoen aurkako indarkeriaren eta tratu txarren detekzioa, prebentzioa eta arreta indartzea 13.1.2. Eskolako jazarpenaren (bullying eta ziberbullying) detekzioa, prebentzioa eta arreta indartzea 13.1.3. Aisialdian, kirolean eta kalean indarkeriaren detekzioa, prebentzioa eta arreta indartzea
	13.2. Balioetan hezte	13.2.1. Herritartasun globalerako, giza eskubideetarako, bizikidetzarako eta aniztasunerako hezkuntza sustatzea

13.1. Indarkeria eta tratu txar egoerak errofik kentzea

Bosgarren helburuaren xedea da emakumeen eta gizonen arteko harremanean sartzen direnez bestelako indarkeria- eta tratu txarren egoerak ezabatzea. Seme-alaben eta gurasoen arteko indarkeria modu integralean detektatu, prebenitu eta artatu nahi da.

Eremu horretan kokatuko dira, adibidez, Haurren eta nerabeen kontrako indarkeriari aurre egiteko euskal estrategiatik (2022-2025) edo haurrei eta nerabeei laguntzeko Zeuk Esan zerbitzu telefoniko eta telematikotik eratorritako ekintzak.

Era berean, eskola-jazarpenaren (bullyinga eta ziberbullyinga) prebentzioa eta esku-hartzea lantzen jarraituko da. Zibersegurtasunaren eta sare sozialen erabileraren erantzukizunaren inguruko prestakuntza-ekintzak landuko dira.

Berrikuntza gisa, esku hartzeko ildo berri bat sortu da, aisialdian, kirolean eta kalean indarkeria detektatzeko, prebenitzeko eta artatzeko. Prestakuntza- eta sentsibilizazio-ekintzak hedatzea da helburua, indarkeria-gertakariak saihesteko eta gune horietan gorroto-delituak prebenitzeko.

13.2. Balioetan hezte

Balioetan hezteari eta Giza Eskubideetan, Bizikidetzan eta Aniztasunean oinarritutako hezkuntza indartzeko premiari eusten zaie helburu gisa. Nerabeen eta gazteen giza eskubideak errespetatzea eta sustatzea, aniztasunaren kudeaketa positiboa egitea eta diskriminazioa eta gorroto-delituak prebenitzea ahalbidetuko duten ekintzak gauzatzea da xedea. Administrazio

publikotik eta elkarre-saretik bizikidetzaren kultura eta balioetan oinarritutako hezkuntza sendotzen laguntzea da helburua, eskolako eta eskolaz kanpoko jarduera guztietan.

Berrikuntza gisa, herritartasunerako hezkuntzari buruzko jarduerak sartu ahal izango dira, Dublingo 2050era arteko Hezkuntza Globalari buruzko Adierazpenaren ildotik. Adierazpen horrek konpromisoak ezartzen ditu Europako pertsona guztiek kalitatezko hezkuntza globala eskura izatea bermatzeko. Elkartasun globala, justizia soziala, bakea, giza eskubideak eta iraunkortasuna sustatzen dituzten kontzeptuak eta ikaskuntza-ildoak sartzen dira.

5.3.5 14. arloa: Klima-aldaketa

3. ARDATZA: ERAGINA (ERALDATU)		
Arloa	Helburua	Jarduketa-ildoak
14. KLIMA-ALDAKETA	14.1. Jasangarritasunarekin eta planetaren zaintzarekin konprometitutako gazte gehiago izatea	14.1.1. Ingurumen-hezkuntza, ekonomia zirkularra eta kontsumo arduratsua bultzatzea 14.1.2. Mugikortasun jasangarria sustatzea

14.1. Jasangarritasunarekin eta planetaren zaintzarekin konprometitutako gazte gehiago izatea

3. ardatzaren barruan, Klima-aldaketa izeneko arloa sartzen da. Haren helburua da gazteek planetaren iraunkortasunarekin eta zaintzarekin duten zeregina indartzea eta konpromisoa areagotzea. Helburu hori bi jarduera-ildo nagusitan zehazten da. Lehenengoak ingurumen-hezkuntzako programak eta ekintzak biltzen ditu (eta horiek ekonomia zirkularrekin duten harremana), ingurumen-gaietan gizartearen ezagutza eta kontzientzia hobetzeko. Gainera, gazteen artean kontsumo arduratsua sustatu nahi da, eta, horretarako, beharrezko informazioa eta prestakuntza eman.

Bigarrenak mugikortasun iraunkorra du ardatz. Hala, V. Gazte Planak mugikortasun jasangarria bultzatu nahi du gazteen artean, garraio publikoa eta bidegorrien sarea, bizikletentzako bideak eta bizikletak alokatzeko guneak sustatzeko. Mugikortasun iraunkorreko formuletara egokitutako tresna teknologikoak garatzea ere aurreikusten da.

Garraio publikoa, bizikleta edo partekatutako autoa erabiltzea kontsumo iraunkorrari lotutako jokabideetako bat da. Garraio publikoko txartelak edo garraio publikoko zerbitzuen zabalkunde-eta informazio-ekintzak sustatzeko eta eskuratzeko ekimenak oso lagungarriak dira planetaren iraunkortasuna eta zaintza areagotzeko.

5.4. 4. ARDATZA: BEHAKETA ETA KOORDINAZIOA

5.4.1 15. arloa: Ezagutza eta lankidetz

4. ARDATZA: BEHAKETA ETA KOORDINAZIOA		
Arloa	Helburua	Jarduketa-ildoak
15. EZAGUTZA ETA LANKIDETZA	15.1. Gazteen egoera hobeto ezagutzea eta ebaluatzea	15.1.1. Euskadiko gazteei buruzko azterlanak egitea 15.1.2. Gazte-politiken ebaluazioa eta jarraipena 15.1.3. Gazteekin lan egiten duten profesionalen ezagutza eta prestakuntza zabaltea
	15.2. Gazteei informazioa eta aholkularitza ematea	15.2.1. Gazteentzako orientazio- eta aholkularitza-zerbitzuak ematen laguntzea
	15.3. Lankidetz eta elkarlana hobetzea gazteriaren arloan	15.3.1. EGKren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko koordinazioa eta lankidetz bultzatzea 15.3.2. Erakunde publikoen eta pribatuen arteko partaidetzaguneak sustatzea

15.1. Gazteen egoera hobeto ezagutzea eta ebaluatzea

V. Gazte Planak Euskadiko gazteen egoera sakon ezagutzeko eta etengabe ebaluatzeko kezkarri eusten dio. Horretarako, Gazteen Euskal Behatokiak aldizka azterlanak, ikerketak, prestakuntza-ikastaroak eta Gazterian espezializatutako dokumentazioa zabaltzeko ekintzak egiten ditu.

Ezagutzaren zeharkako kudeaketa mantentzea da helburua, gazteei buruzko ikerketan eta diagnostikoen hedapenean aurrera egiteko, bai eta Administrazioak abian jarritako ekimen eta politikien ebaluazioan ere.

Arlo horretan sartuko dira, halaber, Dokumentazio Zentroarekin eta gazteekin lan egiten duten profesionalen prestakuntzarekin lotutako jarduerak, ezagutza zabaltzeko tresna gisa.

Gainera, Gazte Planak Eusko Jaurlaritzaren gazte-politikei buruzko ikuspegi zehatza emango du, urteko plan operatiboan, jarraipen-txostenen eta prozesuak eskatzen dituen ebaluazioen bidez.

Azkenik, zehaztu behar da egingo diren jarduera, azterlan eta ikerketa guztietan modu berezian aztertuko dela emakumeen eta gizonen egoera.

15.2. Gazteei informazioa eta aholkularitza ematea

V. Gazte Planak garrantzi berezia ematen dio gazteei informazioa eta aholkularitza emateari, Gazteen Emantzipaziorako Euskal Estrategiaren ildotik, 5.1 helburuan aipatutako GAZ zerbitzua, Gazteen-ibilbideak Abian jartzeko Zerbitzua, abian jartzea aurreikusten baitu.

Jarduketa-ildo horretan sartutako ekintzen artean, nabarmentzekoak dira Gazteukera.euskadi.eus ataria eta online informazioko GazteBizHitza zerbitzua.

Era berean, gazteentzako finantzaketa-programa bat diseinatzea aurreikusten da, eta horren berri eman ahal izango da gazteei berariaz zuzendutako arreta-zerbitzuen bidez. Beraz, jarduketa-ildo horretan jasoko dira gazteentzako orientazio- eta aholkularitza-zerbitzuak ematen laguntzeko ekintzak.

15.3. Lankidetzaren eta elkarlana hobetzea gazteriaren arloan

Eusko Jaurlaritzaren beste plan, estrategia eta programa batzuekin barne lankidetzaren dagoen bezala (Eusko Jaurlaritzaren Beste Plan eta Estrategia batzuk izeneko 1.2. atalean aipatutakoaren arabera), gazteriaren arloan elkarlana eta lankidetzaren lortzea ere planteatzen da erakunde publikoen eta gizarte-erakundearen artean. Horretarako, Euskadiko Gazteriaren arloan Erakunde arteko Koordinazio Organoa eratuko da, bai eta Sailarteko Batzordea ere.

Zehazki, jarduketa-ildo espezifiko bati eutsiko zaio Gazteriaren Euskal Kontseiluaren (EGK) eta Eusko Jaurlaritzaren arteko koordinaziorako eta lankidetzarako. Gainera, erakunde publikoen eta erakunde pribatuen arteko partaidetza-guneak indartuko dira.

Erakundearen arteko lankidetzaren esparru horretan sartzen dira diagnostiko-azterlanak, gazte-planak, gazteen emantzipazio-planak eta plan horien eta gazteen emantzipazio-prozesua erraztea helburu duten tokiko beste ekimen batzuen jarraipena edo ebaluazioa egiteko toki-erakundeei zuzendutako laguntzak. Hemen sartzen dira, halaber, EAEko gazte-ekipamenduen sarea toki-eremuan sustatzeko dirulaguntzak.



6.

**V. GAZTE PLANAREN
GOBERNANTZA,
EBALUAZIOA ETA
JARRAIPENA**

6.1. GOBERNANTZA

6.1.1 Planaren indarraldia

2026ko V. Gazte Planaren indarraldiak 2022-2026 aldia hartzen du. Lehenengo urteari dagozkion jardueren programazioa, hau da, 2022ko Plan Operatiboa, IV. Gazte Planaren egituraren arabera egin zen, oraindik ez baitzegoen V. Plan berririk, eta aurrekoa *de facto* luzatutzat jotzen da. Horri esker, etenik gabe lan egiten jarraitu ahal izan zen, eta jarraipena eman zitzaien zuzendaritzek gauzatzen ari diren gazte-ekintza eta -politiken programazioari.

V. Gazte Plana egin ondoren, egindako lanetako bat izan da 2022rako programatutako jarduerak V. Gazte Planaren egitura berrira egokitzea eta kokatzea, eta birkodetzea. Horri esker, 2022ko ekitaldiko jarduerak ebaluatu ahal izango dira, V. Gazte Plana aintzat hartuta.

2023an, Gazteriaren arloko Euskal Estrategia egitea aurreikusi da. Estrategia horretan, euskal administrazio publikoek gazteriaren arloan duten jarduera orientatzeko balioko esku-hartze ildoak eta gidalerroak jasoko dira. Horrenbestez, estrategia horren orientabideek 2022-2026ko V. Gazte Planean eta Gazteen emantzipazioa laguntzeko 2030erako Euskal Estrategian eragingo dute. Beraz, V. Gazte Plana Gazteriaren arloko Euskal Estrategiarekin erabat bat datorrela zaindu beharko da.

6.1.2 Sailen arteko kudeaketa- eta koordinazio-eredua

Eusko Jaurlaritzaren 2022-2026 V. Gazte Planaren lidergoa Gazteria Zuzendaritzari dagokio, legegintzaldi honetan Lehendakaritzan sartuta egonik.

Martxoaren 10eko 2/2022 Legeak, Gazteriari buruzkoak, 49. artikuluan, **Gazteriaren Sailarteko Batzordea** sortzen du, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak gazteriaren arloan egin behar dituen jardunak garatzen direla eta eraginkortasunez aplikatzen direla bermatuko duen koordinazio-organo gisa, bai eta jardun horien sustapen-organoa ere. Honako eginkizun hauek esleitzen zaizkio:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren gazte-politika integralaren garapena bultzatzea.
- b) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren legegintzaldiko Gazte Planean jasotako ekintzen programazioa, jarraipena eta ebaluazioa egitea.
- c) Elkarlanerako eta koordinaziorako formulak ezartzea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren gazte-politika integralarekin zerikusia duten sailen artean.

Gazteriaren Sailarteko Batzordearen ordezkari/osaerari dagokionez, Legeak honako hau ezartzen du:

- Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Gazteriaren Sailarteko Batzordea gutxienez arlo hauetako sailburuorde eskudunez osatuta egongo da, edo haiek eskuordetzen dituzten zuzendari maila edo goragokoa duten pertsonen: gazteria; enplegua; lana; gizarte-ekonomia; etxebizitza, hezkuntza; lanbide-heziketa; unibertsitateak; ikerketa; gizarte-politikak; osasuna; justizia; segurtasuna; industria; teknologia; nekazaritza; arrantza; garraioak; kultura; hizkuntza-politika; kirola; aisialdia; turismoa; kontsumoa; elikadura; klima; ingurumena; landa-ingurunea; kostaldeko ingurunea; giza eskubideak; berdintasuna; immigrazioa; boluntarioritza; partaidetza; lankidetzak, eta kanpo-ekintza. Batzordeko kideren batek arlo batean baino gehiagotan eskumena izanez gero, bakarrean hartuko du parte batzordean, ondore guztietarako. Gainera, Consejo de la Juventud de Euskadi-Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko presidentea edo hark eskuordetzen duen pertsona gonbidatuko da batzordearen saio eta zeregin guztietara; pertsona horrek hitza izango du, baina botorik ez.

Gazteriaren Sailarteko Batzordearen lehendakariari eta idazkaritari dagokionez, Legeak honako hau ezartzen du:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Gazteriaren Sailarteko Batzordeko presidente izango da Jaurlearitza lehendakaria, edo hark eskuordetzen duen pertsona. Idazkari-lanak, berriz, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan gazteriaren arloko eskumena duen zuzendariak egingo ditu, edo hark eskuordetzen duen pertsonak.

Sailen arteko koordinazioari dagokionez, legeak honako hau ere jasotzen du:

- Mahaiak, batzorde tekniko edo sektorialak, lantaldeak eta sailarteko koordinaziorako bestelako bide organiko eta funtzionalak eratu ahal izango dira, gazte-politika integrala eraginkortasunez bermatze aldera. Koordinazioa bizkorra eta eraginkorra izan dadin, ballabide telematikoen erabilera bultzatuko da; horrenbestez, sareko lana eta parte-hartzea sustatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Gazteriaren Sailarteko Batzordearen barruan.

Sail bakoitzaren barruan gazteriaren arloko koordinazioari dagokionez, 50. artikulua honako hau ezartzen du:

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak bermatuko du, bere sailtako bakoitzaren barruan, saileko zuzendaritzen eta arloen arteko bultzada, koordinazioa eta elkarlana, eta organismo autonomo, erakunde publiko eta sailari atxikitako organoekikoa, lege honetan eta onartzen dituen planetan xedatutakoa betetzeko helburuarekin.
2. Era berean, sail bakoitzak bermatuko du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Gazteriaren Sailarteko Batzordean dagozkion solaskide- eta ordezkari-eginkizunak gauzatu dituela, bai arlo politikoan, bai teknikoan.

Azkenik, adierazi behar da urteko programazioko dokumentuak eta jarraipen- eta ebaluazio-txosten guztiak Gazteriaren Sailarteko Batzordean aurkeztuko direla. Gainera, Eusko Jaurlaritzaren Gazte Planaren inguruan sortutako txosten guztiak Gazteen Euskal Behatokiaren webgunean argitaratuko dira, eta kontsultatzeko moduan egongo dira.

6.1.3 Eusko Jaurlaritzako sailak eta zuzendaritzak, V. Gazte Planeko ekintza garrantzitsuen arduradunak

Jarraian, V. Gazte Plana osatzen duten ekintzen garapenean orain arte parte hartu duten sailak eta zuzendaritzak zehazten dira. Jakina, beti dago aukera sail edo zuzendaritza berri batzuk gehitzeko, baldin eta gazteei zuzendutako jarduerak egingo badituzte.

Lehendakaritza

- Kanpo Harremanen Zuzendaritza
- Europar Batasunerako Zuzendaritza
- Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako Zuzendaritza
- Gazteria Zuzendaritza

Lan eta Enplegu Saila

- Gizarte Ekonomia Zuzendaritza
- Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritza
- Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzua
- Osalan – Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila

- Teknologia eta Berrikuntza Zuzendaritza
- Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako eta Europar Politiketako Zuzendaritza
- Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritza
- Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritza
- Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritza
- Euskadiko Nazioartekotze Agentzia – Basque Trade & Investment
- HAZI Fundazioa

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila

- Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritza
- Merkataritza Zuzendaritza
- Kontsumobide – Kontsumoko Euskal Institutua

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila

- Justizia Zuzendaritza
- Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza
- Familia eta Haurren Zuzendaritza
- Migrazio eta Asilo Zuzendaritza
- Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasun Zuzendaritza
- Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundea
- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia (Elankidetzeta)
- Gogora – Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua

Hezkuntza Saila

- Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritza
- Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritza
- Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritza
- Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritza
- Ikerketa Zuzendaritza
- Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritza

Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

- Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza
- Kultura Ondarearen Zuzendaritza
- Kultura Sustatzeko Zuzendaritza
- Euskara Sustatzeko Zuzendaritza
- Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritza

Segurtasun Saila

- Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza
- Trafiko Zuzendaritza
- Ertzaintzaren Zuzendaritza
- Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza

Osasun Saila

- Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza
- Osakidetza – Euskal Osasun Zerbitzua

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila

- Etxebizitzarako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza
- Garraio Plangintzaren Zuzendaritza

6.1.4 Erakundeen arteko koordinazioa

2/2022 Legeak, martxoaren 10ekoak, Gazteriari buruzkoak, 48. artikuluan, EAEko Gazteriaren arloko Erakundearteko Koordinazio Organoa sortzen du, kide anitzeko organo gisa, EAEko administrazio publikoen erakundearteko lankidetzeta eta koordinazioa antolatzen gazteriaren arloan, eta EAEko administrazio publikoen gazte-politika integrala bultzatuko dela bermatzeko.

EAEko Gazteriaren arloko Erakundearteko Koordinazio Organoak, bere funtzionamendu-arauan adierazitakoez gain, honako eginkizun hauek izango ditu:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoaren gazte-politika integralaren garapena eta ebaluazioa bultzatzea.
- b) Gazteriaren arloko Euskal Estrategiaren edukiari eta lanketari buruz txostena idaztea.
- c) Zeharkako gazte-politikak koordinatzea.

Gazteriaren Euskal Sistema osatzen duten gazteentzako zeharkako gazte-politika guztiak eta berriazko jarduera, zerbitzu eta ekipamendu guztiak, titulartasun publikokoak edo pribatukoak izan, EAEko Gazteriaren arloko Erakundearteko Koordinazio Organoaren bidez koordinatuko dira, sistema horren artikulazioa eta kohesioa bermatze aldera eta, erantzukizun publikoari men eginez, haren batasuna ziurtatzeko.

Erakundearteko Koordinazio Organoari unean-unean emango zaio Eusko Jaurlaritzaren V. Gazte Planaren urteko programazioaren eta ebaluazioaren berri, eta organo horretan aurkeztuko da V. Gazte Planaren azken ebaluazioaren txostena.

6.2. EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA

6.2.1 Jarraipen- eta ebaluazio-txostenen zereginak eta egutegia

Gazte Planak garrantzi handia ematen dio ebaluazioari, eta hori bere edukiaren formulazioan bertan eta gobernantza-ereduaren diseinuan islatzen da. Aurreikusitako jarraipenak eta ebaluazioek helburu bikoitzari erantzuten diote: gardentasuna eta kontuak ematea, batetik, eta ikaskuntza, egokitzapena eta etengabeko hobekuntza, bestetik.

V. Gazte Planaren jarraipenak, eguneratzeak eta ebaluazioak, beraz, honako zeregin eta txosten-egutegi hauek dituzte:

- 2022ko urteko programazioa V. Gazte Planera egokitzea: 2022ko plan operatiboa IV. Gazte Planaren egitura kontuan hartuta egin zen; beraz, bete beharreko lehen mugarrria, V. Gazte Plana egin ondoren, egitura berrira egokitzea da (Ardatzak-Arloak-Helburuak-Jarduketa-ildoak-Ekintzak).
- Urteko programazioak: V. Gazte Planaren indarraldiak hiru plan operatibo berri egitea ekarriko du, 2023., 2024. eta 2025. urteetarako.
- Urteko jarraipenaren ebaluazioa: 2022, 2023, 2024 eta 2025eko ekitaldiei dagozkien ebaluazio-txostenak egingo dira. Ebaluazio horiek kontuan hartuko dituzte "Gazteria Plan eta Programen Programazio eta Ebaluazio Eskuliburuaren" edukiak.
- V. Gazte Planaren tarteko ebaluazioa: 2024an egingo da.
- V. Gazte Planaren emaitzen azken ebaluazioa: 2026an egingo da. Ebaluazio horrek kontuan hartuko ditu "Gazteria Plan eta Programen Programazio eta Ebaluazio Eskuliburuaren" edukiak.

Urtero eskatuko zaie Planean sartuta dauden Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzei eta Sailarteko Batzordeko kideei ekitaldian zehar garatuko diren jarduerak zehazteko. Gazteriaren arloko ekintza positiboko politiken urteko programazio hori Gazteria Zuzendaritzak koordinatuko du, eta Sailarteko Batzordean aurkeztuko da. Ekintzen programak, jardueren zerrendaz gain, honako hauek jasoko ditu: jarduerak gauzatzeko arduraren erakundeak, aurreikusitako finantzaketa (aurrekontu-erabilgarritasunari eta dagozkion aurrekontu-irizpideei erantzun beharko die), erreferentzia egiten dien Gazte Planaren helburuak, pertsona edo erakunde hartzaileak, eta urteko ebaluazioa egiteko berariazko adierazleen hautaketa.

Eusko Jaurlaritzaren V. Gazte Planaren eragin ekonomikoari dagokionez, aurreko gazte-planetan bezala, Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzak programatutako ekintzak gauzatu behar dituen sail edo

erakunde eskudunaren aurrekontu arrunten kargura finantzatzea aurreikusten da, eta, beraz, ez da aurrekontu-zuzkidura gehigarri behar. Sailarteko Batzordeak bilerak egingo ditu aldian-aldian, ekimenetan egindako aurrerapenak eta plangintzan edo informazio-bilketan kontuan hartu beharreko aldaketak bateratzeko, Planaren jarraipena egin ahal izateko.

Batzordean, gainera, Eusko Jaurlaritzak V. Plan hau egiteko unean prestatzen ari diren edo etorkizunean lantzeko aurreikusita dauden plan estrategiko berrietatik erator daitezkeen urteko programazioan sartu beharreko ekimenak identifikatzeko eta zehazteko lan egingo da.

Ekitaldi bakoitza amaitu ondoren, Gazteria Zuzendaritzak, Sailarteko Batzordean parte hartzen duten sailek bidalitako informazioan oinarrituta, egindako ekintzen jarraipen-txosten bat egingo du. Txosten horretan, egindako ekintzak adieraziko dira, baita egin ezin izan direnak, atzeratu direnak edo deuseztatu direnak ere (arrazoiak adierazita, kasu bakoitzean). Sailarteko Batzordeak baliozkotuko du txosten hori.

V. Gazte Plana amaitzean, ebaluazio osoa egingo da, lortutako lorpenen ikuspegi orokorra lortzeko. Ebaluazio hori definitutako adierazleen arabera egingo da, tipologia guztietan (prozesuarenak, emaitzarenak edo eraginarenak). Amaierako ebaluazio-txostena Sailarteko Batzordean aurkeztuko da.

6.2.2 Eragin-adierazleak: 2022-2026ko V. Gazte Planaren Adierazleen Taula

Plana amaitzean egingo den eraginaren ebaluazioak Planak hartzen dituen arloetan gazteen egoeran izandako aldaketa garrantzitsuenak islatuko ditu.

Eraginaren ebaluazioa egin ahal izateko, izandako aurrerapen-maila neurtzeko adierazleak behar dira. Gazteen Euskal Behatokiak (GEB) Planaren helburuei lotutako gaiak jorratzen dituzten 22 adierazle zehaztu ditu bere 3 ardatz estrategikoetan: Emantzipazioa, Garapena eta Eragina.

Adierazle bakoitzak hasierako balio bat (oinarrizko datua) eta Planaren amaieran, hau da, 2026an, lortu beharreko xede-balio bat ditu lotuta. Zehaztapen kuantitatibo horri esker, Planak indarraldiaren amaieran izan duen eragina ebaluatu ahal izango da.

6.1 taula 2022-2026ko V. Gazte Planaren adierazleen taula

ADIERAZLEA	Oinarri lerroa	2026ko helmuga
1. 18-34 urteko emantzipazio-tasa	% 32,9 (2021)	>% 40
2. Emantzipatzeko batez besteko adina	29,7 urte (2021)	<29 urte
3. 16-29 urteko gazteen okupazio-tasa	% 42,3 (2022)	>% 45
4. 16 eta 29 urte bitarteko gazteen langabezia-tasa	% 15,0 (2022)	<% 14
5. 16-29 urteko aldi baterako kontratua duten gazteen ehunekoa	% 55,7 (2022)	<% 50
6. 16-29 urteko lanaldi partzialeko lan-tasa	% 32,3 (2022)	<% 30
7. 18-29 urteko hileko batez besteko soldata garbia	1.203€ (2021)	>1.300€
8. Pobrezia errealtaren tasa gazteen etxebizitzetan	% 15,3 (2020)	<% 15
9. 15-29 urteko osasunarekiko gogobetetasuna	7,8 puntu (2022)	> 8 puntu
10. 15-29 urteko antsietate- eta depresio-sintomen prebalentzia	% 8,3 (2018)	< % 8
11. 15-29 urteko substantzien abusuagatiko tratamendu-hasieraren tasa	1,4 x 1000 (2020)	<2 x 1.000
12. 18-24 urteko hezkuntza goiz uztea	% 4,8 (2021)	<% 5
13. 30-34 urteko goi-mailako hezkuntzako titulazioaren ehunekoa	% 62,9 (2021)	>% 60
14. Emakumeen ehunekoa zientzian eta teknologian graduatutako 35 urtetik beherako pertsona guztiekiko	% 33,3 (2021)	>% 35
15. 15-29 urteko hirueletasunaren ehunekoa	% 49,3 (2019)	>% 55
16. 16-24 urteko lagunekin euskara erabiltzea	% 37,8 (2021)	>% 38
17. 15-29 urteko jarduera fisiko erregularra	% 56,4 (2021)	>% 60
18. 15-29 urteko boluntarioen ehunekoa	% 11,5 (2021)	>% 12
19. 15-29 urteko emakumeen aurkako indarkeriaren tasa	8,6 x 1.000 (2021)	<8 x 1.000
20. 15-29 urteko emakumeen artean gaez bakarrik ibiltzeko beldurra	% 72,1 (2022)	<% 50
21. Lana lortzeko desberdintasunaren pertzepzioa, 15-29 urteko emakumeak	% 62,7 (2022)	<% 50
22. 15-29 urteko bizikleta bidezko mugikortasuna	% 23,8 (2022)	>% 25

6.2 taula Adierazleen bilakaera-taula

ADIERAZLEA	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
1. Emantzipazio-tasa	43,7	45,4	44,4	43,5	43,9	40,9	38,9	37,9	37,0	38,5	35,1	32,9	-
2. Emantzipatzeko batez besteko adina	28,9	28,3	28,8	28,9	28,8	29,0	29,4	29,4	29,4	28,9	29,4	29,7	-
3. Okupazio-tasa	44,4	43,6	38,3	36,5	37,7	37,1	37,5	39,8	40,3	39,8	37,3	40,4	42,3
4. Langabezia-tasa	18,4	19,1	23,0	29,0	29,5	27,9	23,7	16,7	15,5	17,8	22,0	17,4	15,0
5. Aldi baterako kontratua duten gazteen ehunekoa	46,5	45,2	50,7	57,4	57,0	62,7	66,9	67,5	68,1	64,3	62,6	65,5	55,7
6. Lanaldi partzialeko lan-tasa	14,1	15,1	12,2	21,4	25,3	30,7	30,4	30,0	30,3	31,8	32,5	33,5	32,3
7. Hileko batez besteko soldata garbia	1.319€	1.281€	1.247€	1.215€	1.206€	1.164€	1.169€	1.128€	1.148€	1.155€	1.153€	1.203€	-
8. Pobrezia errealaren tasa gazteen etxebizitzetan	-	-	18,0	-	13,6	-	15,3	-	16,2	-	15,3	-	-
9. Osasunarekiko gogobetetasuna (puntuak)	-	-	-	-	8,8	8,8	8,8	8,7	8,7	8,6	8,5	8,2	7,8
10. Antsietate-eta depresio-sintomen prebalentzia	-	-	-	13,7	-	-	-	-	8,3	-	-	-	-
11. Substantzien abusuagatiko tratamenduhasieran tasa	2,2 x1.000	1,9 x1.000	2,2 x1.000	2,1 x1.000	2,0 x1.000	1,9 x1.000	1,8 x1.000	2,0 x1.000	2,0 x1.000	1,8 x1.000	1,4 x1.000	-	-
12. Hezkuntza goiz uztea	13,1	13,8	12,4	9,9	9,4	9,7	7,9	7,0	6,9	6,7	6,5	4,8	-
13. Goi-mailako hezkuntzako titulazioaren ehunekoa	59,8	60,6	60,8	61,3	58,5	54,2	56,9	55,1	57,1	59,0	59,6	62,9	-

ADIERAZLEA	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
14. Emakumeen ehunekoa zientzian eta teknologian graduatutako 35 urtetik beherako pertsona guztiekiko	-	-	-	34,3	32,6	32,5	36,0	34,6	34,3	35,6	35,1	33,3	-
15. Hirueletasunaren ehunekoa	26,0*	-	-	-	30,9	-	-	-	-	49,3	-	-	-
16. Lagunekin euskara erabiltzea	-	32,4	-	-	-	-	35,3	-	-	-	-	37,8	-
17. Jarduera fisiko erregularra	-	-	40,2	-	-	-	49,0	-	-	-	-	56,4	-
18. Boluntarioen ehunekoa	-	-	6,5	-	-	-	11,5	-	-	-	-	11,5	-
19. Emakumeen aurkako indarkeriaren tasa	6,6 x1.000	6,9 x1.000	7,5 x1.000	7,7 x1.000	7,7 x1.000	7,3 x1.000	7,5 x1.000	8,4 x1.000	9,1 x1.000	9,2 x1.000	7,6 x1.000	8,6 x1.000	-
20. 15-29 urteko emakumeen artean gaez bakarrik ibiltzeko beldurra	-	-	32,2	-	-	-	34,2	-	-	-	74,1	-	72,1
21. Lana lortzeko desberdintasunaren pertzepzioa, 15-29 urteko emakumeak	-	-	28,1	-	-	-	27,6	-	-	-	33,6	-	62,7
22. Bizikleta bidezko mugikortasuna	-	-	9,6	-	-	-	8,1	-	-	-	-	-	23,8

*2009. urteko datua da



7. ERANSKINA: EUSKO JAURLARITZAREN V. GAZTE PLANAK GIHei EGINDAKO EKARPENA. 2030 AGENDA KO XEDEEKIN BAT ETORTZEA

Jarraian, zuzeneko harremana duten GIHak, Nazio Batuekin bat datorren definizioa eta lotura zuzenena duten xedeak jasotzen dira:



Pobrezia-agerpenen barruan sartzen dira: gosea, malnutrizioa, etxebizitza duinen falta eta oinarriko beste zerbitzu batzuen eskuragarritasun mugatua, besteak beste, hezkuntzarena edo osasunarena. Diskriminazioa eta gizarte-bazterkeria ere sartzen dira. Pobreziarekin amaitzeko, ekonomiaren hazkuntzak inklusiboa izan behar du, enplegu jasangarriak sortzeko eta berdintasuna sustatzeko.

Harremana duten xedeak

- 1.2 2030erako, definizio nazionalen arabera pobrezian, bere dimentsio guztietan, bizi diren gizon, emakume eta adin guztietako haurren proportzioa erdira behintzat jaistea.
- 1.3 Nazio-mailan guztiontzako babes sozialeko sistema eta neurri egokiak ezartzea, gutxieneko mailak barne, eta, 2030erako, pertsona pobre eta ahulen babes zabala lortzea.
- 1.5 2030erako, pobreen eta ahultasun-egoeretan dauden pertsonen erresiliencia sustatzea eta klimarekin eta beste asaldura eta hondamen ekonomiko, sozial eta ingurumeneko batzuekin lotutako muturreko fenomenoaren eraginpean egotea eta ondoriozko ahultasuna murriztea.
- 1.b Nazio-, eskualde- eta nazioarte-mailan araudi-esparru sendoak sortzea, pobreen aldeko garapen-estrategien oinarriaren gainean, genero-kontuak aintzat hartzen dituztenak, pobreziarekin amaitzeko neurrietan inbertsio bizkortua bultzatzeko.



Elikaduraren eta nekazaritzaren sektoreek garapenerako giltzarri diren konponbideak eskaintzen dituzte, gosea eta pobrezia deuseztatzeko ezinbestekoak. Ondo gauzatuz gero, nekazaritzak, basogintzak eta akuikulturak janari nutritiboz horni dezakete planeta osoa. Horrez gain, dirusarrera egokiak sor ditzakete, landako jendearen garapenari lagun diezaiokete eta ingurumena babes dezakete.

Harremana duten xedeak

- 2.1 2030erako, gosearekin amaitzea eta pertsona guztiek, bereziki pobrezia- eta kalteberatasun-egoeran daudenen, edoskitzaroan dauden haurrak barne, urte osoan elikadura osasungarria, nutritiboa eta nahikoa eskuratzeko aukera dutela ziurtatzea.
- 2.2 2030erako, malnutrizioaren modu guztiekin amaitzea, eta, beranduenez 2025ean, nazioartean hazkundearen atzerapenaren eta 5 urtetik beherako umeen ahultasunaren gainean hitzartutako erronkak lortzea, eta nerabeen, haurdun daudenen eta bular-emaile diren emakumeen eta adineko pertsonen nutrizio-beharrei erantzutea.



Azken hamarkadetan aurrerapen handiak egin dira bizi-itxaropena handitzeari eta haurren eta amen hilkortasunarekin lotutako heriotza-kausa ohikoenetako batzuk murrizteari dagokienez. Halaber, hobekuntzak lortu dira ur garbiaren horniduran eta saneamenduan, malariaren, tuberkulosian, poliomielitisean murrizketan eta GIB/HIESaren hedapenean. Hala ere, askoz ekimen gehiago behar dira gaixotasun-sorta zabal bat erabat desagerrarazteko eta osasunari buruzko gai iraunkor eta sortu berriei aurre egiteko.

Harremana duten xedeak

- 3.3 2030erako, HIESaren, tuberkulosiaren eta malariaren izurriekin eta aintzat hartu ez diren beste gaixotasun tropikal batzuekin amaitzea eta hepatitisari, uraren bidez transmititutako gaixotasunei eta transmiti daitezkeen beste gaixotasun batzuei aurre egitea.
- 3.4 2030erako, heren batera murriztea transmititu ezin diren gaixotasunen ondoriozko heriotza-tasa goiztiarra, prebentzioaren eta tratamenduaren bidez, eta osasun mentala eta ongizatea sustatzea.
- 3.5 Substantzia adiktiboen abusuaren prebentzioa eta tratamendua indartzea, estupefazianteen erabilera desagokia eta alkoholarren kontsumo kaltegarria barne.
- 3.7 2030erako, sexu- eta ugalketa-osasuneko zerbitzuetarako sarbidea bermatzea, familia-plangintzakoak, informaziokoak eta hezkuntzakoak barne, eta ugalketa-osasuna sartzeari estrategia eta programa nazionaletan.



Kalitatezko hezkuntza bat lortzea da pertsonen bizitza hobetzeko eta garapen jasangarrirako oinarria. Aurrerapen handiak lortu dira hezkuntzaren sarbideari – maila guztietan– eta eskolatzetaseen areagotzeari dagokienez, batez ere, emakumeen eta nesken kasuan. Gutxieneko alfabetatze-maila neurri handian areagotu da, baina ahalegin gehiago egin behar da hezkuntza unibertsalaren helburuen lorpenean aurrerapen handiagoak lortzeko. Adibidez, nesken eta mutilen arteko berdintasuna lortu da munduko haur-hezkuntzan, baina herrialde gutxi dira helburu hori hezkuntzaren maila guztietan lortu dutenak.

Harremana duten xedekak

- 4.1 Hemendik 2030era bitarte, haur guztiek lehen eta bigarren hezkuntzako irakaskuntza amaitzen dutela ziurtatzea; doakoa, bidezkoa eta kalitatezkoa izan behar du, eta ikaskuntza-emaizta egokiak eta eraginkorrak ekarri behar ditu.
- 4.2 Hemendik 2030era bitarte, haur guztiek lehen haurtzaroan eta aurre eskolako hezkuntzan arretarako eta garapenerako kalitatezko zerbitzuak eskura ditzaketela ziurtatzea, lehen hezkuntzarako prest egon daitezen.
- 4.3 Hemendik 2030era bitarte, gizon eta emakume guztiek kalitatezko prestakuntza tekniko, profesional eta goi mailakoa eskuratzeko berdintasunezko sarbidea dutela ziurtatzea, unibertsitate-irakaskuntza barne.
- 4.4 Hemendik 2030era bitarte, nabarmen areagotzea enplegua eta lan duina eskuratzeko eta ekintzailetzarako beharrezko gaitasunak, batez ere teknikoak eta lanbidekoak, dituzten gazte eta helduen kopurua.
- 4.5 Hemendik 2030era bitarte, genero-desberdintasunak ezabatzea hezkuntzan, eta berdintasunean oinarritzen den sarbidea ematea irakaskuntzako maila guztietan eta lanbide-prestakuntzan pertsona ahulenei, desgaitasunen bat duten pertsoneri, herri indigenei eta ahultasun-egoeran dauden haurrei barne.
- 4.6 Hemendik 2030era bitarte, gazte guztiak eta pertsona helduen proportzio handi bat (gizonezkoak zein emakumezkoak) alfabetatuta daudela eta aritmetikari buruzko oinarizko nozioak dituztela ziurtatzea.
- 4.7 Hemendik 2030era bitartean, ikasle guztiek garapen iraunkorra sustatzeko beharrezkoak diren ezagutza teoriko eta praktikokoak eskuratzen dituztela ziurtatzea, besteak beste, garapen iraunkorrerako eta bizi-estilo jasangarrietarako hezkuntzaren, giza eskubideen, genero-berdintasunaren, bakearen eta indarkeriarik ezaren kultura sustatzearen, munduko herritarren eta kultura-

aniztasunaren balorazioaren bidez eta kulturak garapen iraunkorri egiten dion ekarpenaren bidez.

- 4. a Haurren eta desgaitasunen bat duten pertsonen premiak eta genero-desberdintasunak kontuan hartuko dituzten hezkuntza-instalazioak eraikitzea eta egokitzea, eta ikasteko ingurune seguruak, indarkeriarik gabekoak, inklusiboak eta guztientzako eraginkorrak eskainiko dituztenak.
- 4.b 2021ean zehar, garapen bidean dauden herrialdeetarako esku-ragarri dauden beken kopurua nabarmen handitzea mundu mailan, bereziki herrialde aurreratuenetarako, garapen bidean dauden uharteetako estatu txikietarako eta Afrikako herrialdeetarako, ikasleak goi-mailako irakaskuntzako programetan matriculatu ahal izan daitezen, lanbide-heziketako programetan eta programa teknikoetan, zientifikoetan, ingeniarietakoetan eta informazioaren eta komunikazioaren teknologikoetan, herrialde garatuetan eta garapen bidean dauden beste herrialde batzuetan.



Generoen arteko berdintasuna ez da soilik funtsezko giza-eskubide bat, baizik eta mundu baketsua, oparoa eta jasangarria lortzeko beharrezko oinarria. Emakumeei eta neskei berdintasuna bermatuz gero hezkuntzarako, arreta medikorako, lan egokirako eta politikaren zein ekonomiaren arloko erabakiak hartzeko prozesuetara sartzean, ekonomia jasangarriak bultzatuko dira eta gizartea eta humanitatea lagunduko dira, bere osotasunean.

Harremana duten xedeak

- 5.1 Mundu guztian emakume eta neskatoen aurkako diskriminazio modu guztiekin amaitzea.
- 5.2 Emakume eta neskato guztien aurkako indarkeria modu guztiak ezabatzea eremu publiko eta pribatuetan, sexu-salerosketa eta sexu-ustiapena eta beste ustiapen mota batzuk barne.
- 5.4 Ordaindu gabeko zaintzak eta etxeko lana aitortzea eta baloratzea zerbitzu publiko, azpiegitura eta gizarte-babeseko politiken bidez, eta etxean eta familian partekatutako erantzukizuna sustatuz, herrialde bakoitzean dagokionaren arabera.
- 5.6 Sexu- eta ugalketa-osasunerako sarbide unibertsala ziurtatzea, baita ugalketa eskubideak ere, Populazioari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Hitzarmenaren Ekintza Programarekin, Pekinoko Ekintza Plataformarekin eta aztertze konferentzien azken dokumentuekin bat adostutakoaren arabera.

- 5.a Emakumeei baliabide ekonomikoetarako eskubide-berdintasuna eta lurraren jabetza eta kontrolerako eta ondasunak, finantza-zerbitzuak, herentzia eta natura-baliabideak eduki ahal izateko eskubide-berdintasuna ematen dieten erreformei ekitea, lege nazionalekin bat etorritz.
- 5.b Teknologia instrumentalaren erabilera hobetzea, bereziki, informazioaren eta komunikazioen teknologiatik, emakumeen ahaldundutza sustatzeko.
- 5.c Politika zuzenak eta genero-berdintasuna sustatzeko lege aplikagarriak onestea eta indartzea, emakume eta neskatu guztien genero-berdintasuna eta ahaldundutza sustatzeko, maila guztietan.

Taxuzko lana lortzeko aukerarik eza, inbertsio nahiko eza eta kontsumo baxuak direla eta, gizarte demokratikoen azpian dagoen oinarriko kontratu soziala higatzen ari da: hain zuzen, guztiok aurrerapena partekatuzko dugun eskubidea. Garapen ekonomiko jasagarria lortzeko, gizarteek baldintza egokiak sortu beharko dituzte pertsonak kalitatezko enpleguak eskura ditzaten, ekonomia sustatuz eta ingurumena kalte gabe. Lan egiteko adinean dagoen populazio osoarentzat ere lan-aukerak egon beharko dira, lan-baldintza duinekin



Harremana duten xedek

- 8.3 Garapenera bideratutako politikak sustatzea, alderdi hauek babestuz: ekoizpen-jarduerak, lanpostu egokien sorrera, ekintzailtza, sormena eta berrikuntza; eta mikroenpresen eta enpresa txiki eta ertainen eraketa eta hazkuntza sustatzea, finantza-zerbitzuak eskuratzearen bidez ere.
- 8.5 Hemendik 2030era bitarte, enplegu osoa eta produktiboa eta taxuzko lana lortzea emakume eta gizon guztientzat, gazteak eta desgaitasunen bat dutenak barne; eta, halaber, balio bereko lanarengatik ordainsari berdina eman dadila lortzea.
- 8.6 2021ean zehar, nabarmen murriztea enplegurik ez duten eta ikasten edo gaitzen ari ez diren gazteen proportzioa.
- 8.7 Berehalako neurri eraginkorrak hartzea lan bortxatuarekin amaitzeko, amaiera ematea egungo esklabotasun-moduei eta pertsonen salerosketari, eta haurren lanaren forma okerrenak (errekrutazioa eta haur soldaduak barne) debekatu eta kenduko direla bermatzea; eta, hemendik 2025era, amaiera ematea haurren lanari, bere forma guztietan.
- 8.8 Lan-eskubideak babestea eta lan-ingurune segurua eta arriskurik gabekoa sustatzea langile guztientzat, migratzaileak barne, eta, bere-

ziki, emakume migratzaileentzat eta enplegu prekarioak dituztenentzat.

- 8. b 2021ean zehar, gazte-enplegurako mundu-mailako estrategia bat garatzea eta martxan jartzea, eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen Enplegurako Munduko Ituna aplikatzea.



Diru-sarrerei dagokienez, herrialdeen arteko desberdintasunak murriztu dira, baina herrialdeen barnean handitu egin dira. Gero eta adostasun handiagoa dago ekonomiaren hazkundera ez dela nahikoa pobrezia murrizteko, ez bada inklusiboa eta ez baditu kontuan hartzen garapen jasangarriaren hiru dimentsioak; hau da, ekonomia, gizartea eta ingurumena. Desberdintasunak murrizteko asmoz, gomendatu da populazio babesgabe eta baztertuen beharrei arreta berezia jartzen dioten politika unibertsalak aplikatzea.

Harremana duten xedeak

- 10.2 Hemendik 2030era bitarte, pertsona guztien gizarte-, ekonomia- eta politika-inklusioa indartzea eta sustatzea, beren adina, sexua, desgaitasuna, arraza, etnia, jatorria, erlijioa, egoera ekonomikoa edo beste edozein egoera edozein dela ere.
- 10.3 Aukera-berdintasuna bermatzea eta emaitzen desberdintasuna murriztea, baita horretarako diskriminaziozko legeak, politikak eta praktikak kendu egin behar badira ere, alde horretatik egokiak diren legeak, politikak eta neurriak ezartzeko.
- 10.4 Politikak ezartzea (bereziki, zergei, soldatei eta gizarte-babesari lotutakoak), eta pixkanaka gero eta berdintasun handiagoa lortzea.



Asko dira hiriak mantentzeko arazoak, lurraren eta baliabideen gainean presiorik egin gabe enpleguak eta oparotasuna sortzen jarraitu nahi baldin bada. Hirien arazo arruntak honakoak dira: pilaketa, oinarizko zerbitzuak emateko funtsen gabezia, etxebizitza egokien urritasuna eta azpiegituren narriadura.

Harremana duten xedeak

- 11.1 Hemendik 2030era bitarte, pertsona guztiek etxebizitza eta oinarizko zerbitzu egokiak, seguruak eta arazoizkoak izan ditzatela bermatzea, eta auzo marjinalak hobetzea.
- 11.2 Hemendik 2030era bitarte, pertsona guztientzako garraio-sistema seguru, arazoizko, irisgarri eta jasangarria izateko aukera ematea, batez ere, garraio publikoa areagotuz eta ahultasun-egoeran dauden pertsonen beharrei arreta berezia eskainiz (emakumeak, haurrek, desgaitasunen bat dutenak eta adineko pertsonak).

- 11.7 Hemendik 2030era bitarte, berdegune eta espazio publikoak, inklusiboak eta irisgarriak izateko aukera unibertsala ematea, bereziki, emakumeentzat, haurrentzat, adinekoentzat eta desgaitasunen bat duten pertsonentzat.



Kontsumo eta ekoizpen jasangarria egiteko, baliabideen erabilera eraginkorra, eraginkortasun energetikoa eta azpiegitura jasangarriak sustatu behar dira, eta oinarrizko zerbitzuen eskuragarritasuna, enplegu ekologiko eta egokiak eta guztiontzako bizi-kalitate hobea erraztu behar dira. Horren aplikazioak laguntza ematen du garapenerako plan orokorrak lortzeko, ekonomiari, ingurumenari eta gizarteari loturiko etorkizuneko kostuak murrizteko, lehiakortasun ekonomikoa handitzeko eta pobrezia murrizteko.

Harremana duten xedeak

- 12.2 Hemendik 2030era bitarte, baliabide naturalen kudeaketa jasangarria eta erabilera eraginkorra egin dadila lortzea.
- 12.3 Hemendik 2030era bitarte, erdira murriztea txikizkako salmentan eta kontsumitzaileen artean alferrik galtzen diren per capita elikagaien kopurua, eta ekoizpen eta hornikuntzako kateetan elikagai-galerak murriztea, uztaren ondorengo galerak barne.
- 12.5 Hemendik 2030era bitarte, nabarmen murriztea hondakinen sorrera, prebenitu, murriztu, birziklatu eta berrerabiltzeko jardueren bitartez.
- 12.8 Hemendik 2030era bitartean, mundu osoko pertsonak garapen iraunkorrerako eta bizitza-estiloetarako beharrezkoak diren informazioa eta ezagutzak naturarekin bat datozela ziurtatzea.



Helburu hau klima aldaketa eta haren ondorioei aurre egiteko premiazko neurriak hartzera zuzenduta dago. Klima aldaketak kontinente guztien herrialdeei eragiten die, euren ekonomian, eta pertsonen eta komunitateen bizitzan eragin negatiboa sortuz. Etorkizunean, ondorioak okerragoak izango direla espero da. Eguraldi ereduak aldatzen ari dira, itsas mailak igozten ari dira, klima-gertaerak gero eta muturrekoagoak izaten ari dira eta berotegi-efektuko gasen isuriak historiako maila altuenetan daude. Honen ondoan, ezer egiten ez bada, munduko azaleraren batez besteko tenperaturaren igoera 3 gradu ingurukoa izan liteke.

Harremana duten xedeak

- 13.3 Heziketa, sentsibilizazioa eta giza eta erakundearen gaitasuna hobetzea klima aldaketa arintzeko, hari moldatzeko, bere efektuak murrizteko eta abisu goiztiarra lortzeko.



Helburu hau gizarte baketsu eta inklusiboen sustapenean oinarritzen da, garapen jasagarria, guztiontzako justizia eskuragarria eta maila guztietan arduratzen eta eraginkorrak diren instituzioen eraikuntza lortzeko. Gatazkaren bat jasaten duten herrialdeetan, Lehen Hezkuntzan eskola uzten duten haurren tasa % 50 izan zen 2011an, hau da, 28,5 milioi haurrek utzi zuten eskola.

Harremana duten xedeak

- 16.1 Nabarmen murriztea indarkeria-mota guztiak, eta horiei lotutako heriotza-tasak, mundu guztian.
- 16.2 Amaiera ematea haurren kontrako tratu txarrei, esplotazioari eta indarkeria- eta tortura-mota guztiei.
- 16.9 Hemendik 2030era bitarte, denok nortasun juridikoa izan dezagula ahalbidetzea, batez ere, jaiotzen erregistroaren bidez.



Garapen Iraunkorrerako Munduko Aliantza gauzatzeko eta biziberritzeko bitartekoak indartzea

Harremana duten xedeak

- 17.16 Garapen Iraunkorrerako Munduko Aliantza indartzea, ezagutza, gaitasun tekniko, teknologia eta baliabide finantzarioen trukea mobilizatu eta sustatzen duten interesdun anitzen arteko aliantzen bidez, herrialde guztietan, bereziki garapen bidean dauden herrialdeetan, Garapen Jasagarrirako Helburuak lortzen laguntzeko.
- 17.17 Herri-feretan, publiko-pribatuetan eta gizarte zibilean aliantza eraginkorrak eratzea bultzatzea eta sustatzea, elkarteen esperientzia eta baliabideak lortzeko estrategiak aprobetxatuz.